

**Herrietako bestak**
Arizkun, Saldias, Doneztebe, Erratzu eta Areso.**ETXALAR → 13**
Haurraren Eguna ekainaren 16an eta 18an**DONEZTEBE → 17**
Futbol Taldearen Eguna ekainaren 17an**LEITZA → 42**
%16 igo da kiroldegiko erabiltzaile kopurua**SENPERE → 51**
Gaztetxeko taberna inauguratu dute**ERREPORTAJEA → 4-5**

Ez dira kolpeak eta bortxaketak bakarrik

Sexu-eraso anitz identifikatu gabe gelditzen direla eta, eraso horiek zein diren eta halako egoeratan zer egin behar den jakiteko tailerrak egin dituzte Baztanen, eta gehiago ere egiteko asmoa dute. Baztango Bilgune Feminista ari da horretan, «formakuntza eta informazio falta» sumatzen duelako. Herritarrek «erasoak identifikatu, erantzun eta salatzeko prest» egon behar dutela dio.

**SAN JUAN SUAK | Ekainaren 23an**

ARGAZKIA: valledebaztan.com



Suaren bueltan bestan

Urteko gaurik motzena argituz, eskualdeko herri, auzo eta etxe atarietan sua piztuko dute San Juan bezperan. Eta suaren bueltan sarna fuera, txarrak kanpora eta onak barrenera oihukatuz,

hainbat ospakizun egingen dituzte han eta hemen. Arizkun eta Saldiasen, erraterako, suak besta piztuko du, sanjuanak ospatuko baitituzte.

**Urrezko Aizkolarien Txapelketa irabazi dute Irune Izkue eta Joxean Etxeberriak**

Lehenbizikoz jokatu da emakumezkoen txapelketa eta Elgorriagakoa nagusitu da. 23 urtez behetikoeetan, berriz, Zigakoa. → 54

BAZTAN → 44**Nafarroako Gobernuaren eraikin huts bat okupatu dute Baztango gazteek Lekarozen**

Lekarozko kanpuseko hizkuntza murgiltze zentroa delakoa okupatu dute eta paraje horretako izen zaharra berreskuratuz, Abeltgia deitu diote. «Baztanen etxebizitza duina eskuratzeko arazoan» ondorioz sartu dira eta gisa berean, jendeari hurbiltzeko gonbidapena luzatu diote: «Abeltgiko ateak irekiak dira, eraikina denok ordaindu baitugu».

Ttipi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
- %80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Kontaktatu bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

687

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Baztan Abentura Park - 2 tiket
Inigo Telletxea Grajirena | NARBARTE
Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera
Izaskun Telletxea Zubieta | LEITZA
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Margarita Flamarique Frantzesena | ELIZONDO
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Enaut Lazkano Etxeberria | BERA
Buatxabal - Kamiseta bat
Modesto Arraztoa Mendikoa | IRURITA
La Rhune - 2 sarrera
José Luis Iriarte Ibarra | SUNBILLA
Elkar argitaletxea - Liburu bat
M^a Carmen Irigoien Saratea | ZIGA
Elkar argitaletxea - Liburu bat
Mari Iraola Maritorea | ALMANDOZ
Elkar argitaletxea - Liburu bat
Ana M^a Goñi Agirre | LEKAROZ

2 sarrera



Txingudi
Merkataritza
gunea
IRUN

CAMELOT PARK
www.camelotpark.es

2 sarrera



IRRISARRI LAND
www.irisarriland.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu



2 sarrera helduentzat

LI BU RU AK



- Puka, erleak eta traktoreak
- Ipurtargien herria
- Argixorjin

elkar
www.elkar.eus

LA GUN TZAI LEAK



www.maukamusik.com



www.aquariumss.com

Ezezaguna dena ezagutzeko aukera eskaintzen dute mapak. Herri edo inguru bati buruzko ezagutza zabaltzekoa. Duela urte batzuk, Jose Migel Elosegui eta Pablo Feok

bat egin zuten Leitzako baserriak seinalizatzeko lanean eta elkarlan horren emaitza izan dira, Areso eta Leitzako metro itxurako mapak, Leitzako mapa toponimikoa eta *campus* mapa.

Sortzez ez dira eskualdekoak baina, jakin-mina asetu nahian, bertako askok baino hobeki ezagutzen dituzte dagoeneko Leitza eta Aresoko inguruak.

Pablo FEO GOMEZ | Areso eta Leitzako plano berrien eta *campus map*-en egilea

«Etxeak bere izenez ezagutzen dira inork gutxik daki helbidea»

Eneritz IRAOLA | LEITZA

Metro itxurako mapak izan dute arrakasta, baina lan zabalagoa dago horren atzean.

Bilketa lan handi baten emaitza sinplifikatua dira metro itxurako mapa hauek. Jose Migel Elosegui eta biok auzolanean Leitzako baserrietako seinaleak, panelak... non kokatu behar ziren zehazten ibili ginen. Bana-bana, herri-gunetik kanpo dauden baserri guztiak bisitatu genituen eta mapa baten gainean kokatzen joan ginen. Krokisa osatzera koan kolore desberdinak erabiltzen nituen bideak zehazteko eta metroko mapa baten tankera hartu nion esku artean nuenari. Hala sortu ziren mapak berezi hauek. 2013an aurkeztu genuen Leitzakoa eta Aresokoa egin dugu orain.

Ez dira, ordea, osatu dituzuen mapa bakarrik, ezta?

Duela 20 urte aurkeztu zuen Jose Migel Elosegui Leitzako mapa toponimikoa eta duela hiru urte bertsio berria egin genuen bion artean. Gerora, interneteko baliabideei esker, mapak eguneratzen joan gara, etengabe eraldatzen ari den kontua baita. Etxe berriak eraiki dira, besteak zaharberritu eta izena aldatu diote... Mapa berri honi QRak ere gehitu genizkion eta ber-



ARGAZKIA: PAUL FEO

Pablo Feo, Aresoko sakabanatutako etxebizitza, borda eta baserriak biltzen dituen maparekin.

tan klikatuta, Jose Migel Elosegui egindako Leitzako etxe eta baserrien argazki-bilduma ere kontsulta daiteke. Hamar urtean behin argazkiak ateratzen zituen eta horietan ikus daiteke, etxea nolakoa zen eta nola joan den aldatzen. **Herri-guneko etxebizitzekin ere badago zer landua?**

Bai noski, Leitzako herri-guneko etxeen *campus map*a egin dut eta Aresokoa egiteko asmoa ere badut. *Campus map*ak 3D itxurako mapa bereziak dira, oso argiak, eta pentsatuak daude etxeak zehazki non dauden adierazteko. Areson adibidez, bi auzo daude,

INTERESA

«Zeinek nahi du mapa bat? Mendira joan eta galtzen denak, herriko etxe, baserri eta bordak ezagutzen ez dituenak... Herritarrak mendira joaten direnean ez dira galduta sentitzen, ezagunak zaizkie paisaiak, errekek, etxe eta baserriak. Kanpotik etortzen bazara, jakin-min horrek erantzun bat behar du eta mapa hauetan topatu ditut nik erantzunak».

baina bakarrean daude etxebizitzak. Nabaritu dugu beharra dagoela, etxe guztiak ongi koka-tzeko.

Nondik datorkizu gai hauekiko interesa?

Jakin-mina nolabait asetu nahietik. Zeinek nahi du mapa bat? Mendira joan eta galtzen denak, herriko etxe, baserri eta bordak ezagutzen ez dituenak... Herritarrak mendira joaten direnean ez dira galduta sentitzen, ezagunak zaizkie paisaiak, errekek, etxe eta baserriak. Kanpotik etortzen bazara, jakin-min horrek erantzun bat behar du eta mapa hauetan topatu ditut nik erantzunak. Elosegui eta biok

ez gara leitzarrek jaiotzez, eta ez dut uste honetan aritu izana kasualitatea denik.

Norentzat dira baliagarriak mapa hauek?

Batez ere, garraio, posta eta larrialdi zerbitzu-entzat. Hauek etxe bakoitzeko izen eta helbide zehatz bat behar dute beraien lana ongi egin ahal izateko. Gure herrietan bada berezitasun bat, hemen etxeak bere izenez ezagutzen dira, inork gutxik daki helbidea eta etxea izendatzeko orduan ere aldea desberdinak erabiltzen dira. Ez da hori arazo bakarra, batzuek etxebizitza, baserri edo borda bat non dagoen gutxi gorabehera badakitelatela, baina gero horrekin ez da aski. Nola ailegatu bertara? Zein bidetik? Mapak guztiontzat izan daitezke baliagarriak.

Herri-ondarea mantentzeko modua ere bada ezta?

Bai noski. Mantendu eta baita berreskuratzekoa ere. Elosegui adibidez, duela 40 urte inguru hasi zen Leitza eta Aresoko borda, erreka... izenak biltzen. Herritarrei, artzainei... galdezka aritzen zen. Mapa batean ikusita, agian, hainbestekoa ez dirudien arren, ikaragarria da bertan dagoen altxorra, guztiok ezagutu behar genukeena.



ARGAZKIA: ONDIKOL

2015eko Nafarroa Oinezen izandako sexu-erasoaren ondotik, ehunka lagun bildu ziren Elizondon gertatutakoa salatzeko.

GIZARTEA → SEXU-ERASOEN IDENTIFIKAZIOA

Ezetz, ezetz da!

Emakumeen kontrako indarkeria kolpe eta bortxaketatik haratago doala zabaltzen aspalditik ari dira Bilgune Feminista eta Emagin Elkartea

Sexu-eraso anitz identifikatu gabe gelditzen direla uste dute eta horregatik, horrelako erasoak identifikatu eta halako egoeratan zer egin behar

den jakiteko tailerrak egin dituzte berriki Baztanen. Gehiago egiteko asmoa dute, oraindik ere «kontzientiazio falta» sumatzen baitute.

G. PIKABEA

Begirada eta komentario lizunak, ukitzeak, sare sozialetan iraintzea, bikotekidearen kontrola... «Horiek ere sexu-erasoak dira. Emakumeen kontrako indarkeria kasuak ez dira soilik jipoiak edo bortxaketak. Erasok sutilagoak izan daitezke». Ez da oraingoa meza, aspalditik ari baitira hori zabaltzen Euskal Herriko Bilgune Feminista

eta Emagin Elkartea. Hala ere, oraindik ere eraso batzuk identifikatu gabe gelditzen direla uste dute.

Baztango Bilgune Feministako kideen arabera, «erasoaren kontzeptuarekin hutsuneak» daudelako gertatzen da hori: «anitzek erasoak soilik eraso fisikoekin identifikatzen dutelako». Eta horri irtenbidea eman nahian, «formakuntza eta informazio falta» sumatu zu-

telako, maiatzean eraso sexistak identifikatu eta halako egoeratan egin behar dena lantzeko tailerrak antolatu zituen Baztango Bilgune Feministak. Berroetan eta Arizkun egin zituzten, baina oraindik ere gehiago antolatzeko asmoa omen dute. Laguntzea da helburua, Baztango mugimendu feministaren hitzetan, «eraso sexistak daudenean anitzek ez

baitakite nola erantzun, ez dakite zer egin horrelako egoera batean», eta tailer hauei esker, «gure nahia eraso guztiak identifikatzeko gai izatea da, ez bakarrik fisikoa». Tailerretan parte hartu duten bi neska gazte dira Iratxe Arretxea eta Maialen Iantzi eta «arras aberasgarria» izan dela kontatu digute, «elkarrengandik anitz ikasi dugula».

UDAN GEHIAGO

Sexu-erasoak eguneroko kontuak badira ere, iduri du uda garaian ugartu egiten direla. «Herriko bestetan jendartean egunerokoan gertatzen dena erreproduzitu egiten da», diote Baztango mugimendu feministakoek: «horren arrazoi nagusia jendartearen antolaketa patriarkalean emakumea eremu guztietan zapaldu eta erasotua izaten dela da. Gizonezkoek espazio publikoaren okupazioan eta bertzeen parte hartzean hegemonia dute. Horrez gain, bestetan

dena libre denaren aitzakiapean, alkohola eta drogaren kontsumoaren aterpean, erasoak areagotu egiten dira eta maila handi batean normalizatuak daude. Erasotzaile anitzek hauen kontsumoa erabiltzen dute erasoaren justifikazio moduan».

«Herriko bestetan jendartean egunerokoan gertatzen dena erreproduzitu egiten da».

Baztango Bilgune Feminista

Joan den urtean, Elbete, Arraioz eta Zigan izan ezik, Baztango gainerako herrietan eraso sexisten aurkako protokoloa paratu zuen martxan Bilgune Feministak, erasoak gertatzen direnean nola jokatu azalduz: «gazteekin egindako balorazioa orokorrean arras positiboa» izan zela diote, «hutsuneak identifikatzeko» balio izan zielako. Geroztik ez da inongo erasorik salatu Baztanen. «Na-

hiz eta berri positiboa eta ona izan, gertatzen da erasoak izanik ere hainbat arrazoiengatik salatu ezizatea». Arrazoiak «anitzak» izan daitezkeela adierazi dute: «emakumearen beldurra izan daiteke, edo jendea isilik gelditu delako bertzeek zer erranen duten kezka. Presio soziala ikusezina izanagatik, ikaragarriko eragina du norbanakoengan, zer erranik ez horrelako herrietan, denok ezagutzen baitugu elkar». Hortaz, uste dute «nahiz eta erasoen salaketarik ez izan, ezin dela bermatu erasorik gertatu ezizana».

Baztanen eraso sexistak fisikoak eta psikologikoak izaten direla ez dute zalantzarik mugimendu feministako kideek. Eta besta giroan, «fisikoak bereziki ukipenezkoak» direla gaineratu dute: «dantzan ari garen bitartean ipurdia ukitzea edota bulkatzea». Psikologikoak honela azaldu dituz-

te: «edozein motatako porroak izaten dira, dantzan ari den ondokoari edota ostatu edo txosnako zerbitzariari erraten zaizkienak». Begiradak ere aipatu dituzte: «hainbat neskei gertatzen baitzaie begirada lizunak jasotzea». Eta azkenik, «ezetzaren gainean dagoen ulergarritasun faltaz» aritu zaizkigu: «*ezeztza beti da ezetz* kontzeptua anitzek ez dute ulertu nahi izaten eta hortik datoz bertze eraso anitz».

Baztango Bilgune Feministaren irudiko, egindako lanari esker, kontzientziazioa haunditzen ari da, baina «oraindik ere gizartearen kontzientziazio falta» somatzen dute. Beraiek ere lanean segitzea asmoa dute: «hasi berriak gara, bi urte bertzerik ez ditugu, eta momentuziaz hasitakoari segida eman nahi diogu: protokoloa eta tailerrak. Hortik goiti Baztanen dauden beharren arabera ko plan-

gintza eginen genuke, hutsuneak non dauden identifikatuz eta helburu egingarriak markatu eta pausoz pauso Bilgune Feminista errotu». Bertintasuna «teoriatik praktikara eramateko» mezua ere luzatu dute: «nahiz eta teorien denak berdintasunaren alde egon, praktikan hau ez da aitzinera eramaten». Horren adibide, «besta giroan izaten diren eraso sexistak edota egunerokoan izaten diren jarrera matxista eta mikromatxismoak» aipatu dituzte.

Herritarrek erasoak «identifikatu, erantzun eta salatzeko prest» egon behar dutela azpimarratu dute: «ez baita erasorik emanen erantzunik gabe». Eta gaineratu dute: «ez onartu eraso sexista bakar bat ere, eta edozein erasoren aitzinean salaketa egitera bultzatu. Injustizia baten aitzinean isilik gelditzea erasotzailearen alde egitea da».

TAILERREAN IBILI DIRENAK SOLASEAN



ABERASGARRIA

«Bakoitzaren ideia tikiak taldean plazaratuz, batetik bertzeari aberastu gara, elkarlanaren eta kontzientzia sortzearen hastapena izan da».

Iratxe ARRETXE

Tailerrean parte hartu duen berroetarra



ANITZ IKASI

«Bakoitzaren errealitate eta ikuspegitik abiatu marko orokor bat sortu eta osatu dugu. Normalean, seriotasunez, nahi baino gutiago solasten gara gai hauetaz, eta beldurrak alde batera utzita, eguneroko kezka eta arazoak mahai gainera ateratzea ikaragarria izan da».

Maialen IANTZI

Tailerrean parte hartu duen berroetarra



EMAGIN ELKARTEAREN AHOLKUAK

Eraso sexistak noiz eta nola

Emagin Elkartetik hainbat aholku ematen dituzte eta eraso sexisten harira, garbi diote emakumeen kontrako indarkeria ez direla soilik jipoiak eta bortxaketak. Adibide hauek aipatu dituzte elkartetik:

- Etengabeko begirada lizunak edo jokoz kanpoko lizunkeriak erraten badizkizute: **PARATU ZURE MUGAK ETA ERRESPETARAZI. GUSTUKO EZ DUZUNA ADIERAZI.**
- Ezagun edo ezezagun batek ipurdia ukitzen badizu, neketsua bada eta estutzen bazaitu, nahiz eta zuk bakean uzteko erran: **EZ, EZETZ DA!**
- Zuk nahi ez duzunean, sexu-harremanak izatera edo kondoirik gabe sarketak egitera behartzen bazaitu: **NAHI DUZUNAREKIN ETA NAHI DUZUNEAN, SEXUALITATEA MODU ASKEAN BIZI.**
- Sare sozialetan iraintzen bazaituzte, zu eta zure harremanak kontrolatzeko erabiltzen badute, zure gorputzeko atalen argazkiak bidaltzeko presionatzen bazaituzte: **ARDURATSUA IZAN IGOTZEN DITUZUN GAUZEKIN ETA BABESTU ZURE INTIMITATEA.**
- Bikoteak zure denbora, sakelekoa (*whatsapp*), janzkera, lagunak... kontrolatzen baditu, noizbait zelatatu edo jarraitu bazaitu: **JELOSKORTASUNA EZ DA MAITASUNAREN SEINALE, ETA FACEBOOK-EN PASAHITZA EMATEA ERE EZ.**
- Bikotekideak irizpiderik ez bazenu bezala jokatzeko badu zurekin, zure iritzia guttiesten baditu, zure bizitzan inor gehiago egotea nahi ez badu: **EZ MUGATU ZURE BIZITZA BIKOTE HARREMANERA.**

**Nire txanda**

Fernando ANBUSTEGI

Erabakiak

Egunero erabakiak hartzen ditugu. Zer gosalduko dut? Zer jantzi? Zerekin beteko dut hozkailua? Zer egingen dut aisialdiarekin?...egunero, konszienteki edo ez, erabakiak hartzen ditugu. Erabaki sinpleak batzutan, konplexuagoak bertzeetan. Baina, noizbait, norbaitek galdetu ote dio bere buruari: nor naiz? nor izan nahi dut? Galdere horiei, ongi hausnartuz, erantzuna ematera koan eguneroko erabakiak hartzeko orduan oinarri sendo bat finkatu ta genuke. Erabaki potolo eta oinarritzko batek erabaki sinpleagoak ere gehiago sinplifika ditzake. Gauza bera gertatzen da erabakien afera hau estrapolatzen badugu. Ni horretatik harago joz, gure etxean, gure auzoan, herrian, herrialdean ere erabakiak hartu beharko genituzke, erabaki potoloak, eguneroko erabaki bakanagoak harterakoan nora goazen eta zer nahi dugun jakiteko. Erabakiko al dugu? Batzuk hasiak dira. Zorionak. Ekainaren 18an duzue aukera!

«Erabaki potolo eta oinarritzko batek erabaki sinpleagoak ere gehiago sinplifika ditzake»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Manifa baten kontrakronika

Hartu zapi gorria, txistorra eta patxarana eta goazen manifara, gure bandera hartuta. –Gurea? –Bai motel, kateak eta esmeralda dituen! –Hemen bada bat, baina erramu hosto batzuk ere baditu –Nahi baduk har ezak gorria eta gualda, baina arranorik ez duena, badaezpada! –Arrano beltzarena? –Igual da, goazen etxera, Real Madrilek Champions-eko finala dik eta!

NabarmentzekoakItsaso FAGOAGA
10. Espainiako txapelketaJavier SEIN
Nafarroako txapeldunIrune IZKUE
Urrezko Aizkolaria

Maiatz emankorra izan du Skeet Olinpikoan ari den lesakarrak. Presidentearen Kopa, Euskadiko txapelketa eta Espainiako txapelketa irabazi ditu, azken hau hamargarren aldiz.

SH Metalgraf taldean ari den iturendarrak irabazi du Nafarroako mendi bizikleta txapelketa, 23 urtez beheitiko kategorian. Maiatzaren 28an Zangozan jantzi zioten maillot gorria.

Lehen aldiz izan dute emakumeek Urrezko Aizkora txapelketan parte hartzeko aukera eta hortaz, lehen txapelduna da Elgorriagan bizi den neska, Nerea Sorondo beratarri irabazita.

Atzera begira
→ 1997-VI-19 •
TTIPI-TTAPA 208 zk.

**Debutatu berria zen Abel Barriola leitzarrarekin**

Berriki agur erran dio kantxei, baina duela 20 urte, lehen kontratu profesionala sinatu eta hilabetera elkarriketa egin zion TTIPI-TTAPAK Abel Barriola leitzarrari. Artean debutatu gabea zen, «eskuko arazoak medio», baina «ilusio ikaragarriarekin» zegoen. Barriolak onartzen zuenez, «atzelaria izateko oso gazte igo naute, gu izaten baikara partiduaren pisu gehiena eramaten dugunak. Baina horrelako aukera ematen badizute ezin duzu ezetz esan». Gaztetasun horren ondorioz, «saltoa gehiago nabarituko dut, ia zuzenean jubeniletatik pasatu naizelako. Horregatik, kategorian asentatzea da nere lehen helburua» zioen.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Gueren-diaín, Martín Bertiz, Martín Larraide, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

2017ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua



Kolaborazioak

Euskal etxea (II)

Esteban IRUSTA MALLEA

Gaur arte iritsi zaizkigun herritarren eraikin zaharrenak XV. eta XVI. mendeak dira. Aurre-historiako kobazuloaz aparte, lehenengo gizakien bizitokiak zelaietan eraikitako txabolak ziren. Arkeologoen iritziz, txabola horiek borobilak ziren, estalki konikoarekin, Europan barna aurkitu diren aztarna guztien arabera. Txabola mota hauen kopiaketa bat Dulantzin (Arabia) dago, Henaio izeneko muino batean. Erroma baino lehenagoko Akitania euskalduna zela inork ez du zalantzan jartzen. Frantses arkeologoen guztiz zuzen eginak ziratekeen eraikinak berreraiki dituzte. XVII. mendetik aurrera hainbat aldaketa gertatu ziren gizartearen eta ondorioz, eraikuntzan. Aldaketarik nabarmenena, oro har, zurgin etxetik hargin etxe batera iragan zela izan zen. Garai honetako (1650-1790) estiloari arte barrokoa deitzen zaio, eta ez zen mugatu eraikuntza monumentetara bakarrik (jauregiak, elizak...) herri arkitektura ere zabaltzen baitzen. Hurrengo aroan, neoklasikoan, (1790-1890) harginaren lanak garrantzia irabazten segitu zuen zurginaren kaltetan. Beste gertaera garrantzitsua etxe jabe ugari etxea bi zatitan banatzea izan zen. Garai honetan etxebizitzari eskaintzen zitzaion tokia handitu zuten logela gehiagorekin. Iragan mendeetako etxeak zurgin etxeak, zuzeko habeen bidez eraikitako egitura zuten. Orain, harria da nagusi. Estilo desberdinen artean, Bizkaian, batez ere, atarteak dutenak dira. Harri landuek osaturiko arku baten edo gehiagoren bidez itxitako atarteak etxe barrokoen ezaugarria da. Atarteak ez ezik, aurrekalde osoa ere harriz osaturiko etxeak dira. XIX. mendean, mugimendu berriak sortzen dira arkitekturan. Estilo berri honi "erregionalismoa" deitu zitzaion, eta Ingalaterratik kontinentera iragan zen XIX. mende erdialdean. Frantziar oihartzun zabala izan zuen eta handik Iparraldeko kostaldera mende bukaerara iritsi zen. Frantziako enperadore Napoleon III.aren emazteak, Eugenie de Montijo, Biarritz hautatu zuen udalekutat, aberats jendea erakarrit. Etorritako bisitari hauek Euskal Herria "deskubritzen" hasi ziren, Lapurdiko kosta modako udaleku bilakatuz. Deigarria egin zitzaion herrietako arkitektura, baserriar xumeen etxeak zuen aparteko dotorezia. Eta denborarekin, XIX. mende bukaeran, etxe berriak eraikitzen hasi ziren "euskal estiloan". 1887an Henry O'Shearek *La Maison Basque* publikatu zuen, eta hasi berria zen turismoak bultzada eman zion. Lapurdiko euskal etxe eredu honen eragina nabaria da Gipuzkoakoan eta Nafarroan, Bortzirietan eta Baztanen. Euskal Herrian etxe tradizionala gutxi baloratua izan da, baina, edertasun aparta duten baserriak kontaezinak dira. Horrez gain, euskararen babesleku izan dira garai zailenetan. Elizanburu Sarako olerkariak ederki azaltzen du jaiotetxearen maitasuna, abesti ezagun honen bidez: *"Nahiz ez dan gatzelua/ maite dut nik sorlekua/ aiten aitek hautatua/ Etxetik kanpo zait iduritzen/ nonbait naizela galdua/ nola han bainaiz sortua/ han dut utziko mundua/ galtzen ez badut zentzua"*.

Pastorala: euskal herritarren antzerkia

Pello APEZETXEA ZUBIRI

Pastorala solasa Euskal Herriko Iparraldetik heldu zaigu. Nik horrela ezagutu dut, behintzat, Zuberoako hainbat herritan, txandaka edo, urtero plantatzen duten antzerki eder berezi bati ematen dioten izena.

Antzerki berezi direla erran dut, azpimarratzeko moduko berezitasunak baititu Pastoralak. Herrikanpoko landa eremuan plantatzen dute, eta milaka ikusle biltzen ditu. Antzezleak eta laguntzaiak ere ugari dira, ehunka, nik uste, oker ez banago. Eta populazio txikiko herritarrek, gehienbat. Hiru ordu inguruko emanaldiak direnez gero, hainbat hilabetetan zehar ordu pila handiak hartzen dituzte prestatzen. Berezitasunak gogoratzean, ez dugu aipatu gabe uzten ahal euskarazko antzerki emanaldiak direla. Eta egile guziak osoki euskaradun ez izanagatik, goraiatzeko da euskaraz egitea nola errespetatzen duten.

Aurtengoan, dena den, Hegoaldeko herri batean ere, Etxalarren xeheki, Pastoralaz gozatzeko aukera izanen dugu, Karmen izeneko ixtorioa. Prosper Merimée frantsesak 1845ean idatzitako nobela, Iruñeko Jerardo Mungiak euskaratu eta antzezteko egokitu du. Eta berea izan da Etxalarren egiteko ideia. Ez da itxuragabeko ideia, noski. Karmen Etxalarkoa zela aspalditik aditua eta herriko jende aunitzek ixtorioaren nolabaiteko ezagutza ere izan du. Berrogei urte bederen badira Iruñeko apez eta irakasle zen bat galdezka etorri zitzaidala, ea zer nekien Karmen honetaz. Berak bai baitzekien Etxalarrekin zerikusia zuela.

Lehen Zuberoakoaz azaldutakoaren arabera, etxalartar multzo handia ari da, aspaldixkotik, irailean eskainiko diguten ikuskizuna prestatzen. Herritarrek elkartzea beti baldin bada mesedegarri herri guziarentzat; hainbat eta gehiago hainbertze alditan eta hainbertze denboraz egitea. Jerardo, Pantxika eta gehiago dituzte zuzendari eta laguntzaiak. Baztandar parte-hartzaileak ere bai.

Etxalar bezalako herri batean, eguneroko bizimodu euskaraz egiten duen bertako jendeak hainbertzeko espektakulua den Pastoral euskaraz eskaintzea, gozagarri, bai, baina gure hizkuntzaren balioaz ohartzeko ere lagungarri bilakatzen ahal da.

«Etxalartar multzo handia ari da, aspaldixkotik, irailean eskainiko diguten ikuskizuna prestatzen. Herritarrek elkartzea beti baldin bada mesedegarri herri guziarentzat; hainbat eta gehiago hainbertze alditan eta hainbertze denboraz egitea»

Komikia



Irakurleak mintzo

Bai euskal estatu independenteari

Francisco Jose RAMADA ESTEVEZ (Murtzian dagoen euskal preso politiko bat)

Eten ez den ilusio bat Euskal Herriko eskualdetan eta herrietan zabaltzen ari da erabakitze eskubidearen aldeko herri galdeketa bidez. (...) Gure geroa erabaki ahal izateko ariketa ziegarraino zuzen-zuzenean datorkigun ilusioa da, eta zuekin batera kutsaturik gauzkan.

Ekainaren 18an, Bortzirietan, Basaburuan, Leitzaldean eta Sakanaan ere, 43 herri. Erabakitze eskubidearen alde gauzatuko duten herri galdeketa ariketa erakusten du gure herriak demokrazia gosea duela, eta bere etorkizuna erabaki nahi duela inoren zain egon gabe. Ariketa demokratiko honek, historikoki oztopoa baino ez du jasan izan kolore desberdinetako gobernuen aldetik (PSOE-PP). Ariketa demokratikoa oztopatu ez ezik, beren benetako aurpegia eta jarrerak politikoa azaleratu ere egin dute, gure herriaren ahotsa isilarazteko. Aspaldidanik garbi dagoena zera da: Espainiako demokrazia neofrankistak estatu espainolean barruan dau den nazioei beren alda-

rrikapen demokratikoa aitortzea eragozten die la, eta ondorioz, praktika politiko demokratikoa gauzatzeko erabateko ezintasuna dutela. Horren lekuko dira Katalunia eta Euskal Herria.

Euskal preso eta iheslariok hurre herriarentzako autodeterminazio eta demokrazioaren alde borrokatzeagatik, espetxea eta erbesteak pairatzen ari gara. Gainera, Euskal Herriaren aldeko gure tinkotasuna eta borroka gogortasun handiarekin ordainarazten ari zaizkigu. Halera, demokraziaren aldeko gure engeiamendua indartu egin da. Badakigu demokrazia hitza oso desitxuratua dagoela ere, eta hitzaren bueltan demagogia handi bat erakita dagoela; izan ere, demokrazioaren izenean Espainiako gobernuak herri zapalduen ahotsa isilarazten ari da etengabe, eta isilarazi nahi du. Horregatik, gaue egun Euskal Herriaren alde demokrazia ozenki aldarrikatzeak izugarizko balioa dugure buruaren jabe izateko giltza gure esku baitago.

Ariketa demokratiko horrekin, Euskal Herriaren etorkizuna erabaki ahal izateko lehen harria jartzen ari gara. Izan ere, euskal estatu berri eta justuago bat ongizatean, berdintasune-

an, justizia sozialean, demokrazian eta askatasunean oinarrituta eraikitze aukera aparta dugu. Badakigu Frantzia eta Espainiako bi gobernuak ez gaituztela herri gisa onartuko, eta ez dutela aitortuko ere, eta hitza ere ukatu egin digutela! Horregatik, aldeakartasunez inoren zain egon gabe lan egitea da geratzen zaigun bide bakarra. Euskal Herrian bizi diren guztiak dira beharrezkoak: berdin dion non jaioak eta nondik etorriak diren, zein hizkuntzetan hitz egiten duten edo zein jainkori otoitz egiten dioten! Denon artean errealitate bihurtu behar dugu Euskal Herria burujabe bilakatzeko. Amets horretarako, 2014an Durango eta Iruña giza katearen bidez elkarrekin lotu genituenetik, itxaropen olatua zabaldu zen, eta 2017an ere ilusioa eta itxaropena lortzea dagokigu, tsunami handi bilakatzeraino, hain zuzen! Uda hasiera honetan Bidasoa ibaitik nafar indarpendentzia berrekuratzeko azken saioak 490 urte, Amaiurtik Hondarribiaraino lekukoa eta Arakil Argan bidez Ebro ibaian isuritako urekin ere bideretik Katalunia eta Euskal Herria independentziaren aldeko olatu batean bilakatuko dira. (...) Katalunian sor-

tutako indarra eta aldeko haizea Euskal Herrian indartu behar dugu. Herria mobilizatu, bildu eta gure indarretan sinetsi behar dugu: izan ere burujabetzaren aldeko prozesua bururaino eramateko gakoa herrian dago. Herri kontsultek gobernuak, alderdi politikoak eta instituzioak mugiarazteko izan behar dute. Gure esku dago.

Gure esku dago Bortzirietan

Josu IRATZOKI, Ander AL-MANDOZ, Xabier BIZENTE eta Maider ARRIETA (Bortzirietako EHBilduren izenean)

Nafar gisa, Euskal Herri burujabe bateko herritarra izan nahi duzu? Galdera horri erantzun beharko diogu Bortzirietako herritarrok, Ekainaren 18an Gure Esku Dagok antolatutako galdeketa. Frankismoaren ondoren ezarritako Foru Hobekuntzak, erabakitzeko eskubidea ezin garatzea ekarri du. Nafarroan estatusari buruzko lehenengo galdeketa eginen da, herritarrek bul-tzaturiko dinamikan, etorkizunari buruz herritarrek modu zuzenean erabakitzeko.

Bortzirietako EH Bilduk argi dauka zein

den bere hautua planteaturiko galderaren aurrean, BAI argia. Bai argia burujabetasunaren aldekoa. Konbentzita gaudelako gure burua burujabetasunez, kanpotik baino hobe antolatzen dakigulako.

Politikoki antolatze-ko aukerak ditugu hemen, auzolanean eta batzarraren bitartez adibidez. Guztiona dena babestu, eraiki eta lehenetsi nahi dugu, pribatizazio eta prekarizazioaren gainetik. Bizi dugun krisi ekonomikoari aurre egin ahal izateko ere, premiazkoa ikusten dugu, erabakitze eskubidea izatea, beharrezko ditugun tresna guztiak gure eskutik izateko.

Euskara eta euskal kulturaren etorkizunak burujabetasuna eskatzen du. Estatuak beren hizkuntza eta kultura oldarkotasunez inposatu digute. Beraien eredu neoliberalak dakarren uniformazio eta pobretze kultural eta identitarioaren aurrean, aniztasunaren kudeaketa demokratikoa behar dugu eta horrek ere burujabetasuna eskatzen du.

Horregatik guztiagatik, independentzia inoiz baino beharrezkoa delako, EH Bildutik Ekainaren 18an Bortzirietan burutuko diren galdeketa parte hartzea eta BAI bozkatzera animatzen zaituztegu.

Prentsatik bildutakoak



«Haur denboratik oroitzen dut gaskoia. Amak Radio Bayonne entzuten zuen. Goize-ro, bost minutuz ari-zen ziren gaskoiz, eta hizkuntza hori biziki hurbil sentitzen nuen Donostiako Morlans auzoa gaskoitik heldu da, edo Miramon adibidez, 'mir' eta 'mon' hitzetatik. 'Mendia' erran nahi du 'mon' hitzak gaskoiz. Abizen askok ere jatorri gas-koia dute».

Franck DOLOSOR
Senpereko kazetria
GAUR8 2017.05.27



«Ikusten nuen bazela ikastolatik ateratako jende bat gauzak egi-nez, euskaraz mintza-tuz, baina talde txiki horiek ez zutela euren artean harremanik, eta ofizialki ez zirela bate-re agertzen. Hasi ginen hori lantzen, eta orain izan dezakete aukera bat Larreko kultur aretoan. Iruditzen zait egun badela dinamika bat euskal kulturaren aldekoa Senperen».

Andoni ITURRIOZ
Harrera elkarteo presid.
BERRIA 2017.06.04

11 galdera labur

Nor dugu Jone Uriarte?

Erratzun bizi den 20 urteko nes-ka alaia.

Zer da hobia, defentsa edo era-so on bat?

Biak dira garrantzitsuak, eta biei esker irabazten ahal dira par-tiduak. Aunitzetan defentsa on bat eraso on batean akitzen da. Hala ere gu beti oinarritu izan gara defentsan.

Noiztik duzu eskubaloirako afi-zioa?

Tiki ttikitatik familian bizi izan du-dan kirola da. Hasi nintzenetik gan den urtera arte Baztango taldean ibili naiz, eta azkeneko urte hau Iruñako tade batean, bietan ere eskubaloiaz gozatuz.

Zein afizio dituzu?

Musika, kirola eta parranda afi-zio bezala kontsideratzen ba-da... (irrika)

Asteburuko plabik hoberena?

Edozein plan ona izaten da kon-painia ona badut. Non eta ez nai-zen etxean gelditzen...

Bestazalea zara?

Ingurukoek hala diote!

Zein da Erratzuko besten bere-zitasuna?

Herri ttikia izanda, bertakoen ar-tean sortzen den giroa. Adin ezberdinetako jendea nola

harremantzen den ikustea. Ez da toki aunitzetan ikusten....

Zein da bestetako egunik bere-ziena?

Egun guzietan izaten da zer-bait berezia, baina bat aukera-tzekotan, zikiro eguna dudarik gabe! Eguerditik hasita, besta gaueko ordu ttikietaraino luza-tzen baitugu.

Eguna edo gaua nahiago?

Mmmm, berdin zait, non eta on-gi pasten dudan zeruko argita-sunak ez du inporta!

Zer behar duzu zoriontsu izateko?

Deus berezik ere, ingurukoak on-gi badira, kontentu!

Amets bat?

Bizitza hontaz disfrutatzea gustuko gauzak eginez.



Jone URIARTE → Erratzuko gaztea

MARITX

- Ingeniaritza elektrikoa
- Boletín industria
- Proiektu elektrikoak
- Instalazio elektrikoak

Legia, 23 - BERA | T. (0034) 636 617 450

sarobe
gozotegia okindegia

pº de eategara 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 630 899
www.sarobe.net

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 - BERA

KATEA BIKE

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.

Eta orain,
GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK,
bizikleta estatikoak lasterketako zintak

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri 1, BERA 948 631 218
kateabera@telefonica.net

MARSH ORBEA CONDA SCOTT LOOK

F. LANCHAS

Akutziladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaillea
jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Alberto RETEGI
abokatua

948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

KULTURA

BERTSOLARITZA → EKAINAREN 2AN BERA KO KULTUR ETXEAN

Baztan-Bidasoaldeko XXX. Bertsopaper lehiaketako sariak banatu dituzte

122 lan aurkeztu dituzte eta Iban Garro lesakarrak irabazi du kategoria nagusian

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Berts Eskolak eta Berako Kultur Batzordeak Bortzirietako Euskara Mankomunitatearekin batera antolatutako Baztan-Bidasoako XXX. Bertsopaper lehiaketako sariak banatu zituzten ekainaren 2an Berako Kultur Etxean. Guztira 122 lan aurkeztu dituzte.

A mailan, (10 urte arte), lehen saria Berako Intza Zubietak lortu du *Bertsolariak beti...* lanarekin. Bigarren saria, Axuri Zapiain Arlegi beratarrek eskuratu du *Aitarek kantua* izeneko bertso-xortarengatik.

B mailan (11-14 urte), lehen saria Iratxe Muxika Karrison lesaka -



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

XXX. Bertsopaper lehiaketako saridunak, ekainaren 2an Berako Kultur Etxean.

rrak lortu du, *Aiton amonak* lanarekin. Bigarren saria, Lesakako Jontxu Urrusolo Elgorriagak eskuratu du, *Nirekin etorri zaitez* lanarengatik eta bertze lesakar batek, Oihana Arruti Terrosek epaimahaiaren aipamena jaso du, *Sendaviva* lanarengatik.

C mailan (15-18 urte) lehen saria Berako Ekhiñe Zapiain Arlegik eskuratu du, *Sorgine* lanarekin eta Lesakako

Maddalen Arozena Fresnedak aipamena jaso du *Maiteminduta* lanarekin.

D maila nagusian (18 urtetik goiti), lehen saria Lesakako Iban Garro Alzurik irabazi du, *Aita badator...* ai ama lanarekin eta bigarren saria Lesakako Eneko Fernandez Maritxalarrek, *Bizi-min-bizi* lanarekin. Azken bi urtetan irabazle suertatua zen Julen Zelaieta Iriarte beratarrak

ez du saririk izan aurren, baina bai epaimahaiaren bi aipamen berezi, *Isidoro... sekula ez da berandu* eta *I-bilerak* bertso-xortengatik.

Aipatzekoa da, lau oinak emanda bapatean ere aritu zirela bertsolari gaztetxoak eta hauek ere sariak izan zituzten. Lehen saria Suhari Iratzoki Senperrek eskuratu zuen eta bigarrena Amañur Goñi Elortzak.

EKAINAREN 16AN

Siriako errefuxiatuei buruzko hitzaldia prest

TTIPI-TTAPA

Errefuxiatuen errealitateaz kontzientziatzeko, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak *Siriako errefuxiatuak* hitzaldia antolatu du ekainaren 16an, 18:00etan Berako Beralandetan, Nafarroako Berdintasun Institutuak lagunduta.

Errefuxiatuen errealitatea, egiten dituzten ibilbideak, gizarteak erakunde eta boluntarioen bidez emandako testigantzak eskainiko dituzte.

Isabel Erkiaga (SJDD medikua, boluntarioa) eta Joxean Ortega (Igantziko eskolako irakaslea, boluntarioa) izanen dira hizlariak.

Caser
RESIDENCIAL

Zure ondoan,
gehienez behar duzunean

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

Aldi baterako egonaldiak

Urte-sasoi jakin batzuetan (**oporak, lan karga handiko garaia...**), zaintzaileek atseden hartzeko... baliatu litekeen zerbitzua da.

Zahar egoitza eta eguneko zentroa urteko 365 egunetan irekita eta bisitak ordutegirik gabe

www.caserresidencial.es

KIROLA → EKAINAREN 26TIK UZTAILAREN 1ERA

Baietz futbolean kanpusa eskainiko dute

Ane Bergara
eta Lorea
Sarobe
futbolari ohiek
jarduera
ezberdinak
antolatuko
dituzte
euskaraz

futbola ardatza izanik, jarduera ezberdinak antolatuko dituzte euskaraz, Matzada futbol zelaian 09:00etatik 13:00etara. Izen-ema-tea ekainaren 16ra arte egin daiteke. Interes-tuek edo informazio ge-hiago jakiteko baietzfutboolean@gmail.com hel-bidera edo 618037726 edo 687522875 whats-app zenbakietara me-zua bidali dezakete.

TTIPI-TTAPA

Gaur egun FC Bar-celonan ari den Ane Ber-gara eta Lorea Sarobe Gure Txokoako futbo-lariek Baietz Futbolean udako futbol kanpusa antolatu dute. Ekaina-ren 26tik uztailaren 1era,

Kherau kontzertuan

Kherau musika tal-deak kontzertua eskai-niko du ekainaren 24an, larunbatean 20:30ean Altzateko plazan, Kul-tur jaialdiaren baitan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bera eta Karrantzako abesbatzak batera

Karrantzako Pozalagua eta Berako abesbatzek emanaldia eskaini zuten maiatzeko hondar larunba-tean Kultur Etxean. Berako zuzendaria den Fatima Gonzalezek oroigarria eman zion Jose Luis Marti-nez Pozalagua abesbatzako zuzendariari.



UTZITAKO ARGAZKIA

Hamargarren urteurrena ospatu dute Maddi egoitzan

Aspaceko Maddi egotetxeak bere irekieraren 10. urteurrena ospatu zuen maiatza-ren 31n. Eguerdian bertan bizi diren pertsonak eta langileak elkarrekin bazkal-du ondoren, arratsaldean antolatuta zegoen besta prestatzen hasi ziren. Bes-tara, familiak, Aspaceko bertze zentroetako jendea, gizarte zerbitzuak, Berako Udala, Guztioak elkarteak eta bertze hainbat lagun hurbildu ziren. Pixka bat be-rendatu eta gero, musika jarri eta dantzan ibili ziren arratsalde osoan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Isidoro Fagoaga hobeki ezagutzeko ginkana egin dute

'Isidoro Fagoaga, bada tenorea!' izenburupean egiten ari diren jardueren bai-tan, maiatzaren 30ean herriko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek Isidoro Fagoaga ezagutzeko Ginkana bat egin zuten herriko karrike-tan barna. Udaberriko ekitaldiak bukatzeko, ekainaren 9an *Isidororen bidaia* ikasturte bukaerako antzerki-kontzertua eskaini zuten Isidoro Fagoaga udal musika eskolako ikasleek Herriko Etxeko Plazan.


okaNek
HARATEGIA / URDAITEGIA
Enaut & Nekane
Kanttonberri 12 • BERA
Tfno/Fax: 948 630 018


xuga
tel. 948 631 519
www.xugabera.com
www.facebook.com/xugabera


BAR Botxo OSTATUA
Zalain • BERA • 948 630 052

LESAKA

KULTURA → EKAINAREN 24AN AGIÑAN

'Oroitzapenei aditzen ikasiz' ekitaldia prest Nafarroa Oinezek

San Juan bezperako ospakizunak ere prestatu ditu Euskara Batzordeak

Aitor AROTZENA

San Juan egunera-ko ekitaldi berezia antolatu du Nafarroa Oinezek Agiñan, *Oroitzapenei aditzen ikasiz*en burupean. Larunbatean 17:30etik aitzinera, ikastolako ikasleek garbitu eta Bihotzkada kolektiboaren laguntzarekin margotu duten bunke-rra bisitatzeko aukera izanen da. 18:30ean *Bidearen ahotsak* kantaldia eskainiko dute Ismael Tomas (Asturias), Maddi Oihenart eta Amorante abeslariak. 20:00etan, *Gernika. Picassotik Zumetara* dantza emanaldia eskainiko du Tantirumairu eus-

kal folklore taldeak. Agiñan jan-edana izanen da eta autobusa plaza-tik abiatuko da 17:00etan eta 22:30ean itzuliko da. Autobuserako izena emateko ikastolako bulegoan edo koordinazioa@oinez2017.ikastola.eus helbidean.

San Juan bezperakoak

Euskara Batzordeak hainbat ekitaldi prestatu ditu San Juan bezperako ere. Ortziralean, 19:00etan buruhaundi-ak aterako dira eta 19:30ean ekitaldia izanen da plazan: trikitilari, abesbatza eta bertso eskolaren saioen ondotik, omenaldia eta adierazpenaren irakurketa egingen dituzte. Suapiztu ondotik, ezpata-dantzari taldekoneska-mutilek beraien saioa eskainiko dute eta herri-afaria egingen da. 22:00etan dantzaldia.



ARGAZKIA: RAFAEL ENETERREAGA

Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketako sariak banatu dituzte

Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketako sariak banatu ditu Beti Gaztek. 69 neska-mutikok parte hartu dute. A mailan (Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila) lehen saria Maddi Hoyos Iguzkiagirrek eskuratu du, bigarrena Alain Etxepare Aiestaranek, hirugarrena Aroia Ordoki Fagoagak eta laugarrena Eñaut Arburua Portuk. B mailan (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. kurtsoko neska-mutikoak), lehen saria Maddi Zubieta Eneterreagak eskuratu du, eta gainera bera izan da maila guztietan erantzun gehien eman dituen. Bigarren saria Beñat Criado Arruabarrenak lortu du, hirugarrena Beñat Etxepare Aiestaranek eta laugarrena Lorea Bertiz Aranburuk. C mailan (LHko 5. eta 6. mailakoak), azkenik, Peio Iturria Ponbarrek eskuratu du lehen saria, Naroa Garaiarrek bigarrena, Jon Apeztegia Larralde hirugarrena eta Iraia Sanz Feitok laugarrena.

ELIAS GARRALDA V. MARGOKETA AZKARRA LEHIAKETAN

Bergarako Ricardo Azkargorta nagusitu da

A. AROTZENA

Beti Gazte elkarteak antolatutako V. Elias Garralda margoketa azkarraren lehiaketan 500 euroko lehen saria Bergarako Ricardo Azkargortak eskuratu zuen eta 300 euroko bigarren saria Iruñeko Mikel Cazañak. Herriar baten margolan onenari emandako 150 euroko saria, Javier Fagoaga Yancik eskuratu zuen.

Umeen artean, LHko 1 eta 2. mailako ikasleen artean, lehen saria Jon Semper Irastorzarentzat izan zen eta bigarrena Unai Aranguren Mutuberriarentzat. 3. eta 4. mailakoen artean, Ainize Martinez Olazabalek eraman zuen lehen saria eta Amañur Martinez Olazabal ahizpa bixkiak bigarrena. 5. eta 6. mailan, Zuriñe Yuste Piak eskuratu zuen saria.

Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak
kottogorria
lentzeria mertzeria
Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erretegia · Asador
Burrutana, 3 Lesaka
Tel: 948 637 127

**FRONTOIKO
OSTATUA-LESAKA**
Instalazio berriak eta berrikuntzak sukaldean
Plaza Berria, 38 T. 948 627 518

antoiu
OSTATUA
Astelehenetan itxia
Asteartea-Ortzeguna
eta Igandea
06:00 - 16:30
Ortziralea eta larunbata
Egun osoa irekia
BERRIZ IREKIA
T. 948 637 087
Antoiu, 17-LESAKA

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TIF: 948 625 474



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Gasna lehiaketako saridunak eta epaimahaiko kideetako batzuk, sariak eman ondotik.

OSPAKIZUNAK → XXV. GASNA FERIA OSPATU ZEN EKAINAREN 3 ETA 4AN

Kortariko Bordako zakurra eta gasna garaile

5 zakur eta 15 gasna lehian

Irene ELIZAGOIEN

Ekainaren 3 eta 4an XXV. gasna eta artisau feria ospatu zen. Larunbat arratsaldean I. Ardi zakur lehiaketa egin zen. 5 artzainek parte hartu zuten beren zakurrekin. Intx *Garbi* zakurrekin, Axular *Tiki* zakurrekin, Landaburuko borda *Xarpa* zakurrekin, Kortariko borda, *Peio* zakurrekin eta Agerreko borda *Kea* zakurrekin. Irabazlea azkenean Kortariko bordako Julen izan zen lan guztiak primeran egin baitzituen *Peio*k. Txapelketa hau antolatu den lehen aldia izan zen eta jakin-min handia piztu zuen, eguraldi kaxkarraren jendea aunitz hurbildu zen Errota ondoko belagira. Segidan, frontoian herriko dantzariak saioa eskaini zuten.

Igandean, artisauak erakusketa eta salmenta postuak jarri zituzten goizetik. XXV. gasna lehiaketa ere egin zen eta

15 gasna aurkeztu zituzten, horietatik 8 Etxalarkoak. Epailan Ana Lazkanotegi, Eider Pikabea, Periko Berrueta, Batista Telletxea eta Patxiku Irisarri aritu ziren. Lehenbiziko saria (120 euro) Orabideko Kortariko Bordako Julen Arburuak irabazi zuen, bigarrena (90 euro) Orabideko Salaberriko bordako Pello Pegneguy eta hirugarrena (75 euro) Oizko Kokoetxeko Karlos Mindegia.

Etxalarkoen artean Mendiondoko bordako Joxe Mari Pikabeak irabazi zuen 50 euroko lehen saria eta Behekozu -

biko Juana Mari Arburuak bigarrena (30 euro).

Lehiaketara aurkeztu ziren gasnen erdiak zozketatu egin ziren eta saridun hauek oraindik ez dira agertu: 4136, 8282, 8007, 8334, 8111. (altxata@gmail.com / 697397567)

Herriko trikitilarien saioa eta bazkaria ere egin zen Bankako Menditarrek alaituta. Egun guzian, Eskola zaharretan eskulan ikastaroan egindako lanen erakusketa egon zen ikusgai eta goizean Iriondoa baserriko tresna zaharren erakusketa ere bai.

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 16 ETA 18AN

Haurraren Eguna prestatu dute

Eskulanak, kontzertua, ipuin topaketa...

San Juan Sua

Aitzineko urtetan bezalaxe, ekainaren 23ra-ko San Juan sua antolatu du Altxatak. Ilunabarrean bixtuko dute sua eta herriko txistulari eta trikitilariak giroa alaituko dute. Ondotik bakoitzak etxetik eramandako janariarekin berendu afaria egingen da frontoian.

I. ELIZAGOIEN

Landagain eskolak, Guraso Elkartek, udalak eta Altxatak antolatuta, Haurraren Eguna ospatuko da ekainaren 16an eta 18an.

Ekainaren 16an 11:00etatik 13:00etara ikasleek gidatutako eskulan erakusketa bizi-tatzeko aukera izanen da Landagain eskolan. LHko 5. eta 6. mailako ikasleek kontzertua ere eskainiko dute. Igandean, 10:15etatik 12:00etara erakusketa ikusteko aukera izanen da Landagain eskolan. 12:30ean XXIX. Ipuin topaketa egingen da frontoian, herriko trikitilariak giroturik. Jarraian bazkaria egingen da frontoian eta arratsaldean Txiribuelta elkartearen eskutik ekintza ezberdinez gozatzeko aukera izanen dute gaztetxoek (musika, kirola...). Egunari bukaera emateko berendua egingen da.

Etxalarko erraldoiak Lesakan

Nafarroa Oinezeko ekitaldien barrenean Erraldoien topaketa egin zuten maiatzaren 28an Lesakan. Etxalarko erraldoiak ere bertan izan ziren.



ARGAZKIA: R. ENETERREAGA
Herriko erraldoiak Lesakan.



XAGU

LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

EDARIAK



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

ARANTZA

GIZARTEA → HERRI-GALDEKETA EGUNA

Dena prest
iganderakoEgun osoan
ekitaldiak
izanen dira

Nerea ALTZURI

Nafargisa, Euskal Herri burujabe bateko herri-tarra izan nahi duzu? Horixe izanen da Bortzerrietan, ekainaren 18ko galdeketa eginen den galdera eta parte hartuz, aranztarrek ere erabakitzeko eskubidea gauzatu ikusteko urratsa emanen dute.

Baina igandean botoa eman ezin dutenek astez ere badute aukera: asteazkenean (09:00etatik 11:00etara Goiko Karrikan eta 19:00etatik 21:00etara kooperatiba atarian) eta ortziralean 19:00etatik 21:00etara Goiko Karrikan. Ekainaren 18an, igandea, 09:00etan hautsontzia ireki eta 20:00 arte botoa emateko aukera izanen da.

Gainerakoan, eguna aureskua dantzatzu hasiko da. 10:00etan trikitilarien kalejira izanen da eta 12:30ean Arantzako Dantza Luzea dantzatuko dute plazan. 16:30ean,

herriko gaztetxoek arteko pilota partidak izanen dira eta ondotik, gazteen herri kirol desafioa. 18:30ean haurrak kantari ariko dira eta 19:00etan luntxa eskainiko dute antolatzaileek. Ondotik, Beñat herriko musikariarekin dantzaldia izanen da. Ilunabarrean, botoak kontatuta, 21:00etan Bortzerrietan salgai diren boletoen zozketa eginen dute.

Xokorik politenaren
lehiaketa

Udaleko Ingurugiro eta Turismo batzordeak, bigarren aldiz, herriko xokorik politena aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Parte hartu nahi duenak etxe edo inguruaren argazkia Dena edo Apezenea janari-dendetan utzi beharko du uztailaren 15a baino lehen. Aurkeztutako argazkiak jendaurrean egonen dira uztailaren 29a arte. Nahi duenak bozka dezake eta herritar bakoitzak boto bat ematen ahal izanen du.

Boto gehien biltzen dituztenek sariak izanen dituzte: lehenbizikoak bi lagunentzako egun bate-



ARGAZKIA: ARANTZAKO HERRI ESKOLA

Zaborra nola bereizi

Herrietan birziklatzearekin dagoen kontzientzia zenbaterainokoa den ikusteko, Hiri Hondakinen Mankomunitetik ekimen berezi bat egin dute herriz-herri. Joan den hilabetea, herriko zabor-erakunde berde pare bat hartu eta bertan zeuden zabor poltsa batzuk aterata, eskolako ikasle, irakasle eta herritar batzuen aitzinean ireki eta zabor bereizketari ongi egina zegoen edo ez egiaztatu zuten teknikariak.

UZTAILAREN 3RA ARTE AURKEZ DAITEZKE

Bestetako programaren azalerako lehiaketa
antolatu du Kultura Batzordeak haurrentzako

Aurten lehenbiziko aldiz, bestetako programaren azala edo portada herriko haurren batek egina izanen da, Udaleko Kultura Batzordeak haurrentzako azal lehiaketa antolatu baitu.

Arantzako eskolan ari diren ikasleek parte hartzen ahal izanen dute, 6 urtetik 14 urtera bitartekoak eta bakoitzak nahi adina lan aurkeztu ahal izanen ditu. Kolorezkoak izan behar dute eta paperean aurkeztuko dira, kartulinean edo paper lodian. Horrez gain, jatorrizkoak eta argitaratu gabekoak izan beharko dute.

Nahitaez testu hau agertu beharko da: *Arantzako bestak 2017. Abuztuaren 14tik 17ra*. Gaia, estiloa eta teknika libreak izanen dira, betiere, Arantza-

ko besta giroa erakusten badute.

Lanak sobre batean sartuak Herriko Etxean aurkeztu beharko dira, uztailaren 3ko 13:00 baino lehen. Sobre honek eta lanak izenburu bat izanen dute, eta sobrea adierazi beharko da izen hori. Sobre horren barrenean, bertze sobre tiki bat sartu beharko da, itxia, eta hori lana egin duen haurren izen-abizenak, helbidea eta telefonoa idatzi beharko dira.

Kultura Batzordeko kideek osatutako epaimahaiak aukeratu du lan saritua eta programako azalean agertzeaz gain, saria izanen du. Aurkeztutako lanak Udalaren esku geldituko dira eta horiekin erakusketa eginen da bestetan.

ko logela Arantza Hotelean eta bigarrenak bi la-

gunentzako otordua herriko jatetxeren batean.

Uztailaren 31n jakinen da zein diren irabazleak.

JAIONE-COXOTEGIA

948 630 786
Altzate, 21 • BERA

BILTEGIA 948 630 102
ANDER 687 736 929
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11

Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

aterpe
albergea jatetxea osatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

Burlada
JATETXEA

EKAINAK 16 TXAMUKO Sekin AFARIA
Izen-ematea ekainaren 15a baino lehen
Goizeko 01:00-03:00 **KOKTAIL BEREZIAK**

T. 948 634 027 | www.restauranteburlada.com | ARANTZA

GIZARTEA → EKAINAREN 10ETIK IRAILAREN 10ERA

Itziar Rojok hartu du igerilekuko ostatuaren ardura

Joan den urteko tarifa berak izanen dira

TTIPI-TTAPA

Hasi da igerilekuko denboraldia. Ekainaren 10an zabaldu zituzten, eta irailaren 10era bitarte irekiak egonen dira.

Txartelak, beti bezala, Herriko Etxean eskatu behar dira eta tarifei dagokienez, uda osorako txartela 48 eurotan dute 18 urtetik goitiko herri-

tarrek eta aranztarrek eta 75 eurotan kanpotarrek; 11 eta 18 urte bitartekoek 28 edo 43 euro ordaindu beharko dituzte eta 4 eta 10 urte bitartekoek 18 edo 29 euro.

Baina denboraldi oso-rako izan beharrean, hila-bete bat edo birako txartela ere eskatzen ahal da eta eskaeraren arabera ordaindu beharko da. Egun bakarreko sarreraren kasuan, egun guzti-koa 6 eurokoa izanen da 18 urtetik goitikoentzat, 4 eurokoa 11-18 urte bitartekoentzat eta 3 euro-



ARGAZKIA: IMANOL RETEGI

Herri-galdeketa igandean

Azken hilabete eta asteetan, prestaketetan burubelarri ibili ondotik, ailegatu da herri-galdeketa eguna. Igande honetan, ekainak 18, izanen da, eta 09:00etatik 20:00etara Zentroan botoa emateko aukera izanen dute herrian erroldatutako 16 urtetik goitikoek. Ekainaren 3an, bertzalde, galdeketa girotzeko hainbat ekitaldi egin zituzten, tartean toka-txapelketa. Argazkian erdian geri den Jose Mari Mitxelena gelditu zen lehenbiziko, Luis Andueza bigarren eta Lizar Sein hirugarren. Eguerdian, 30 bat lagun bildu ziren Biltokin bazkaltzera eta arratsaldean hainbat herritar joan ziren Berara, mosaiko erraldoian parte hartzera.

koa 4-10 urte artekoentzat. 17:00etatik aitzine-ra joanez gero, prezioa erdia izanen da.

Bertzalde, Itziar Rojo Txoperena herritarra arduratuko da ostatuaz.

Ba al zenekien

Nafarroa mailan antolatu den Inkesten eta esperi-mentuen habia lehiaketan parte hartu dutela Ma-ren Etxenike eta Aiala Mitxeo herritarrek? Toki Ona Institutuan 2. DBHko ikasleak dira eta guttiga-tik ez zuten lortu estatu mailako fasera pasatzea.



ALTZARIAK ETA
DEKORAZIOA

AMETS

PROMOZIO BIKAINAK KOLT XOIETAN

Markarik onenak
Neurri guztiak
Deskontu handiak

Espezialistak gara zure atsedenean

Sastrin Kalea 2,3,4 Bera (Nafarroa) | 948 630 537 | mueblesamets.com | amets@mueblesamets.com

SUNBILLA

KIROLA → EKAINAREN 24AN

I. Ederbidea Zikloturista herrian

Bi ibilbide izanen dira aukeran

Maidor PETRIRENA

Sunbillak hartuko du ekainaren 24an Ederbidea Zikloturistaren lehen edizioa, Bidasoko Bide Berdearen martxa mugikortasuna eta turismo iraunkorra sustatzeko.

Ederbidea Zikloturistak bi ibilbide zirkular

izanen ditu, zailtasun maila desberdinekoak eta biak Sunbillan hasiko direnak.

Lehenenbizikoak 24 kilometro ditu eta Doneztebe, Legasa, Oieregi eta Oronoz-Mugaraino iritsiko da, handik Sunbillara itzultzeko. Bigarrena 40 kilometrokoa da eta Sunbillatik joan-etorria izanen da, Berrizaun eta Beratik pasaz. Informazio gehiago 39. orrian.



ARGAZKIA: SILBIA EZKURRA

Herritarrek Kenpo-kai txapelketan

Maiatzaren 27an Nafarroako Kenpo-Kai txapelketa jokatu zen Elizondoko kiroldegian eta bertan sunbilarrek parte hartu zuten. Argazkian ezkerretik eskuinera ageri dira: Itziar Erasun Erauntzetamurgil (irakaslea), Ander eta Oihan Apeztegia Martinez, Xuban Jauregi Gartxitorena, Ibai Petrirena Gorosterrazu, Alberto Latasa Iglesias eta Eneritz Iturralde Ezkurra.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Malerrekako Eguna antolatzeko lekukoa hartu du Sunbillak

Sunbillako Dantzariak, Mendaur trikitixa-pandero eskolarekin ere herriko trikitilari eta panderojoleak, eta museko finalean bi bikote izan genituen herria ordezkatzeko Malerrekako Egunean. Eta, nola ez, herriko alkateak, Amets Indak, datorren urteko lekukoa hartu zuen Urrozko alkatearen eskutik. Izan ere, heldu den urtean ospakizun eder hau Sunbillan egingen da.



ARGAZKIA: M. PETRIRENA

Berako Dantzari Ttiki Egunean

Ekainaren 3an Berako XXIII. Dantzari Ttiki Egunean Sunbillako dantzariak parte hartu zuten Baztango Dantzariekin batera. Eguraldiak lagundu ez zuenez, guztia Eztegarra pilotalekuan egin behar izan zen.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Lehen jaunartzea egin dute zortzi neska-mutikok

Hiru neskak eta bost mutikok Jaunartzea egin zuten ekainaren 4an. Denborak sobera ez zuen lagundu baina egun ederra pasatu zuten. Ezkerretik eskuinera Aitana Retegi Sorozabal, Beñat Espelosin Salaberria, Iraia Ruiz, Maialen Gonzalez Goikoetxea, Koteto Ezkurra Arretxea, Julen Lazkano Alzuri, Iker Lanza Garcia, Eki Ezkurra Sanz. Goiko Lerroan ezkerretik eskuinera: Iker Urroz Iribarren, Xuban Zelaieta Indakoetxea eta Juan Zabala Osés apezpe.

A, B eta C
motako
GASOLIOA
ETXERA
24
ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUAN

Osasun zentroa eraikitzeko 3 milioi euroko inbertsioa onartu dute

Lanak 2019ko udaberrirako akitzea aurrei-kusten dute

Marga ERDOZAIN

Doneztebeko Ossun Zentro berria eraikitzeko lanak kontratatatzeko baimena eman dio Nafarroako Gobernuak Osasunbideako zuzendari-kudeatzaileari. Lanen aurrekontua 3 milioi eurokoa izanen da. Malerrekako oinarritzko osasun zonaldean 5.315 osasun txartel daude, horietatik 899 pediatria adinean daudenak.

Lanen aurrekontuan sartua dago bai osasun

zentro berria eraikitzea (2.873.762 euro), baita obren zuzendaritza eta segurtasun- eta osasun-arloen koordinazioa ere (54.241 euro). Hiru urteko aurrekontuetan sartuko dira lanak, 497.550 euro aurreinbertituko dira, 2.343.409 euro 2018an eta 177.043 euro 2019an.

Doneztebeko Osasun Zentro berria solairu bakarreko eraikin berri batean egingen dute. 1.400 metro koadroko azalera hartuko du, horietatik 1.250 metro era-bilgarriak izanen dira. Lanak aurrein, azken hiru hilabeteetan hastea espero dute eta 2019ko udaberrirako akitzea.



ÚTZITAKO ARGAZKIAK

Mendaur institutuko ikasleak Euroscolan sarituak

Mendaur Institutuko 4. mailako 6 ikaslek 2017ko Euroscola saria jaso dute, ekainaren 6an egindako ekitaldian. Saritutako ikasleak hauek dira: Itziar Agirre (Donamaria), Enara Beorlegi (Donamaria), Aiala Mariezkurrena (Uroz), Aimar Sagarria (Gaztelu), Rakel Moran (Narbarte) eta Maider Varela (Ituren). Europa mailan egiten den lehiaketa da eta Nafarroako irabazleak izan dira gure ikasleak. Europar Batasuneko oinarritzko eskubideen gutunetik abiatuta, derrigorrezko hezkuntza eskubide unibertsalaren aldarrikapen ozena landu dute bideo lan batean. Bideoaren bukaerako esaldian ederki laburbildu dute beraien aldarria: «ikastea jakitea delako eta jakitea boterea». Sari galanta eskuratu dute, heldu den ikasturtean Estrasburgora bidaiatuko dute eta bertze herrialdeetako irabazleekin batera bertako parlamentua ezagutzeko aukera izanen dute. Zorionak, D ereduko eskola publikoko enbaxadore bikainak zaituztegu. Aupa Mendaur Institutua!

ERABAKI ASKEKO FUNTSAK

Osasun zentroko proiektuaz gain, Nafarroako Gobernuak Doneztebe herriari erabaki askeko funtsetatik 90.000 euro-

ko laguntza eman dio eta inbertsio hauek egingen ditu Udalak: 70.000 euro San Miguel ikastetxeko leiho berrietan, 10.000 euro herriko gune ilunak desagerrarazi eta argiztapen sisteman

hobekuntzak egiteko eta, gainerako 10.000 euroak, Intzakardi karrikako obretan (espaloiak handitu eta oinezkoen mugikortasuna hobetu). Inbertsio hauek 2017an egin behar dira.

EKITALDIAK EKAINAREN 17, 18, 19 AN

Bestak baino lehen agenda gainezka

Marga ERDOZAIN

Ekainaren 19tik aitzinera hasiko dira banatzen Doneztebeko bestak iragartzen dituen aldizkaria, baina, sanpedroak ailegatu aurretik ere, izanen da non gozatua. Ekainaren 17an **Doneztebe Futbol Taldearen eguna** ospatuko dute. Goiz goizetik futbol partidak izanen dira: benjamin, txikiak eta gurasoen artekoak. Arratsaldean triangularra herriko hiru senior talderen artean eta 17:30ean Santa Luzia plazan umeentzako jokoak eta berendua. Afaldu baino lehen trikipotea eta 22:00etan herri-afaria. Eguna ongi akitzeko Gabezin taldearen emanaldia. Ekainaren 18an **Erreka Guraso Elkarteak ikasturte bukaerako besta** antolatu du: bazkaria, jokoak, apar-besta... eta Firin Farandula antzerki taldeak *Lisistrata* emanaldia eskainiko du zinema aretoan 18:30ean. Ekainaren 19an **Agorreta Musika Eskolak kontzertua** eskainiko du 18:00etan, Eliza atarian. Ekainaren 23an **San Juan gaua** ospatuko da, aurreko urtetan bezala afari herrikoia eta autogestionatua antolatu dute 20:30ean ikastetxeko patioan eta suak ere piztuko dituzte. Ekainaren 24an **Josetxo Ezkurra Memorialaren finala** jokatu da Ezkurra pilotalekuan, 09:00etan hasita.

FLASH

Osasuna Campusa ekainean

Ekainaren 21etik 26ra, 2007 eta 2013 urteen artean jaiotako umeek herrian egingen den Osasuna Campusean parte hartzeko aukera izanen dute.

Herri krosa ekainaren 25ean

39. edizioa beteko du Erreka Kirol elkarteak antolatutako krosak. 10:30ean maila berezia, aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak eta infantilak aterako dira eta 11:00etan kadeteak, juvenilak, seniorrak eta beterranoak.

Igeriketa ikastaroak uztailean

Bi txanda antolatuko dituzte: lehendabizikoa uztailearen 3tik 14ra eta bigarrena 17tik 28ra. Interes dutenek izena igerilekuan bertan ematen ahal dute. Klaseak goizez izanen dira eta ordutegiak osatutako taldeen arabera lotuko dituzte.

ITUREN

GIZARTEA → EKAINAREN 22RA ARTE AURKEZ DAITEZKE LANAK

Bestetako kartela aukeratzeko lehiaketa

Irabazleak
ehun euroko
saria izanen du

Arkaitz MINDEGIA

Bestetan erabiliko den kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du udalak aurtien ere. 16 urtetik goitiko edozeinek hartu dezake parte eta kartela egiteko gaia eta teknika irekiak izanen dira eta lan orijinala behar du izan. Beti ere, Ituren edota bere izaera edo kulturaren ezaugarriak agertzea baloratuko da. Formatua eta teknikari dagokionez, lanak A3 tainan inprimatuko dira (29'7 x 42zm.) eta formatu digitalean aurkeztu beharko dira, 240 ppp guttieneko erresoluzioaz, edozein teknika erabiliz.

Leloari dagokionez, *Iturengo Bestak 2017* *Uztailak 14-17* agertu

beharko du eta beti ere gero programa zehatza itxekitzeko tokia kontuan izan beharko du egileak. Lanak aurkezteko epea ekainaren 22ko eguerdian akituko da honako helbidean: udala@ituren.es edo udalategian bertan egin daiteke, ohiko sistema erabiliz. Irabazleak 100 euro irabaziko ditu eta Udala izanen da lanaren jabea. Aurkeztutako bertze lan guztien jabetasuna udalaren esku geldituko da eta egileak ez du jabetasun hori erreklamatzeko eskubiderik izanen, hilabete epean eskatzen ez badu behintzat.

Lan guztiak jaso ondoren erakusketa publiko egingen da eta herriarrek erabakiko dute zein izanen den kartel irabazlea. Edozein zalantzaren aurrean, udalak izanen luke azken erabakia hartzeko eskubidea.

Kurtso bukaerako bestak

Kurtso bukaera hurbiltzen ari zaigu eta urtero bezala, azken egunerako, ekainaren 20an, asteartea, bazkaria eta besta antolatu dute eskolako guraso elkarteak eta irakasleek. Bazkaria Herriko Etxeak prestatuko du haur eta helduentzako. Lehenik haurrak bazkalduko dute. Ondoren, helduek bazkaltzen duten bitartean, bi zaintzaile egonen dira ganbaran haurrekin, joku ezberdinetan jolasten. Arratsaldean, puzgarriak, aparbesta eta berendua izanen dute.

Aurtien, bazkarirako txartelak egin dituzte bai haurrenak eta bai helduenak. Herriko ostatuan erosi ahal izango dira txartelak, ekainaren 13 baino lehen. Haurren bazkaria 2 euro kostakoa da (makarroiak, xo-



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskolako jangelan aldaketak

Azken hilabeteetan Pulunpa eskolako sukalde eta zaindari postuen sailkapena egin da eta aurkeztutakoetatik sukaldarirako lehenengo postua Alix Gerekak lortu du eta zaintzaileen lehenengo 2 postuak Ixiar Bazterrika eta Amaia Indak lortu dituzte. Beraz irailetik aitzinera horiek izanen dira eskolako jantokiko langile berriak. Horren harira, maiatzaren 30ean Eli sukaldariari Pulunpa eskolako sukaldean 19 urte eman ondoren, Joxe Mari, Joxe eta Inma-ekin batera, adio esateko garaia ailegatu zitzairen. Eta ikasle eta irakasleek oparitxo bana eman zieten, Elgorriagako bainuetxerako txartela eta ikasleek paperez egindako loreak.



Ba al zenekien

SH Metalgraf taldean ari den Javier Seinek irabazi duela Nafarroako mendi bizikleta txapelketa, 23 urtez beheitiko kategorian. Maiatzaren 28an Zangozan jantzi zuen maillot gorria.

lomoa patatekin eta izozkia) eta helduendako bazkaria haurrenaren ondotik izanen da,

15 eurotan (Urdaiazpiko eta pateak, entsalada, oilasko errea eta txokolate tarta).



UTZITAKO ARGAZKIA

Lehen jaunartzeak

Maiatzaren 28an jaunartzeak ospatu ziren eta egun paregabea pasatu zuten Maialen Aiora, Oihan Goizuetak eta Seila Etxebeste gaztetxoek eta baita beraien familiak ere.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mendaur Musika eskolaren kurtso bukaerako emanaldia

Mendaur Musika eskolak bertze behin kurtso amaierako kontzertua eskaini zuen guraso eta lagunen aurrean. Maiatzaren 31n izan zen eta urte guzian buru belarri ikasten aritu ondotik, ikasleek saio bikaina eskaini zuten. Orain udan herriz-herriz ibiliko dira musikari gaztetxoak.

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 17AN

Oritzako besta ospatuko dute larunbatean

Bazkalondoa bertsolariek eta trikitilariek alaituko dute

Fermin ETXEKOLONEA

Ekainaren 17an ospatuko dute Oritza iturri inguruko besta. Bazkariaren aitzakian, egun oso festa izaten da. Lehenik bazkaria eta aterpea prestatzen, gero bazkaltzen eta bazkal ondoko giroan, bertsolari eta trikitilariekin.

Lau buruhaundi eta bi erraldoi tailerlean

Udalak antolatutako buruhandi tailerra amaierara iristear dagoela, lau buruhandi eta bi erraldoi egin dira. Tai-



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Ines eta Amaiarekin egindako tailerlean buruhaundi eta erraldoi dotoreak egin dituzte.

lerrean lan egin duten herritarrek Eva, Aratz, Yolanda, Joxe Mari, Gorka, Itziar, Jone eta Izaskun izan dira. Nahiz eta lan handikoak izan egin dituzten buruhandi eta erraldoiak, oso ongi pasatu eta asko

ikasi dute tailer honetan. Hemendik aurrera, laster egiteko prestatu beharko dira herritarrek. Irakasle gisa Ines Gereka eta Amaia Zinkunegi izan dituzte. Zorionak eman behar zaizkie parte hartu duten guztiei.



UTZITAKO ARGAZKIA

Francisco Perez apezpikua bisitan

Maiatzeko azken igandean izan zen Francisco Perez apezpikua bisitan. Joaldunek harrera berezia egin zioten, herriko zubira aterata. Elizarako bidea joaldunekin egin zuen eta Aurrekua ere dantzatu zioten. Bezperan, Malerrekan katekesi ematen dutenekin bazkaldu zuen eta adineko jendea bisitatze-ko baliatu zuen eguna.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Hiru mutikok egin dute lehen jaunartzea

Ekainaren 4an herriko hiru haurrek lehenengo jaunartzea hartu dute: Ekaitz Loiarre, Lander Indakotxea eta Mattin Agestak. Nahiz eta euria egin, egun ederra pasatu zuten hirurek beraien familiekin.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Bainuko eskuoihaletan eskaintza zabala

edredoi fundak · albormozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

OIZ

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 3AN

Fermin Mitxeko omendu dute elkartearen egunean

95 urterekin bazkide zaharrena da

Jaione MINDEGIA

Oizko elkartearen eguna ospatu zuten ekainaren lehen larunbatean. Egun osoko ospakizunaren baitan, Fermin Mitxeko, elkarteko bazkide zaharrena ere omendu zuten.

Eskulanekin eman zioten hasiera ekainaren 3an Elkartearen egunari eta euria ari zuenez eliza atarian izan zen. Umeek eskulanak egiten zituzten bitartean, helduek mus txapelketak jokatu zuten herriko

elkartean. Eguerdian, Julen Kañamare eta Mieltxo Mindegia aritu ziren aizkoran eta Kañamare garaile izan zen. Herritarrek, karpa berezi bat montatu zuten plazan aterpe moduan eta horri esker, aizkora apustua jokatzeko eta bazkaria egiteko ez zen arazorik izan.

Aizkora apustuaren ondotik bazkariarekin hasi ziren eta nahiz eta eguraldiak ez zuen lagundu, 76 lagun elkartu ziren eta giro ezin hobean joan zen otordua. Bazkalondoan Agerralde hasi zen giroa gehiago alaitzen eta aski gustura ibili ziren.



ARGAZKIA: TTPI-TTAPA

Herritarrek Fermin Mitxeorekin eta ondoan, Aureskua.

FERMIN MITXEORI OMENALDIA

Arratsaldean, Fermin Mitxeko elkarteko bazkiderik zaharrenari omendaldi tiki bat egin zioten. Ferminnek 95 urte ditu eta abenduan 96 beteko ditu, eta «zein ongi dagoen gure Fermin!», zioten gainerako bazkideek. Momentu hunkigarria izan zen eta emozioz beteriko uneak ere izan ziren: Imanol, elkarteko bazkideetako batek, dantzatu zion Aureskua eta

bazkidea eta juntako kidea ez ezik, Ferminen ilobaren alaba den Jaionek, txapela jantzi zion.

Gero denak merendatzera joan ziren Ferminekin, bere gustoko merendua prestatu baitzuten (gazta zaharra, gindillak, tipula, antxoak eta ardo pixko bat). Gero, umeek talo tailerra egin zuten eta nola gozatu, kontent ibili baitziren saltsan beraien afarikotaloa prestatzen. Helduentzat ere pin-txoak izan ziren eta



gaueko ordu txikiak arte festa izan zen!

«Zorionak Fermin, eta eskerrik asko parte hartu zenuten guztieri, eguraldiak lagundu ez arren egun bikain bat pasa genuen!», diote elkartetik.

Altzari rustikoak
Altzari modernoak
Gazte tokia
Outlet txokoa
Koltxoak
Sukaldeak

MUEBLES
TELLETXEA
ALTZARIAK

www.mueblestelletxea.com

Rosa Seminario, 12 | DONEZTEBE
Tel. 948 450 258-948 451 811



Orain sukaldeak ere!

GARANTIA • WARRANTY
12
URTE

VEGASAKITCHEN

KIROLA → EKAINAREN 4AN JOKATU ZEN TXAPELKETA AZPEITIAN

Irune Izkue herritarra Urrezko Aizkolaria

Nerea Sorondo
beratarriari
irabazi zion
finalean

Martin LARRALDE

Banakako Urrezko Aizkolaria-Eusko Label Saria txapelketa jokatu da aurten eta lehen aldiz, emakumeek ere izan dute parte hartze-ko aukera. Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan jokatu ziren kategoria ezberdinetako finalak. Emakumeen artean, Elgorriagan bizi den Iru-

ne Izkue izan da lehen-biziko txapelduna. Berako Nerea Sorondo izan zuen arerio eta hiru probatan gailendu zen Izkue. 54 ontzako enbor bat eta lau kanardiko mozteko 10 minutu eta 31 segundo behar izan zituen, ederra marka!

Txapela ekarri du berekin herrira eta horrekin batera telebista ka-

merak ere. ETBri adierazizionez, Iruñean jaio eta hezia izan zen, eta duela urte batzuk etorri zen Malerrekara, Labaienera lehenik eta Elgorriagara orain, eta «ez nintzake inondik inora Iruñera bueltatuko, hau bertze bizimodu bat da».

Zorionak neska gazte honi etorkizun ederra dauka eta!



Ba al zenekien

Ekainaren 10ean aurtengo lehen auzolana egi-tea egokitu dela. Bertan, lan eta obra aunitz egin dira herriko leku ezberdinetan.



ARGAZKIA: MARTIN LARRALDE

Irune Izkue txapelduna, herriko karriketan txapelarekin.

ETXEBIZITZA BERRIAK **DONEZTEBE** 2 eta 3 gelako etxebizitzak terrazarekin



KOKAPENA
MOURGUES IBILBIDEA

Lokal
komertzialak
ere baditugu!

- ✓ **RURAL KUTXA**ren babes eta laguntzarekin
- ✓ Salmenta zuzena: **PROMOTOREAK GARA**
- ✓ **BABES OFIZIALEKO** etxebizitzaren baldintzekin
%15eko desgrabazioa errenta aitortuarekin



Zure neurria
egindako
finantziazioa

395€ -tik aurrera
hilean

135.000€ -tik aurrera
Informa zaitez

EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardi kalea z/g | **DONEZTEBE**

629 951 170



ERNE! Ez galdu zure aukera

EZKURRA

GIZARTEA → EKAINAREN 3AN

Ollingo meategian aritutakoak eta senideak bisitan

57 lagun etorri ziren, Leitzan bazkaldu eta auzoaren historia ezagutu zuten

Fernando ETXEBERRIA

Ollingo meategietara etorri eta bertan lan egindakoak eta beraien senideak Leitzan bildu ziren ekainaren 3an, 57 lagun guztira. Ollin, Ezkurran dagoen auzo bat da, Goizuetatik 7 kilometrora. Ekonomia aldetik historia handia duen auzoa da, bere olen-gatik eta zilar-berun meategiengatik. 'Ezku-

rra, Herri berezia' liburuan auzo honi eskainitako kapitulua bada. Izan ere, 1328. urterako hasiz lanean ingualaterrara, Europa iparraldera eta Ameriketara burnia bidaltzen zuten burdinola famatua. Espainiako armada ere hornitzen zuten. 1887tik 1973ra mineral ezberdinak atera zituzten: fluor, espatu, pirita eta batez ere zilar-beruna (batzuetan zilarra ere izaten zuten beruna). Bere garaian, meategi inguruan 20 familia eta 200 bat pertsona bildu ziren: batzuk zuzenean meategian lana egiten zutenak, bertze batzuk



ARGAZKIAK: UTZITAKOA ETA FERNANDO ETXEBERRIA

Ollin inguruan ikusi ondotik, Leitzan bazkaldu zuten 57 lagunek.

langileen mantenu aritzen zirenak edo argindar zentraletan. Plano batean ageri denez, eskola, jangela, sukalde eta kartzelerako lekua ere bazuten.

Baina meategi lanabukatu zenean, kanpora joan behar izan zuten familia horiek. 50 ur-

te beranduago, familia horietako 57 lagun bueltatu dira. Topaketa hunkigarria izan zen, batzuk Galiziatik eta Frantziatik etorri baitziren. Horietako bik, 84 eta 85 urteko bi lagunek, Ollinen lan egin zuten eta beste gehienak, langileen ondorengoak

ziren. Gaur egun utzia dagoen auzo honen historia bertatik bertara ezagutzeko aukeraz zuten eta gero, Leitzan bazkaldu zuten. Bazkalondan, argazkia atera eta berriz ere biltzekotan gelditu ziren, horri bai, berriz ere hainbeste urte itxaron gabe.



**LEIHOAK / KONTRALEIHOAK
SARRERAKO ATEAK / ITXITURAK
PERTSIANAK / MOSKITERAK**

Ordoki ind. ARIZKUN / T. 948 453 259 / F. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com / www.betikopvc.com



Mundua ikusi, dirua aurreztu eta natura zaintzea zure esku ere badago




BETIKOn LEIHOAK NEURTU, FABRIKATU eta INSTALATZEN DITUGU



PVC-zko sistema bakarra* Passive house ziurtagiriarekin BETIKOn daukagu.

6 kamara 82 mm-ko profila Merkatuko isolamendurik hoberena.

A+++

* 70 mm

GIZARTEA → NAFARROAKO HIRI-HONDAKINEN TRATAMENDURAKO PARTZUERGOAREN TASAK

Konposta egiten duten erabiltzaileek %20ko deskontua izanen dute

Tasak kalkulatzeko bi faktore kontuan hartzen dituzte

TTIPI-TTAPA

Konposta egiten duten erabiltzaileek onurak izanen dituzte tasak ordaintzerako garaian. Tasak kalkulatzekoan bi faktore kontuan hartzen dituzte Hiri Hondakin Tratatamendurako Partzuergoan: **Hondakin Sorkuntza** bate-tik eta **Organikoaren Ezarpena** bertzetik. Le-



henengoaren kasuan, errefusaren sailean ahalik eta hondakin kopururik ttikiena sortzea da helburua eta Malerre-

kako kasuan hori gauzatzenez, %5eko deskontua aplikatuko zaie Malerrekako erabiltzaile guztiei. Bigarren fak-

torea **Organikoaren Ezarpena** da eta, kasu honetan, deskontua ezberdina izanen da erabiltzaileak eragiten di-

tuen bilketa eta tratamendu gastuen arabera. Hau da, etxeko eta auzoko konpostaje sistemak erabiltzen dituen erabiltzaileek %20ko murrizketa gehigarria izanen dute, eta kopuru horri hasierako %5a gehitzen badiogu, ostara %25eko deskontua aplikatuko zaio.

Atez-ateko sistema erabiltzen duten sortzaile handiek (gehienbat jatetxe, ostatu eta antzekoak), %15eko deskontu gehigarria izanen dute (denetara %20ko murrizketa).

Zure neurriko tailerra!



AUTO-MARKA OFIZIALAREN BERMEEA GALDU GABE

ORDEZKO PIEZA HOMOLOGATUAK

www.buscuntaller.com



Tailer-sarea

ELITE



Premium

1.000 tailer baino gehiago zure zerbitzura

SALDIAS

BESTAK → EKAINAREN 23TIK 25ERA

Hiru eguneko besta ederrak prestatu dituzte San Juanetan

Igandeko patata tortilla lehiaketako irabazleak 100 euroko saria eskuratuko du

TTIPI-TTAPA

Nahiz eta aurten hiru egun besterik ez diren izango, beti bezala, ekitaldiz gainezka dator San Juan festetako egitaraua.

OSTIRALA, EKAINAK 23

- 10:00etan Argi soinuak. Goiz guztian umeentzako joko tradizio-nalak.
- 15:30etik 20:30era Umeen parkea (jumping, barreda eta karts...).
- 20:00etan Txupinazoa eta ohiturazko zopak herriko ostatuan.
- 22:00etan San Juan suak.
- Arratsalde eta gauaz dantzaldia Endara Dee Jays-ekin.

LARUNBATA, EKAINAK 24 SAN JUAN EGUNA

- 10:00etatik aurrera txistulariek alaituko dute herria.
- 11:00etan Meza Nagusia, San Juan herriko patroia ohorez. Meza ondoren, udalak luntxa eskainiko du herriko ostatuan.
- 14:00etan Herri Bazkaria Muñoa eta Liza-

ralde bertsolariekin.

- Arratsaldean, herriko gazteen arteko esku pilota partiduak eta Frontenis txapelketaren finala, bertsolariek alaiturik.
- Arratsalde eta gauaz dantzaldia Endara Dee Jays-ekin

IGANDEA, EKAINAK 25

- 10:00etan Argi soinuak.
- 10:30ean herriko Mus txapelketa.
- 13:00etan Aizkora apustua: Iker Vicente - Mieltxo Mindegia eta Ruben Saralegi - Julen Kañameres aurrez aurre.
- 18:00etan Herriko gaz-



ARTXIBOKO ARGAZIAK

Herriko gazteek herri kirol proba eskainiko dute aurten ere, baina mahainguruan ere ederki moldatuko dira.

tetxoen arteko Herri Kirolak.

- 19:00etan La Excelente mariatxi taldearen saioa.
- 20:30ean Patata tortilla lehiaketa. Sariak: lehenbizikoak 100 euro, bigarrenak 50 euro eta hirugarrenak 30 euro. Ondoren afaria, txapelketako tortillak eta udalak eskaintzen dituen txistor, gazta eta edariak. Dena Oi-



hana-Oihana trikitilari-ekin alaitua. Bestak

akitzeako su artifizialak botako dira.

NAFAR MENDI
HIPERSIMPLY
merkatalgunea
Arraloz, Baztan | 948.452.656 | 9h00-21h00

**PARTE HARTU HIPER
SIMPLYKO ZOZKETAN
CLUB SIMPLY TXARTELAREKIN
ETA IRABAZI...**

**ZOZKETA EGUNA
2017.07.01**

1 HYUNDAI I10 AUTOA



2

**100 EUROKO 5
EROSKETA TXARTEL
ARROPA DENDAN
ERABILTZEKO**



3

**BERTAKO PRODUKTUEKIN
OSATUTAKO 3 SASKI**





Zazpigarutze, 2 behea
31740 DONEZTEBE (Nafarroa)
Tfnoa: 948. 45 17 46

Jakinarazten da: 2017ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren adierazten den bezalaxe:

2017ko TASAK

ERABILTZAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA		TRATAMENDU TASA
	3 bilketa	2 bilketa	
	€/urteko		
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez.	72,16	65,16	46,32€
Zaborronzia 500 metrotik gora dauden etxebizitzak	36,08	32,58	
Merkataritza eta zerbitzuak			2016ko abenduaren 2ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 233. zk.
1.Profesionalen zerbitzu eta bulegoak	134,76	107,80	
2. Establezimendu komertzial txikiak	139,46	111,54	
3. Supermeraktu txikiak edo autozerbitzuak	201,70	161,36	
4.Establezimendu komertzial handiak	269,50	215,60	
Ostalaritza			
1. Ostatuak	134,76	107,80	
2. Dantzalekuak	221,86	177,48	
3. Jatetxea. 10 mahai, edo gutxiago	147,80	118,22	
4. Jatetxea. 10 mahai baino gehiago	221,86	177,48	
Aterpetxeak			
1. Landetxea: 6 toki edo gutxiagokoa	101,96	81,56	
2. Landetxea: 7 toki eta 12 toki artean.	134,76	107,80	
3. Landetxea: 12 toki baino gehiago.	166,78	133,42	

KONTZEPTUA	BILKETA TASA		TRATAMENDU TASA
	3 bilketa	2 bilketa	
	€/urteko		
1. Hostala. 9 toki edo gutxiago	101,96	81,56	2016ko abenduaren 2ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 233. zk.
2. Hostala. 10 toki eta 20 toki artean	134,76	107,80	
3. Hostala. 20 toki baino gehiago.	166,78	133,42	
Kanpinak eta Natur guneak.	221,86	177,48	
Bertzelako egoitzak (komentuak eta zahar etxeak)	69,84	62,84	
Kultu-rako eraikuntzak	69,84	62,84	
Ikastetxeak	201,70	161,34	
Industria eta Lantegiak. 9 langile bitarte.	134,76		
Industria eta Lantegiak. 10-30 langile bitarte.	269,50		
Industria eta Lantegiak. 10-30 langile bitarte.	539,02		
Erabilera eskusiborako edukiontziak	52,00€/ edukiontzi bakoitzeko.		

ORDAINTZEKO ERA

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu bikoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

ORDAINZEKO EPEA

- 2017ko uztailaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2017ko abuztuaren 31ra luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da. Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekaruarekin kobratuko da.

Malerreka, 2017ko maiatzaren 31
Presidenteak,
Jon Telletxea Juanenea

URROZ

OSPAKIZUNAK → MALERREKAKO EGUNEAN

85 urte baino gehiagoko herritarrak omendu dituzte

Sunbillako
alkateari eman
zion lekukoa
Iñaki Juanenak

Jaione ARIZTEGI

Herrian ospatu da Malerrekako Egunaren seigarren edizioa, maiatzeko hondar larunbatean. Ekitaldi ugari egin dituzte, eguraldi bero eta eguzkitsua baliatuz. 85 urtetik goitiko herritarrak omendu zituzten.

Zehazki zazpi herritarrek omenaldia jaso zuten Udalaren izenean: Joxepa Etxegia, Bitoriano Arzuaga, Trinidad Grajirena, Nemesia Iribarren, Joxe Arozena, Pedro Etxegia eta Bixi Arozenak.

Goizean artisauak eta talogileak plazan ziren eta Urroz, Doneztebe, Ituren eta Sunbillako dantzariak ere aritu ziren lanean. Mendi Abesbatzak emanaldia eskaini zuen. Eguerdian, Malerrekako musikariak herrian barna ibili ziren, baita buruhandiak eta joaldunak ere. Bingoaren ondotik, paela jatea izan zuten Malerrekako Kantuz-ek launduta.

Arratsaldean, Malerrekako Mus Txapelketako finala jokatu zuten Herriko Ostatuan. Zubietako ordezkari ziren Eki Gereka eta Arkaitz Untxalo suertatu ziren txapelkun, Beintza-Labaiengo Juantxo Urroz eta Mari Jose Pildain-i



irabazita. Muxikoak dantzatzeko aukera ere izan zen plazan. Haurrendako txokolatada eta jokoak eta berriz ere buruhandiak kalejiran ibili ziren, frontoian, aizkora apustua jokatzeko bitartean.

LEKUKOA SUNBILLAKO HARTU DU

Globora igo eta Urroz eta inguruak airetik ikusteko aukera ere izan zuen nahi zuenak. Iñaki Juanena Urrozko alkateak antolaketa lekuak Amets Inda Sunbillako alkateari eman zion eta Oharka-be taldearen musikarekin eta herri afariarekin akitu zen Malerrekako Egun borobila.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Omenduak, dantzariak eta globoa Malerrekako Egunean.



ARGAZKIA: IGNAZIO URROZ

Lehen jaunartzea

Ekainaren 4an izan zen lehen jaunartzea Urrozen. Argazkian ikus daitezkeen haurrek egin zuten, Mikel, Mattin, Naroa eta Amaiak. Seguru egun polita pasa zutela! Zorionak!



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Aralarko Mikel Deunaren bisita

Maiatzaren azken egunean izan zen Aralarko Mikel goiaingeruaren irudiaren bisita, urtero bezala. Bitxikeria bezala, egunpasa zebilen Iruñeko gizon batek irudia agurtu nahi izan zuen, ikastola garaian han ere bisitan ikusten zuelako.

ARIZKUNGO BESTAK

EKAINAREN ZZTIK ZERA

EGITARAUA



EKAINAK 22, ORTZEGUNA

12:00 Dianak, txupinazoa eta gazteen luntxa. **13:00** Txopo goratzea. **14:00** Gazteen bazkaria. **18:00** Ginkana (gazteak-haurrak) **21:30** Baztan zopak Beñatek alaituta **Ondotik** besta.



EKAINAK 23, ORTZIRALEA

10:00 Dianak. **14:00** Gazteen bazkaria. **17:00** Bertso-poteoa Ander Lizarralde eta Unai Munorekin. **18:00** Herriko trikitilarietako kalejira. **Iluntzean** Suak eta antzerkia. **Ondotik** gaita eta mutildantzak. (Bokadiloak salgai jarriko dituzte) **23:30** Arizkun Rock: Esne beltza eta Tirri&Tery

EKAINAK 24, LARUNBATA

10:00 Dianak. **11:00** Meza nagusia. **12:00** Mutildantzak. **Ondotik** Herriko luntxa. **18:00** Baztango dantzariak. **19:00** Dantzaldia Oharkabe taldearen eskutik. **20:00** Patata tortilla lehiaketa. **21:30** Gaita eta mutildantzak. **00:00** Dantzaldia Oharkaberen eskutik. **04:00** Tirri&Tery.

EKAINAK 25, IGANDEA

10:00 Dianak. **10:30** Enriquen Party egun guztian zehar. **14:00** Haurren bazkaria. **18:00** Txokolatada. **20:00** Puro relajo taldearen kontzertua. **21:30** Gaita eta mutildantzak. **22:00** Zine emanaldia.

EKAINAK 26, ASTELEHENA

10:00 Dianak. **12:00** Musineztura. **14:00** Zikiri jatea Beñatek alaiturik. **20:00** Zingar jatea. **21:30** Gaita eta mutildantzak. **22:00** Drag queen gaia. **00:00** Txopo botatzea eta gaixoa ni.



ARGAZKIAK: Valledobaztan.com

Dutarimuno
Ekologikoki ekoiztutako arroltzeak
Dutaria baserria · ARIZKUN · 616 756 359

azkarate
IKUZTEGIA LAVANDERIA INDUSTRIAL
Ongi pasa bestak!
Ordoki ind. | ARIZKUN | 948 453 209

Ongi pasa bestak!!!

restaurante · jatetxea
BIXTA-EDER
OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA
ETA BESTA EGUNETAN IREKIA
948 453 358 · 690 335 327
Azpilkuetako errep. - ARIZKUN
bixtaeder@hotmail.com
www.bixtaeder.es



URTXULUTEGI

ZURGINDEGIA

ateak | leihoak | eskailerak | sukaldeak | armairuak

Zurgin lanak orokorrean
PVC eta ALUMINIOA



Ordoki ind. | ARIZKUN | 948 453 475
carpinteriaurtxulutegi@hotmail.es

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
ONGI PASA BESTAK!!
T. 948 453 444 | M. 688 605 182 | ARIZKUN



BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat
Tel: 948 453310 - 948 453375 • Faxa: 948 456201
Ordoki Auzoa - ARIZKUN




IPARLATA OSTATUA
Egunero bokatak eta pintxo beroak
Igandetan salda
Giro ona
EGUNERO GOSARIAK
948 453153
Aduana kanika - ERRATZU



ongi pasa bestak!
TASKA
DOLAETEA
T. 948 453 002 | ARIZKUN



FORJA ZAPATA
Industrias ANCAR s.l.
BURDINA FORJATUAN
MOTA GUZTIETAKO LANAK.
Arizkun-Baztan · 948 45 30 55
industriasancar@yahoo.es



ARIZKUNGO BESTAK

EKAINAREN 22TIK 26RA



Elixabet LIZARZA
Arizkungo gaztea

«Suen gaua berezia da arizkundar guztiendako, giro magikoa sortzen da»

Aste tarteaz Arizkundik kanpo bizi da Elixabet eta asteburuetan herrira itzultzen delarik, goxo egoten da bertan: «gustura hartzen ditut lagunak eta familia». Besten atarian, antolakuntzako azken lanetan dabilta: «urtero 4 lagun arduratzen gara besten antolakuntzaz. Gure lana besten egitaraua guti goiti beheiti zehaztea eta aitzinerat ateratzea da. Gero bestetan egin behar diren lanak gazte guztion artean egiten ditugu». Lana bakarrik ez, «bestarako tartea ere hartuko dut, doike! Bestarako beti bada denbora».

GAZTEEN BAZKARIA

Bestetako momenturik bereziena «bigarren egunean egiten dugun gazteen bazkaria izaten da» bere ustez «giro elegantea izaten dugu, eta denbora ederra ateratzen bada zaila da gu baino hobeki egotea». Ekainaren 23an sortzen den giroa ere ez du aipatu gabe utzi: «suen gaua berezia da arizkundar guztiendako. Giro magikoa sortzen da

suak, ezkilak, koheteak, txistulariak... herri guztia kez eta jendez betea ikustea arras berezia da».

EGUN GUZTIAK BEREZIAK

Egun guziek dute bere erranetan zer bait berezia: «zikiroa dela, zopak direla, kontzertuak direla... baina nik uste Arizkungo bestek duten gauzarik bereziena suek eta ondotik egiten den antzerkia direla». Aurten programan berrikuntza ttiki bat ere gehitu dute gainera, «igande gauean zine emanaldia izan da». Urteak joan urteak etorri, badira behin eta berriz errepikatzen diren ekitaldiak, «Baztango herri guztietan bezala, ezin dira faltatu baztan zopak eta zikiro jatea».

«Inguruko eta urruneko jende guztia animatzen dut Arizkungo bestetara hurbiltzera».

«Gazteen bazkarian giro elegantea izaten dugu, eta denbora ederra ateratzen bada, zaila da gu baino hobeki egotea».

Bukatzeko, gonbidapena luzatu du Elixabetek «inguruko eta urruneko jende guztia animatzen dut Arizkungo bestetara hurbiltzera, ez dute batere gaizki pastuko». Herriko besta guztietan bezala «giro elegantea izaten baita, denak kontent eta bestarako prest!».

ONGI PASA BESTAK

ordoki erretegia
asador

Ordoki industrialdea • 31713 ARIZKUN
T. 948 45 31 65 - 608 53 88 61
asador.ordoki@gmail.com



www.asadorordoki.es



ERRATZUKO BESTAK

EKAINAREN 28tik UZTAILAREN 1ERA



EGITARAUA

EKAINAK 28, ASTEAZKENA

10:30 Haur-jokoak eta puzgarriak. **12:00** Txupinazoa eta ezkil jotzea. **Ondotik** pintxo-potea herriko tabernetan. **14:00** Gazte bazkaria Izpegin. **17:00** Izpegiko VIII. Bizikleta igoera (bertan txokolatada eta sari banaketa). **20:00** Presoen aldeko elkarretaratzea. **20:30** Mutildantzak, gaita eta larrain dantza. **21:30** Baztan zopak Kastonea ostatuan. **22:30** Kontzertua zubi-punta ostatuan. **23:00** Dantzaldia plazan Fidel akordeoilariarekin.



EKAINAK 29, ORTZEKUNA

10:00 Argi soinuak. **11:00** Meza. **Ondotik** herriko haurren dantza erakustaldia, mutildantzak eta luntxa plazan. **17:00** Kuadrillen arteko desafioa (Baztan Trek-en eskutik). **19:00** Txamukos Mariatxiak plazan. **20:30** Mutildantzak, gaita eta larrain dantza. **21:30** Kuadrilla afaria. **23:30** Dantzaldia Tirri&Teryekin.

EKAINAK 30, ORTZIRALEA

10:00 Argi soinuak (herriko trikitilariarekin). **11:00** Pilota partidak Gorostapolon. **Ondotik**, zintzur bustitzea. **14:00** Zikiro jatea Salaberri alaiturik. **19:00** Kalejira alaitua heretik barna. **20:30** Mutildantzak, gaita eta larrain dantza. **22:00** Frantxixko akordeoilaria Iparla ostatuan. **23:00** Kontzertuak plazan: Bide bakarra, Katez, Traspotin y la boletobanda, Dj Aimar.



UZTAILAK 1, LARUNBATA

10:00 Argi soinuak. **11:30** Haurren frontenis txapelketa. **14:00** Bazkari herrikoia kanpinean. **17:30** Pilota partidak. Afizionatuak: Enaitz Anso eta Josu Eskiroz Ugaitz Elizalde eta Aitor Alduntzinen aurka. Profesionalak: Titin III eta Berjera, Xala eta Azanzaren aurka. **19:30** Dantzaldia plazan Trakets taldearekin. **20:30** mutildantzak, gaita eta larrain dantza. **23:00** Dantzaldia plazan Trakets taldearekin.

KASTONEA
LANDETXE
OSTATU-JATETXEA
Ongi pasa bestak!
31714 ERRATZU
948.453.065 - 656.933.760
www.kastonea.com - info@kastonea.com

ZUBI TUBUS
PUNTA ATUQU
ERRATZU USTARRA

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

ALBANTZENA
Santi Dendarrieta
OSTATUA-DENDA
Ongi pasa herriko bestak!
Albantzena etxea, ERRATZU - Tel: 948 453 112

ALTXUKO
janaridenda **DENDA**
EGUNEROKO EROSKETA, ETXETIK HURBIL
948 453 471
ERRATZU
ONGI PASA BESTAK

Serrería Alemán S.L.
Especialitatea:
Haritz, lizeia, Douglas,
Laminatuak eta KVH
ONGI PASA BESTAK!
Frantziako errep. 2-A 31714 ERRATZU
T. 00(34) 948 453 173 · F. 00(34) 948 453 082
serreriaaleman@gmail.com · www.serreriaaleman.com

BAZTANGOZA
TALLERRA
Auto, furgoneta, 4x4 eta kamioien konponketa,
mantentze-lanak, mekanika,
elektrizitate eta pneumatikoen salmenta.
2. eskuko kotxeen salmenta.
Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847 | baztangoza@yahoo.es

IBARBURU
GASOLIOA ETXERA
KALEFAKZIOA • NEKAZARITZA • AUTOMOBILGINTZA
T. 610 258 595
Vicente Arocena Andueza
Iruña-Irun Errep. 48,5 km. 31740 DONEZTEBE

MENDIUR PENTSUAK
Nekazari Zerbitzuak
Vicente Arocena Andueza
ReX
DISTRIBUIDOR DE:
Agrovec
Pentsuak • Ongarriak • Haziak
Oilasko eta oilandak astero
ortzegunetan • Kaiolak
ORAIN PENTSU EKOLOGIKOAK!
Mourges, 20 • 31740 DONEZTEBE
Tfnoa/Faxa: 948 45 18 45 Mugikorra: 610 25 85 95

goldea
tailerra s.l.
Nekazaritza eta herri
lanetarako makinaria
eta lanabesen
salmenta eta konponketa
4. nabea - 8. lokala - DONEZTEBE
goldeatailerra@gmail.com | T./Fax 948 450 060


BAR
TITI
DONEZTEBE
Ongi pasa bestak!
Amezti, 7 - Doneztebe - Tel. 948 450 271

STIHL **VIKING**
Ongi pasa BESTAK!
Lithium-Ion
COMPACT
STILHEN POTENTZIA GUZTIA ORAIN BATERIAREKIN
BANATZAILEA
José Luis San Miguel
DONEZTEBE • Tel./Fax.: 948 450 711

DONEZTEBEKO BESTAK

EKAINAREN ZOTIK UZTAILAREN ZRA

EGITARAU



EKAINAK 28, ASTEAZKENA

18:30 Bezperak elizan Mendi abesbatzaren eskutik. **19:00** Gure Esku Dago kalejira Santa Luzia plazatik. **20:00** Txupinazoa. **Ondoren** kalejira Doneztebeko txistulariak eta Elutxa txarangarekin. Herriko elkarte eta ostatueta zopak emanen dituzte. **00:30** Dantzaldia Gaubela taldearen eskutik.



EKAINAK 29, ORTZEGUNA

09:00 Diana gaitero eta txarangarekin. **11:00** Meza nagusia. Agur Doneztebe, Trapatan eta Bandera dantza. **Goizean** Elutxa txaranga eta gaiteroak ibiliko dira herrian barna. **12:00** Buruhaundiak eta zezentxoak. **13:30** Aperitiboa Udaletxe azpian. **18:30** Bertso saioa Santa Luzia plazan: Amets Arzallus, Alaia Martin eta Jexux Mari Irazu. Gai-jartzailea: Alaitz Rekondo. **Ondoren** Japoniar bonbak. **20:00-22:00** Dantzaldia Gabenara musika taldearekin. **22:00** Joaldunek herriari buelta emanen diote. **22:15** Erreka dantza taldearen ikuskizuna Bearzanan. **Segidan** Dantzaldia Gabenara musika taldearekin.

EKAINAK 30, ORTZIRALEA

08:30 Diana, Aurorak eta gaiteroekin. **10:00** Lore eskaintza San Pedrori. **10:30** Mus txapelketa eliza atarian. **11:00** Udal ttikiari ongietorria eta txupinazo koloretsua. **11:30** Kalejira eta dantzari ttikien ikuskizuna Bearzanan. **Ondoren** Dantzariarentzat luntxa eta antzinako jokoak. **12:00** Buruhaundiak eta zezentxoak. **14:00** Udal ttikia aukeratzeko parte hartu duten haurren bazkaria. **16:00** Haurrentzako Jokulandia Bearzanan. **18:00** Aurorak eta Elutxa txarangarekin poteo alaia. **19:30** Udal ttikiari diploma banaketa eta botere itzulera. **20:00-22:00** Dantzaldia Tximeleta taldearekin. **22:15** Suzko zezena Bearzanan. **00:30** Dantzaldia Tximeleta taldearekin.



APEZTEGUIA

margoak eta barnizak hidrogarbigailuak
silikonak **LORATEGIA** lanerako jantziak
esku erreminta abeltzaintza **BURDINDEGIA**
baratzera konpresoreak ERREMINTA ELEKTRIKOA

Apezteguia Berria
ferretería - burdindegia

Leitzako Errepidea - Doneztebe
T: 948 450 994 - Fax: 948 450 882

www.apezteguiaberria.com

*besta zoriontsuak
opa dizkizuegu!*



apezteguiaelizalde
arquitectura y eficiencia energética
arkitektura eta eraginkortasun energetikoa





**ALBAITARITZA
ZENTRO
TEKNIKOA**

ONGI PASA BESTAKI
Rosa Seminario, 15 • DONEZTEBE
T. 948 450 591 • M. 659 884 374
www.veterinariaostiz.com
ctveterinario@telefonica.net

**ANTONIO
ARTAZCOZ
GOÑI**

Loteria primitiva
Kinielak
Pelukeroa

T. 948 450 081

Merkatarien karrika, 8
DONEZTEBE

Mendiburu
aziendak • tratantea

*Ongi pasa
herriko bestak!*



608 676 221
948 450 084
DONEZTEBE

Julia


Gozotegia . Kafetegia

Nagusia, 10 DONEZTEBE Tel. 948 451 471



TERRAZA • WI-FI gunea

Ogia, tartak, pastelak, bonboiak, izozkiak... ENKARGUAK HARTZEN DIRA




MIKEL MUTUBERRIA
zurgindegia

Zurgin lanak orokorrean

ONGI PASA BESTAKI

Aparan Industrialdea - 31740 DONEZTEBE
Tel. 669 939 057
mutuberriazurgindegia@hotmail.es



Miguelena

**SUKALDEAK
KOMUNAK**

Etxetresnak | Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak

T. 948 450 925 | M. 677 525 324
Amezti zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE

ONGI PASA BESTAKI



DONEZTEBEKO BESTAK

EKAINAREN 24TAK
UZTAILAREN 2RA



UZTAILAK 1, LARUMBATA

09:00 Diana Elutxa txarangarekin. **11:00** Adinekoen meza. **11:30** Postre lehiaketa Santa Luzia plazan. **12:00** Buruhaundiak eta zezentxoak. **14:00** Kalde-
reteak Intzakardin gazteek antolatuta (parte-hartze irekia). **Ondoren** Elutxa txarangarekin poteoa. **17:00** Sokamutur ttikia Intzakardin. **17:30** Doneztebeko I.Motorshow Slaloma, Aparanen. **19:30** Japoniar bonbak Santa Luzia plazan. **20:00-22:00** Dantzaldia Oharkabe musika taldearekin. **22:15** Suzko zezena Bearzanan. **00:30** Dantzaldia Oharkabe musika taldearekin. **19:00-22:00** Lila puntua plazan.



UZTAILAK 2, IKANDEA

09:00 Diana Elutxa txarangarekin **11:00** Nafarroako segalari txapelketaren finala (Mateoren etxe atzeko belagietan). **Ondoren** poteoa Elutxa txarangarekin eta Pankarta ateratzea. **11:30** Dantza erakustaldia Doneztebeko Rebeca Dantza Akademiako ikasleen eskutik Santa Luzia plazan. **14:00** Herri bazkaria Intzakardin. **Bazkalondoan** apar-besta. **Ondoren** erreka igoera. **19:00** Aunitz eskuetan pintxotx Santa Luzia plazan. Gure Esku Dagok antolatuta. **20:00-21:30** Txamukos. **22:15** Suzko zezena Bearzanan. **Ondoren** Elutxa txarangarekin kalejira eta Gaixoa ni Santa Luzia plazan.



Inzakardi
Pinturak
- PINTURA LANAK OROKORREAN -
Eduardo Oyarzabal
m. 630 511 488
Inzakardi, 10
DONEZTEBE/SANTESTEBAN
ongi pasa bestak!

Belarra jatetxea
ONGI PASA BESTAKI
Amezitia zeharkarrika, 3 · 31740 DONEZTEBE
T. 948 450 306 · www.restaurantebelarra.com

ONGI PASA BESTAK!
Bidasoa
GASOLINDEGIA
A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24 ORDUZ
Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

ordua eskatu
MAITE ileapaindegia
Solarium-a
GIZON ETA EMAKUMEENDAKO
Mourges Etorbidea, 4
© 948 451 780 - DONEZTEBE

BENI arraindegia
K. Nagusia 2 - DONEZTEBE
T. 948 450 589
Ortizal arratsaldetan irekia
Enkarguak hartzen dira
ongi pasa bestak!

ONGI PASA BESTAKI
Sabaia
Inmobiliaria
Salmenta - Alokairua - Aholkularitza
Bordak - Etxeak - Baserriak - Lokal komertzialak
Hiri eta landa-lursailak
Garajeak
Balorazioak
Salerosketa eta alokairuen kudeaketa
ORDUTEGIA
Asteleheneretik ortziralerara 10:00-13:30 / 17:00-20:00
Larunbatetan 10:00-13:00
Eliza kalea, 22 DONEZTEBE
T. 948 451 337 | 685 153 665 | 667 275 013
sabaia@sabaiaimmobiliaria.com
www.sabaiaimmobiliaria.com

AGENTE
ESKLUSIBOA
Seguros
Bilbao
IBERDROLA
Bezeroen arretarako gunea
Lan egunetan · 09:30-13:30 · iberdoneztebe@gmail.com
Energia
ziurtagiriak

zrb.net
informatika
ONGI PASA BESTAKI
Santa Luzia Plaza, 2
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 752
M. 609 418 097
info@zarbo.net
www.zarbo.net

BULEGOKO
gutun-azalak
Logoa, argazkia,
koloretan, bi aldetatik
inprimituak...
ESKAINTZA
1.000 ale
Leiho edo leiho gabe
60€
Adi.D
ttipi-ttapa T. 948 635 458 | www.kulturkari.com

MAKINAK ETA ZERBITZUEN ALOKAILUA
J.V. Jubera, S.L. eraikuntzak

DONEZTEBE

Leitza bidea, 72 · DONEZTEBE · T. 948 451 793
T. 659 702 694 · jvjubera@gmail.com

EROSKI city
ENKARGUAK HARTZEN DIRA
Ongi pasa bestak!!
T. 948 456 152
Zazpigorutze, 8 · DONEZTEBE
JANARI-DENDA | HARATEGIA | FRUTAK

ONGI PASA BESTAK

talleres EDERKI tailerra

Leitza errepidea z/g
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 798 Fax 948 451 623
talleresederki@soc.redcitroen.com

CITROËN

Latigillo hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK
24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

DONEZTEBEKO BESTAK
2017

ekainaren 28tik
uztailaren 2ra

**HERRITAR ETA BISITARI GUZTIOI,
ERRESPEZUZ BESTA EGIN!**

DONEZTEBEKO UDALA

ERASO SEXISTARIK EZ!

DONEZTEBEKO BESTAK

EKAINAREN 28TIK
UZTAILAREN 2RA



Leire UTERGA LABIANO
Doneztebeko gaztea

«Musika entzun eta geldirik egon ezin duen horietakoa naiz ni»

Saltsa askotako perrexila da Leire, geldirik egoten ez dakien horietakoa: «hiru haurren ama naiz, kirola egitea eta ikus-tea gustuko dut eta lagunekin afaltzera joatea ere ez da afizio txarra». Agenda bete izaten duen arren, moldatzen da denetara ailegatzeko: «sekretua batez ere gauzak egiteko ilusioa izan eta ongi antolatzea da. Senarra eta ingurukoen laguntzaz ahaztu gabe, noski».

ODOLEAN DARAMAN ZALETASUNA

Doneztebar peto-petoa izanik, odolean darama Leirek bestarako grina: «besta-zalea naiz eta gauzez eta egunez ahalik eta gehien bizitzen ditut. Egun horietan, ahalik eta gutxien egon behar da etxean». Haurrei ere ttikitatik piztu nahi die bestarako gogoia, «beraiek nik bezala disfrutatzea da helburua, haiek ongi badaude, denek pasatzen dugu ongi».

«Garrantzitsua iruditzen zait herri bazkarian eta erreka-ren igoeran hurrek parte hartu ahal izatea. Horrela gurasoak garenok ere disfrutatu dezakegulako».

ZAPIA LEPOAN, BESTARAKO PREST

Besta bezpera noiz ailegatuko zain egon ohi da, «egun berezia da niretako. Suziria bota ondoren, zapi gorria janitzeko momentu hori hunkigarria da niretzat, eta haurrak ditudanetik gehiago oraindik». Suziria beraiekin ikusi ohi du eta ondoren berarentzat tartetxoa hartzen du: «haurrak aitarekin uzten ditut lagunekin afaltzera joateko; goizaldera arte luzatzen den lehendabiziko gaua disfrutatzeke». Biharamuna, San Pedro eguna, familia giroan bizi du: «familia guztia elkarrekin

ateratzen gara goizetik, buruhandiekin korrika egin eta dantzak ikustera». Eta hurrengo egunetan, «antolatutako ahalik eta ekitaldi gehienetan parte hartzen saiatzen naiz; txarangaren atzetik joan, plazan dantzatu...». Izan ere, han edo hemen musika baldin badago, segidan hasten omen da gorputza mugitzen «musika entzun eta geldirik egon ezin duen horietakoa naiz ni!».

GARAI BATEKOAK ETA EGUNGOAK

Ama izan aurreko bestak eta gaur egungoak alderatuta, bestak bizitzeko modua aunitz aldatu dela dio: «baina ez okerrera... orain kontuan hartzen ditut beraien beharrak, baina pila bat disfrutatzen dut beraiekin bestetako ekintzetan parte hartuz». Eta bere garaian gautxoria izan bada ere, hori ere aldatu da: «orain gau batekin nahikoa dut; nahiago dut egunez haurrak dantzan jarri eta beraiekin disfrutatzea».

«Denendako gauzak izan behar dira eta uste dut egitarauan ez dagoela ezer soberan. Hori bai, ama naizenetik, buruhandiek ezin dute hutsik egin».

Doneztebarra izanda, «niretzat herriko bestak beti izanen dira berezienak». Azken urteetan egitarauan egin dituzten aldaketak ere hoberako izan direla iruditzen zaio «gauza gehiago daude eta ez naiz kexatuko». Garai bateko bestetako zenbait ekitaldi berreskuratzea ere positiboa iruditzen zaio «azken bi urtetan herri bazkaria eta erreka-ren igoera egin dira berriz eta giro bikaina sortu da. Alde horretatik, garrantzitsua iruditzen zait haurrek parte hartu ahal



izatea, horrela gurasoak garenok ere disfrutatu dezakegulako». Egitaraua bere osotasunean egokia dela dio «denendako gauzak izan behar dira, eta uste dut ez dagoela ezer soberan. Hori bai, ama naizenetik, buruhandiek ezin dute hutsik egin». Bestetan sortzen den giroak ere hobera egin duela uste du «azken bi urteetan elkartasuna sortu da adin desberdineko herritarren artean, eta horrek giro polita sortu du herrian».

IAZKO BESTETAN SORPRESA

Iaz bere lagun batekin batera, Leirek giro on hori sortzeko bere aletxo jarri zuen «Leire Ortuoste eta biok antolatu genuen ikuskizun berezia. Bera ere ama da eta beti hitz egiten genuen haurrak entretenitzeko ez genuela sobera behar. Biak nahiko pailazoak garenez, ez zitzaigun gehiegi kosta lanean hasi eta ikuskizuna prestatzea. «Ene Kantak» antzeko zerbait egitea pentsatu genuen, beraien kantak eta beste batzuk hartuz. Arropa apaindu, aurpegia margotu eta hantxe atera ginen,

gure betaurreko gorriekin hurrekin dantzatzera. Ordu betetxo batez egon ginen, eta nik uste beraiek baino gehiago disfrutatu genuela guk». Arrakasta izan zutela bistakoa da, emanaldia errepikatu egin dutelako ikasturtean zehar. Aurten tamalez, ez omen dute denborarik izan ezer prestatzeko, baina ez du baztertzeko etorkizunean bertze zerbait antolatzea: «sorpresa bertze baterako utzi beharko dugu».

«Azken bi urteetan elkartasuna sortu da adin desberdinetako herritarren artean eta horrek, giro polita sortu du herrian»

Bestak bukatzean zapi gorria ez du luzarorako gordeko «lanera bueltatu beharra izanen dut baina asteburuan Iruñeko San Ferminetan gozatzeko prestatu beharko dugu. Atautxi eta amatxi han ditut, eta ezin bisita horri huts egin».

PINTURA | PLADURRA | ALIKATATUAK

699 98 38 66

Jose M^a Iribarren
Doneztebe 31740


MALE
REKA
KUSTOM

Arropa
eta osagarri
personalizatuak



Nagusia, 1 · Doneztebe T. 948 451 571 / 636 885 190
male-reka@male-reka.com Male-Reka

Lilura
ILE-APAINDEGIA



BESTAK
GOZATU

Rosa Seminario, 17
DONEZTEBE

T. 948-45-19-61



ONGI PASA BESTAK!

Angie
ENGLISH ACADEMY

Cambridge English
Exam Preparation Centre

Cambridge English
Teacher
Member



8 urtetik aurrera. HAUR - GAZTE - HELDUAK
Hasiera mailatik: A1 - A2 - B1 - B2 - C1 - C2

2013az geroztik Cambridgerako azterketa ofizialak
prestatzen ditugu eta hagitz emaitza onekin.
Itzulpenak ere egiten ditugu.

T. 626 908 076 · angiacademy@gmail.com
Elizagibela, 7 behea · 31740 DONEZTEBE

ONGI PASA
BESTAK!

Clinica Dental
IRURITA RUBIO

ORTODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA

Rx. Panoramikoa · Periodontzia · Odontopediatria
Kirurgia · Endodontzia · Protesiak · Hortz-zuritzea
PADI (Haurren hortzak zaintzeko programa)

DONEZTEBE
Rosa Seminario, 19
948 450 267

LEITZA
Manuel Lasarte, 7
948 610 713



Sampi Aragón S.A

MARKA HAUTAN ESPEZIALISTAK
Mekanika • Elektrizitatea • Txapa • Pintura

T. 948 450 354 | DONEZTEBE
sampiaragon@sampiaragon.com



Arozena
ostatu • jatetxea

Gosariak
bazkariak
eta afariak

ongi pasa bestak!

T. 948 450 443
Leitzako errep., 84
DONEZTEBE



Mailposta
publizitate banaketak

ongi pasa bestak!!

Inprimategia **Publizitate banaketak**



Zure inprenta eta publizitate banaketarako enpresa

Arribilagako bidea, 55
31793 Narbarte

686 747 713
648 847 167

www.mailpostabuzoneos.com
amaia@mailpostabuzoneos.com



Kimetz
Belardenda



lorea
nutrizio eta dietetika
elikatze kontzientea

info@kimetzbeldenda.com
lorea@kimetzbeldenda.com

Ongi pasa bestak!

T. 948 451 473 | DONEZTEBE
www.kimetzbeldenda.com

AMA KONTXA
GASOLINDEGIA



ONGI PASA BESTAK!

TELEFONOA ETA FAXA • APARKALEKUA • KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
TABAKO SALMENTA • LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK
ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA




SUPERMERKATUKO PREZIOAK

HAY PIZZAS CALIENTES PARA LLEVAR



GASOLIOA ETXERA
ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU
PREZIO LEHIAKORRA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787



Unai APEZETXEA Doneztebeko gaztea

«Arratsaldeei bizi gehixeago emateko gazteendako jokoak antolatu ditugu»

Burrunka taldeko kidea da Unai eta bestak ailegatzen direnean, sukaldaritza ikasketak, lana eta bestarako afizioa lotu behar izaten ditu: «lanetik ailegatu orduko saiatzen naiz besta giroan sartzen. Txosnan ere lagundu behar izaten da eta han eta hemen, zeregina izaten da». Horregatik, sanpedroak «nahikoa egun mugituak» izaten direla dio.

KOTXE SLALOMA BESTETAN

Urteroko lanei bertze bat gehitu die, afizio bera duten beste bi lagunekin elkartu eta ekitaldi berezia antolatu baitute bestetarako: «kotxeak eta rallyak gustatzen zaizkigu hiruroi eta bestetako larunbatean kotxe slalom bat antolatzea pentsatu dugu». Ekitaldi honekin, «motor mundua jendeak hurbiletik ezagutzeko aukera izanen du». Aparan industrialdean egiten dute erakustaldia «ibilbide desberdinak prestatuko ditugu eta pilotu lizentzia duten gidariek horiek osatu beharko dituzte». Kotxe eta motor mundua gustuko dutenak hurbiltzea espero dute «eta zer den ez dakitenentzat ere ez da aukera txarra. Eraitza ikusgarria izanen da seguru».

ARRATSALDEKO GIROA BERPIZTEKO

Burrunkatik ere izanen da berrikuntzarik «ikusten genuen arratsaldetan ez zela giro askorik izaten. Bazkalondan eserita geratu edo bestondoa ostaturen batean pasatzea da errazena, eta hor zerbait egin behar zela ikusi genuen. Horregatik, aurten jokoak antolatuko ditugu». Betiko jokoak izanen dira, «umore onean, barre pixka bat egin eta ongi pasatzeko helburua dutenak: plastikoa xaboiarekin paratu, txupitua edan eta

«Gure esku dago giroa sortzea eta batzuei gehixeago animatzeko erranen nieke».

makilari buelta eman... Jendea juntatu eta ongi pasatzeko aitzakia».

BESTETAN

Bost egun irauten dute Doneztebeko bestek eta Unai txupinazo eguna nabarmendu du: «egunik hoberena izaten da. Kuadrillako bazkaria izaten dugu eta hortik elkarrekin txupinazora joaten gara. Giro gehien egoten den eguna izaten da. Nabaritzen da jendeak baduela bestarako gogo berezia». Beste egunetan ere besta egin nahi duenak aukerarik ez duela faltako nabarmendu du: «kanpotik zenbat jende etortzen den ikusita, zerbait berezia izanen dute gure herriko bestek!».

«Bestetako larunbaterako antolatu dugun kotxe slalomera etortzen direnek, mundu hau hurbiletik ezagutzeko aukera izanen dute».

Ekitaldien artean berriz, gazteen bazkaria azpimarratu du, «derrigor egon behar duen ekitaldia da». Edozein moduz, besta giroan sartzeko gonbidapena luzatu nahi izan dio jendeari: «gure esku dago giroa sortzea eta batzuei gehixeago animatzeko erranen nieke».

Azken urteetan berreskuratutako ekitaldiek harrera ona izan dutela ere aipatu du: «jendea geroz eta gehiago animatzen ari da eta hori ona da. Besta borobilak izateko bakoitzak bere partetik jarri beharra du». Egitaraua ere aurreko urtetan baino potoloagoa iruditu zaio «gauza gehiago daude arratsaldetan eta besta animatuak izanen direla dirudi». Sukaldeko sua itzali eta bestako suziria entzun orduko, barruko sua piztuko zaio Unairi, besta giroan sartu eta ongi pasatzera aterako da. Osagai nagusitik badu nahikoa: bestarako gogo eta ilusioa gainezka.



Ford
Sampi Aragón S.A
Orain zonaldeko Ford zerbitzu ofiziala
ONGI PASA BESTAK
T. 948 450 354 | DONEZTEBE
sampiaragon@sampiaragon.com

Doneztebe autoeskola

A1 - A - B - BTP - C1
C eta E karnetak
ateratzen ahal dira
"35 orduko CAP ikastaroak"

BESTA ONAK PASA!

948 451 929
Leitzako errepeidea 2 behea DONEZTEBE
doneztebeautoeskola@gmail.com

Mendaur Motor

AUTOEN KONPONKETA ETA SALMENTA
TXAPA ETA PINTURA

ONGI PASA BESTAK!

Leitzako bidea • DONEZTEBE
T.948 450 333

ARKUPEAK

GIZARTEA → MAIATZAREN 28KO BILERAN

Lehenbizko sei hilekoaren balorazio positiboa egin du zuzendaritzak

Elkartekak 20.880 euro eskuratu ditu gabonetako loteriako saritik

Fernando ETXEBERRIA

Maiatzaren 28an, Zuzendaritza batzordea elkartu zen elkartekide guztientzako interesgarriak izanen diren zenbait gairi buruz solasteko.

Urteko lehenbiziko sei hilabeteetan egindako jardueren errepasoa egin zuen idazkariak: bederatzi bidaia egin dituzte eta 1.260 bazkidek parte hartu dute. Mendizaleek ere izan dute gozatzeko aukera, Eratsun, Legasa, Bera, Etxalar eta Leitzan barna, denera 231 mendizale elkartuz.

Urtarrila eta maiatza artean, 13 ikastaro ere egin dira eta 188 bazkidek parte hartu dute.

Gabonetako loterian ere zorteko izan da Elkartea. 5.840 partizipazio banatu zituzten eta 140.160 euroko saria eskuratu zuten. Elkartekak, sari horretatik 20.880 euro eskuratu ditu: 11.640 euro, partizipazio bakoitzeko 2 euro jokatzeko zitu-lako eta 9.240,50 euro saria kobratu ez duten partizipazioen truke. Zuzendaritza batzordeak azken hauen eskuza-

baltasuna eskertu nahi izan du.

Loteriako saria kobratzerakoan egon diren arazoak berriro ez errepikatzeko, Caixabankeko ordezkariekin ere bildu dira. Beraien bulego guztietan saria kobratu ahal izatea ahalbidetuz. Banku honek berak, 8.000 euroko dirulaguntza eman dio elkarteari, Zugarramurdi, Urdazubi eta Elizondoko jubilotekak martxan jartzeko. Arizkun, Mugaire eta Malerrekan ere zerbitzu hau martxan jartzea aurreikusten dute.

Irungo Jubilatuen Egoitzako arduradunekin ere bildu dira eta Arkupeak Elkartearekin lan-kidetzan aritzeko prest agertu dira. Hitzaldiak eman, pentsiodunak egoitzan onartu eta udan familien atsedenerako egonaldiak eskaintzeko ere asmoa badute.

ZUZENDARITZAREN OHARRA

Bukatzeko, Zuzendaritza batzordeak bazkide guztiek egiten dituzten proposamenak gustu handiz entzuten dituztela adierazi zuen, elkartearen onerako badira. Baina, euren lana gutxi-estea bertze asmorik ez dutenen kritikak alferrikakoak direla gaineratu zuen. Bistakoa da ema-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Zuzendaritzako kideek bilera egin zuten maiatzaren 28an.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Ordezkariek bilera egin zuten ekainaren 1ean

Elkarteko presidentek 2016ko kontuen errepasoa eginez eman zion hasiera bilari: irabaziak 462.868,06 eurokoak izan ziren eta gastuak 462.255,93 eurokoak. Beraz, 612,13 euroko suberabitarekin akitu zen urtea. Aurten, 451.634 euroko aurrekontua izanen du elkartek eta nabarmendu behar da erakunde laguntzaileek Arkupeak Elkartearen proiektua babesteko interesa agertu dutela. Horren arazoia, kontuez arduratzen den batzordeak egiten duen lan zorrotza da. Azalpena bukatutakoan, ordezkariak txalo zaparrada jaso zuen presidentek eta baita Garbiñe idazkariak ere, berak egiten duen lana ezinbertzekoa baita. Elkarteko diruzainaren eta ordezkari guztien lana ere goraipatu nahi izan zuen lehendakariak. Idazkariak egindako huts egite batzuk ere onartu zituen, baina ari denari gertatzen zaio... Bilera bukatzeko lehenbiziko sei hilekoaren errepasoa egin zuen presidentek.

itza oso onak lortu direla aurten: bidaletan 1.260 lagunek parte hartu dute; 188 bazkidek ikastaroetan; 23.477 euroko dirulaguntzak lortu dira eta 20.880,50 euro jaso ditu elkartek loteriako irabazietatik. Gainera, herri guztietan ordezkariak daude Portugalera egindako bidaiek arrakasta handia izan du, antolatze orduan zailtasunak egon baziren ere (181 bazkidek izena eman zutelako).



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

41 elkartekide izan dira Benidormen

Bardeetara joateko 140 lagunek eman dute izena eta Pasaiko itteerako 96k. Bizkaiko kostara eta Aralarrean antolatutako itteerak izanen dira hurrengoak.

BAZTAN-BIDASOA

KIROLA → EKAINAREN 24AN

Sunbillan eta Bidasoko Bide Berdean izanen da Ederbidea Zikloturista

24 eta 40 kilometroko bi ibilbide ditu

TTIPI-TTAPA

Sunbillak hartuko du ekainaren 24an Ederbidea Zikloturistaren lehen edizioa, Bidasoako Bide Berdearen martxa zikloturista handia mugikortasuna eta turismo iraunkorra sustatzeko.

Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoak antolatuta eta Nafarroako Gobernuako Turismo eta

Merkataritzaren Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin, Ederbidea proiektuaren lehen ekitaldi publikoa da. Nafarroako, Gipuzkoako eta Pirinio Atlantikoko mugaz gaindiko lurraldeetan bizikletaren erabilera sustatzeko europar lankidetzaren proiektua da Ederbidea.

Lasterketaren helburuetako bat mugaren alde bateko eta besteko zaleek bat egitea da, lehiakorra ez den martxa batean eta Bidasoalde-



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan-Bidasoa Turismoa, Sunbillako udala eta Urdiko ordezkariak, aurkezpenean.

az disfrutatzeko parada izanen dute, ingurune natural batean, oinpeko edo pedalei eragin bitartean.

Ederbidea Zikloturistak bi ibilbide zirkular izanen ditu, zailtasun maila desberdinekoak eta biak Sunbillan hasien direnak.

Lehenengoak 24 kilometro ditu eta Doneztebe, Legasa, Oierregi eta Oronoz Mugairaino iritsiko da, handik Sunbillara itzultze-

ko. Bigarrena 40 kilometrokoa da eta Sunbillatik joan etorria izanen da, Berrizaun eta Beratik pasaz.

Parte-hartzea doakoa da baina beharrezkoa da aurretik izen ematea hilaren 18ra arte, www.rockthesport.com webgunean.

Zortzi urtetik gora edonork parte hartu dezake. Ekitaldia amaitzean, zikloturisten artean bi pertsonentzako bi aseteburu pasa Baztan-Bi-

dasoako landetxe batean eta bi pertsonentzako sei menu Baztan Bidasoa Turismoko kide diren establezimenduetan zozketatuko dira.

Nabarmentzeko da Udalaren eta Sunbillako herritarren inplikazioa mugaz gaindiko topaketa zikloturista honetan, haien kirol instalazioak utzi dituztelako eta boluntario moduan parte-hartzaileak lagunduko dituztelako.

GIZARTEA → BAZTAN-BIDASOA TURISMOAK

Bisita gidatuen eskuorri berritua aurkeztu dute

Bisita gehiago proposatzen ditu

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa Turismoak Bisita Gidatu- en eskuorria aurkeztu du ekainaren 7an Bertizko egoitzan. Iazko edizioaren arrakasta ikusita, aurten eskualdeko bisita gidatuen eskuorria berreditatu du, bisitariari eskualdeko eskaintza guztia eskura

jartzeko helburuarekin.

Iazko bisitez gain (Etxalarko herria, Usategiak, Kontrabandoa, Baztan Tours, Irrisarri Land, Urdazubiko errota, Lezeak, Museoa...), bisita berriak biltzen ditu eskuorriak; bertzeak bertze, Baztan Trilogia, Urdazubiko lezeetatik errotara bisita, eta Zugarramurdiko Pottoka urdinaren ibilbidea, Xorroxingo ur-jauziaren ibilbidea eta Bertizko Parkeko Iturburura ibilbi-

dea, azken hiru hauek, Nafarroako Gobernuaren Bideak ehuntzenekimenaren baitan. 30 GR ibilbide aukeratu ditu Gobernuak lurralde osoan eta horietako 3 Baztan-Bidasoan daude.

Bisita Gidatuen eskuorrian, bisita bakoitzaren ordutegia, prezioa, erreserba telefonoa eta baldintzak zehaztuta agertzen dira.

Bezeroei harrera one-na ematea da Baztan-Bidasoa Turismoaren



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Patxiku Irisarri, Mikel Albisu eta Gervasio de Cesare.

erronketako bat, hortaz, bere establezimenduetan dauden bisitarien zat deskontu bereziak aurreikusi dituzte. Beherapenetaz baliatu ahal izateko, bezeroek ostatu hartu duten establezimenduan zigilatu behar dute eskuorria.

Eskuorria doakoa da,

eta Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargoko establezimendu guztietan egonen da eskuragarri.

Eskaintza paperean ez ezik, sarean ere aurkitu ahal du bisitariak, izan ere eskuorriaz gain, web orria (www.baztan-bidasoa.com) ere eguneratu dute.

ARESO

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 23, 29, 30 ETA UZTAILAREN 1EAN

Sanjuan bezpera eta ondoren Sanpedroak ospatzeko prest

Sanpedroetako afariko txartelak ekainaren 19tik 28ra salgai Sastinean

Juana Mari SAIZAR

Ekainaren erdialdetik aurrera, ez da festa girorik faltako herrian. Sanjuan bezpera eta Sanpedroak ospatzeko egitarauak prest daude eta.

Ekainaren 23an, larunbatekin, ospatuko da Sanjuan bezpera. Arratsaldean 16:30ean haurrentzako meredola eta gero jolasak izango dira. Iluntzean, herri afaria egingo da plazan, eguraldiak lagunduko ez balu karrapean. Ohikoa denez, bakoitzak etxetik ekarriko du bere afaria. Afalondoan suak piztu eta suaren bueltan dantzatzan eta saltoka ibiltzeko aukera izango da.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Herriko etxeetan eta baserrietan eskean ibiliko dira bi egunez Lagunartekoak.

SANPEDROETAN HIRU EGUNEKO PESTA

Urtetako ohiturari eutsi eta lagunartekoak prestatu du sanpedroetako egitaraua. Ekainaren 29an, osteguna, meza eta ondoren merienda izango da. Ekainaren 29an, ostirala, trikitilariak girotuko dute arratsaldea, 17:00etatik aurrera. Lehenbiziko arin

arinak dantzatu ondoren, abiatuko dira gazteak herriko eskea egitera, 18:00ak aldera eta herriko itzulia egin ondoren, Lagunartekoak afaria izango dute elkartean.

Uztailaren 1ean, larunbatean, gosariarekin indarrak hartuko dituzte Lagunartekoak eta 11:00etan baserrietako

eskeari ekingo diote. 18:00etan sagardo dastaketa eta pintxoak eskainiko dituzte plazan eta 19:30ean Tolosako Udalberri dantza taldeak emanaldia eskainiko du. 21:00etan herri afaria: entsalada, oilaskoa patatekin, izozkia, kafea eta kopa. Bukatzeko 23:00etan erromeria Gozo Gozo taldearekin.



Pertsonaia

Iker BARANDARAIN

Euskal Herriko Mendi Erronka beteta

Ekainaren 3an Leitza izan zen mendi lasterketan parte hartu zuen Ikerrek eta 329. postuan ailegatu zen helmugara. Mota honetako lasterketa batean parte hartu duen lehenbiziko aldia izan da eta 10 ordu eta 46 minutu behar izan ditu ibilbide gogorra osatzeko. Xabi Eraso eta Jabi Bealuntzaran ere atera ziren lasterketan baina ez ziren helmugara iritsi. Herriarren artean interesa sortu zuen lasterketak eta animorik ez zuten falta izan!

EKAINETIK AUERRERA

Hornitzaile berri bat arduratuko da herriko WIFI zerbitzuaz

Juana Mari SAIZAR

Orain artean, Iberbanda enpresa arduratu izan da herriko WIFI zerbitzua eskaintzeaz baina maiatzaren 31n eten zuen zerbitzua. Udalak hornitzailez aldatu behar dela ikusita, zerbitzua hobetzeko lanak egitea erabaki du. 1.150 euroko inbertsioa egingen du, ekipoa egin beharreko aldaketa eta hobekuntzak egin ahal izateko. Talaia enpresa ari da arduratzen lan hauek egiteaz, eta etorkizunean enpresa honi lotutakoa izanen da ziurrenik WIFI hornitzaile berria. Zerbitzua orain artekoa baino azkarragoa izatea aurreikusten da: herrian banatzeko 50 mega simetriko ailegatuko baitira. Orain arte jeitsierako 6 mega eta igoerako 4 iristen ziren. Urte gutxi barru herrian zuntz optikoa izateko moduan egonen garela jakinik, tarteko pausoa da orain Udalak eman duena.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Herri-galdeketa parte hartzeko deia

Gure Esku Dagok antolatutako herri-galdeketa batekin egin dute hainbat herritarrek eta kamera aurrean jarrita, inguruak ere parte hartzeri animatu dituzte. Ekainaren 18an izango da botoa emateko aukera, Plaza Zaharrean, 09:00etatik 20:00etara. Animatu eta adierazi zuen iritzia!

FLASH

Udaleku irekiak uztailaren

Uztailaren 10etik abuztuaren 4ra, 11:00etatik 13:00era eskainiko dute zerbitzua. Izen-emateko aukera ekainaren 21era arte egongo da zabalik, Udaletxean edo eskolako zerrendan.

Idazkari lanpostua

Udalak kontratu administratiboaren idazkari plaza betetzeko deialdia kaleratu du, aldi baterako izanen da. Izen-ematea: ekainaren 15era arte. Informazio gehiago areso.eus-en.

GIZARTEA → EKAINAREN 15EAN UDALETXEAN

Etxe hutsa alokatzeko aukeraz saio informatiboa egingen dute

Etxebizitza departamentuko eta Nasuvinsako ordezkariak izanen dira hizlari

TTIPI-TTAPA

Herrian etxebizitzaren inguruan udala egiten ari den lanaren barranean, *Alokatu zure etxe hutsa Nasuvinsaren bidez* eneko saio informatiboa eskainiko dute ekainaren 15ean, ostegunean 18:00etan udaletxean. Nafarroako Gobernuako Etxebizitza departamenduko Javier Etayo eta Nasuvinsako Jose Mari Aierdi izanen dira hizlari.

IAE zerga

2017ko Iharduera Ekonomikoen Zerga (IAE delakoa) ordaintzeko borondatezko epea ekainaren 5etik uztailaren 14ra bitartean irekia dagoela jakinarazi die Udalak zergadunei, bando baten bidez.

2017-2018 ikasturterako ikastaroak

2017-18 ikasturterako ikastaroak antolatzeko inkesta egiten ari da Udala. Ekainaren 26ra arte jasoko dira herritarren proposamen zehatzak eta gutxienez bost eskaera berdin jasotzen badituzte, aurerekontua eskatu eta apuntatzeko epea irekiko dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko jubilatuen Urdazubiko lezeetan bisitari

Jubilatuak elkarrekin irteera bat antolatu zuten maiatzaren 23an. 22 lagun elkartu ziren plazan eta handik Urdazubiko kobazuloetara abiatu ziren. Lezeak ikusgarriak dira eta bisita gidatua egin zuten. Horiek ikusi ondoren Dantxarinera joan ziren hango giroa ikusteko eta bazkaltzera Montxo jatetxera joan ziren: ederra bazkaria. Bazkal ondoren musika Luis Elizegiren kontura joan zen eta nahiko kantatu eta dantzatu ondoren 18:30 aldera bueltatu ziren herrira.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Iruña eta Umore Ona abesbatzak elkarrekin kantari

Iruñeko Iruña abesbatzak eta Goizuetako Umore Ona abesbatzak kontzertua eskaini zuten elizan ekainaren 3an. Iruñeko koralak Jesus Mari Beltza izan zuten zuzendari eta Goizuetakoak Eneko Amundarain. Elizako saioaren ondotik, Umore Ona elkarteak afarian eta mahainguruan ere segitu zuten kantuan.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

140 txirrindulari zortzigarren Iskibi BTT zeharkaldian

Eguraldi kaxkarrari aurre eginez, 140 txirrindularik parte hartu zuten BTT zeharkakaldian. Luzea egiten Axier Otaño urnietarra izan zen bizkorrena eta laburrean Garikoitz Arizmendi hernaniarra.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Aralar Musika Eskolako herriko emanaldia

Zuzeneko irrati saioa ardatz hartuta, guraso zein ikasleek hautatutako 90. hamarkadako kantuek entzun ziren. Horietaz gain perkusio eta trikitixa taldeek ere protagonismoa izan zuten.

LEITZA

KULTURA → IRABAZLEA BOZKETA HERRIKOI BIDEZ

Plazaola aldizkariko azal lehiaketa martxan da

Aldizkarirako
idatziak ere
ekainaren
30era arte
aurkez daitezke

JM BARRIOLA

Santiburtzioak iragartzen dituen Plazaola aldizkaria prestatzeko garaia ailegatu da eta hori osatzen joateko, martxan da azal lehiaketa. Parte-hartzaile bakoitzak nahi adina lan aurkeztu ditzake: margo, marrazki, argazki edo bestelakoak. Aurkeztutako lanek, gutxienez A3 tamaina izan beharko dute eta lanari atzekaldean izenburu edo izengoiti bat jarri behar zaio. Horrekin batera, gutunazal itxi bat aurkeztu beharko da, egilearen datuak bertan sartuz.

Lanak aurkezterakoan 16 urtetik beherakoek *Plazaola-Leitzako aldizkaria* 39. zenbakia jarri beharko dute eta 16 urtetik gorakoek *Leitza 2017-Tiburtzio Donea* ren *Pestak-39. zenbakia*.

Irabazleentzat sariak izanen dira. 16 urtetik beherakoak opari bat jasoko du eta 16 urtetik gorakoetan irabazle izanen denak, 150 euroko saria. Lanak ekainaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira Maimur liburutegian edo Aurreran.

BOZKETA

Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak ikusgai jarriko ditzuzte eta herritarrak izanen dira beren botoen bidez irabazleak aukeratzeko dituztenak. Sari banaketa txupinazoaren ondoren izanen da Udaletxeko batzar aretoan.

IDATZIAK

Plazaola aldizkaria osatzeko herritarrak idatziak bidaltzera ere animatu nahi dituzte. Istoriak, kontuak, ipuinak, kritikak, agurrak, txistak, olerkiak... Lanak aurrerake@hotmail.com helbidera bidali edo Aurrerako buzoian utzi. Ekainaren 30era arteko epea izanen da, eskertuko dute garaiz ibiltzea.

FLASH

'Leitza argazki zaharretan' salgai

Maimur eta Astiz liburudendetan, 20 euroren truke eskura daiteke Leitzako historia biltzen duen bilduma.

Indenpendentista sarearen ekitaldiak

Harri jokoak, abesbatzen emanaldia eta Txutxi Ariznabarretaren hitzaldia, ekainaren 16an 19:30etik aurrera.



ARGAZKIAK: E. IRAOLA

22 herritarrek bukatu dute EH Mendi Erronka lasterketa

Ekainaren 3an, 24 herritarrek ekin zioten mendi erronkari, baina, horietatik 22 ailegatu ziren herriko plazako helmugara. Lehenbiziko leitzarria, Iban Bengoetxea Cousillas izan zen eta sailkapen orokorrean hamabigarren helmugaratu zen (07:37:55). 67 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten eta animorik ez zuten falta izan, ehunka herritar bertaratu baitziren lasterketa ikusi eta babesa ematera. Beste urte batez, borobila izan zen Mendi Erronka eta hori hala izateko, lasterkariak bezain garrantzitsuak izan ziren egun osoan zehar lanean aritu ziren boluntarioak eta antolatzaileak. Zorionak guztiei!



UTZITAKO ARGAZKIA

Kalejira koloretsua herriko mugikortasun arazoak bistartzeko

Urratsez urrats lelopean kalejira koloretsuan atera ziren maiatzaren 31n ikasle txetxeko ikasleak. Bestelako mugikortasun eredu bat aldarrikatu zuten, Leitza oinez eta seguru ibili nahi dutela adierazi eta oztopo arkitektonikoen eta ibilgailuen erabilaren inguruan hausnartzera gonbidatu. Amazabal ikastetxeko DBH eta Batxilergoko ikasleek egindako lanketa berezi baten azken pausoa izan da kalejira hau. Aurretik, Udalarri herriko mugikortasunari buruzko txostena aurkeztu zioten eta abestia eta bideoklipa ere egin zituzten.

DATUA → 2016KO AZAROTIK GAUR ARTE

Kiroldegian egindako hobekuntzekin %16 igo da erabiltzaile kopurua

Urtebeteko
bidea egin du
Anikote enpresa
publikoak

JM BARRIOLA

Kirol zerbitzua aldatzeko apustua egin zuen iaz Udalak, Anikote enpresa publikoa sortuz. Herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzea izan da helburua eta hori egiteko, erabiltzaileen iritziak kontuan hartu dituzte. Herritarrek instalazio eta ekipamenduen inguruan kezka handia zutela ikusirik, hainbat lan egin dituzte: igerilekua bere osotasunean konpondu dute (130.000 euroko inbertsioa), kiroldegiko egitura, fatxada eta teilatua konpondu dituzte (555.000 euro), erabilerara anitzeko gelan konponketak egin dituzte eta muskulazio gelako ekipamendua ere aldatu dute (60.000 euro).

Ikastaro berriak ere eskaintzen hasi dira, hauetako asko emakumeei zuzenduak eta kiroldegia ordu gehiagoz erabiltzeko aukera ere eman zaie herritarrei. Hobekuntza hauen ondorioz, erabiltzaile kopurua %16 igo da.

Ba al zenekien

Igerilekua ekainaren 17an irekiko dutela. Bonoak dagoeneko eskura daitezke eta igeriketa ikastaroetako izen-ematea ere zabalik dago.

Profila:
CONSERVADOR

ARRISKU ESKALA

TXIKIENA 1 2 3 4 5 6 7 HANDIENA

Gescooperativo Gestión
CONSERVADOR FI
ISIN kodea: ES0174349037
Funtsaren erregistro zk.
CNMVn: 2463
Kudeatzailea:
GESCOOPERATIVO S.A.S.G.I.I.C.
Gordailuzaina:
Banco Cooperativo Español

Profila:
MODERADO

ARRISKU ESKALA

TXIKIENA 1 2 3 4 5 6 7 HANDIENA

Gescooperativo Gestión
MODERADO FI
ISIN kodea: ES0142164005
Funtsaren erregistro zk.
CNMVn: 5034
Kudeatzailea:
GESCOOPERATIVO S.A.S.G.I.I.C.
Gordailuzaina:
Banco Cooperativo Español

INBERTSIO FUNTS PROFILATUAK

Funtsetan ditugun adituentzat,
denok dugu profil on bat

Profila:
DECIDIDO

ARRISKU ESKALA

TXIKIENA 1 2 3 4 5 6 7 HANDIENA

Gescooperativo Gestión
DECIDIDO FI
ISIN kodea: ES0174304032
Funtsaren erregistro zk.
CNMVn: 2465
Kudeatzailea:
GESCOOPERATIVO S.A.S.G.I.I.C.
Gordailuzaina:
Banco Cooperativo Español

Profila:
AGRESIVO

ARRISKU ESKALA

TXIKIENA 1 2 3 4 5 6 7 HANDIENA

Gescooperativo Gestión
AGRESIVO FI
ISIN kodea: ES0142045006
Funtsaren erregistro zk.
CNMVn: 5035
Kudeatzailea:
GESCOOPERATIVO S.A.S.G.I.I.C.
Gordailuzaina:
Banco Cooperativo Español

Agiri honek izatera komertziala du, eta ez da inola ere, ez eskaintzarik, ez harpidetzarako gomendiorik, ez inbertsio arloko finantzaketa-aholkularitarik. Agiriaren dagoen informazioak ez du ordetean kontsultatu beharko duzun lege-dokumentazioa, inbertsio erabakirik hartu baino lehen. Bai Funtsaren folietoa bai inbertsitzailearentzako funtsezko datuak dakartzan dokumentua, bi-biak, kontsultagai daude Rural Kutxako bulegoetan, www.ruralvia.com eta CNMVn. Funtsetako inbertsioen balioa merkatuaren gorabehera dago lotua. Kudeatzailea: GESCOOPERATIVO S.A.S.G.I.I.C. Gordailuzaina: Banco Cooperativo Español.

RURAL KUTXA
cajaruraldenavarra.com

BAZTAN

GIZARTEA → «BAZTANEN ETXEBIZITZA DUINA ESKURATZEKO DUGUN ARAZOARI AURRE EGITEKO»

Lekarozen Nafarroako Gobernuaren eraikin huts bat okupatu dute gazteek

Hizkuntza murgiltze zentroan sartu eta lehengo izen zaharra berreskuratu dute, Abeltégia

TTIPI-TTAPA

Gazte kuadrilla baten Lekarozko kanpuseko Hizkuntza murgiltze zentroa delakoa okupatu dute. «Guk paraje honetako izen zaharra berreskuratu eta Abeltégia deituko diogu, eraikin hau eraiki aitzinetik, hala baitzen, monasterio zaharreko abeltégia», diote ohar batean.

Oharrean aipatzen dutenez, «gazteek Baztanen etxebizitza duina eskuratzeko dugun arazok eragin dute eremu honi gure izaera propioz arnasa emateko nahia eta konbentzimendua. Horrela, bizitza emanen diogu sos nahikeriak sekula sortzen utzi ez dion leku honi».

«Gure soldata prekarioek –diote gazteek– eta diru ahalmenak alde batetik eta etxebizitzaren errenta tasek bertze aldetik ez dute Baztango gazteriaren zati handi baten errealitatearekin bat egiten».

Orain Nafarroako Gobernuko egoitza den hau aukeratu dute urteak daramatzalako hutsik: «Guk arnas emate honen bitartez, etxebizitza eskubidea aldarrikatzeaz gain, nafarrek pairatzen duten prekaritatearen aitzinean horrelako azpiegitura duen eraikin bat hutsik egotea lotsagarria dela salatu nahi dugu. 3.000 metro koadroko egoitza, bulego eta ikasgelekin eta 46 logela baino gehiago... egunkari batzuk argitaratu izan dutenez, orain guti arte bederen 5,4 milioi euroren truke egon da salmentan!».

Espazio honen atekak «lotsarik gabe edekiko ditugula» adierazi nahi dute, herritar guztientako, hortaz ondoko



UTZITAKO ARGAZKIA

Goñi eta Berho Euskal Herriko txapeldun paleta goman

Oronozko Josu Goñi eta Joseba Berhok Euskal Herriko bigarren mailako paleta gomako txapeldun suertatu dira. Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan jokaturako final gogorrean 25-15 irabazi zieten Matxain eta Jaurenari. Finala ikustera herritar aunitz hurbildu zen Oronoztik eta giro polita izan zen Madalensoro pilotalekuko harmailetan. Gero, txapeldunekin batera elkarre batera joan ziren bazkaltzera eta ederki ospatu zuten oronoztarren garaipena. Bi orduko finala gogorra izan baldin bazen, zer erranik ez finalerdia. Orduan, Goñi eta Berhok 25-23 irabazi zieten Goiburu eta Ormaetxeari, bi ordu eta laurdeneko lehia estuaren ondotik. Idiazabalgo txapelketan ere aritu dira Goñi eta Berho.

hilabeteetan eskaintza sozial eta kultural zabalaren prestaketa ahalbidetuko dira. Jende guztia gonbita luzatzen diote antolatuko dituzten ekimen, ikastaroetan... parte hartzera.

«Nafarroako Gobernuak bere garaian nafarren sosarekin egin dako inbertsio astoaren gelditu den etxe huts honi bizitza ematera» etorri direla jakinarazi dute gazteek. «Bertze-

la ere egun hauetan hurbildu lasai lekua eta gu ezagutuzerak, nahi izanez gero proposamenak egiterak. Lekarozko Abeltégiko atekak edekiak baitira denek ordaindu dugun heinean».

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

tanatorios IRACHE

24 ORDUKO TELEFONOA
948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

GIZARTEA → MAIATZAREN 31N

Kontzentrazio partzelarioari buruz aritzeko bilkura Anizen

Honen inguruko kezka aspaldikoa da Baztanen eta onena herri tiki batetik hastea dela uste du Balleko Etxeak

TTIPI-TTAPA

Kontzentrazio partzelarioari buruz aritzeko Gobernuak landa garapen departamenduko teknikariek Anizerat bisitaldia egin berri dute, Balleko Etxearen eskariz. Bilera maiatzaren 31n egin zen eta teknikariek gain Juan Kruz Iriartek udaleko nekazaritza eta herri-lurretako zinegotziak eta Anizko nekazariak parte hartu zuten.

Bisitaldian Anizko

belagi eta lur-eremuak ikusi zituzten eta bideazpiegiturak ere bai.

Teknikarien erraetan Anizko baldintzek kontzentrazio partzelarioa egitea errazten dute. Modu berean, kontzentrazioaren aurrekontua Nafarroako Gobernuak beregain osorik hartzen duela jakinarazi zuten eta, horretarako, aurrekontua zehaztu eta onartu behar dela. Bide horretan herrian batzarra egingen dute eta herritarrek ongi ikusten badute, Baztango Udalak gobernuari eskaera formalak egingen dio. Kontzentrazio partzelarioari buruzko kezka aspaldikoa da.

Legealdi honetan, udalaren ekimenez Amaiurren mintzaldia egin zen eta ondotik, udaleko eta gobernuko arduradunak bildu izan



UTZITAKO ARGAZKIA

Anizko nekazariak, Baztango udaleko ordezkariak eta Gobernuak teknikariak.

dira. Bilera horien emaitza maiatz hondarreko bisitaldi hau izan da. Udalak nekazaritzan ari diren nekazariendako kontzentrazio partzelarioa interesgarria izaten ahal dela uste du eta, horretarako, Baztan osoan aldi berean hasi beharrean, herri txiki batetik hastea hoberena dela pentsatu du. Horregatik lehendabiziko pausuak Anizen eman ditu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Huartekek eta Iñarrekek irabazi zute Antxitoneko paleta txapelketa

Elizondoko Antxitonea trinketeko paleta goma txapelketako finalak jokatu zituzten ekainaren 3an. Lehen mailakoan, Josetxo Huartek eta Cesar Iñarrekek 40-36 irabazi zieten Katti Baylon eta Guillermo Etxenikeri. Bigarren mailakoan, Urrutia eta Goñik 40-34 irabazi zieten Bidegain eta Sansiñenari. Ohikoa denez, finalen ondotik bazkari ederra izan zuten kirolariek, txanpainarekin bustia.

Arotxa



Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18

31730 IRURITA

arotxa.taller@gmail.com

www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK



TOLDOAK ETA MOSKITERAK



**ETXEAK
MERKATARITZA
OSTALARITZA**

BAZTAN

KULTURA → 'SUSTRAIETATIK' IZENBURUPEAN

Lekarozko DBH4ko ikasleek diskoa argitaratu dute

15-16 urteko neska-mutilek konposatu, jo eta grabatu dute

TTIPI-TTAPA

Hasi eta bukatu. Zerorik hasi eta diskoa esku artean eduki arteko prozesu osoa gauzatu dute ikasturte honetan Lekarozko DBH-4ko 30 bat ikasleek musika ikasgai.

Lekarozko ikasleek aipatu digutenez, «diskoan denetara 7 kantu daude, borts edo seiko taldeetan egin ditugu kantak. Hasmentan, ikasle bakoitzak kantu edo melodia bat sortu behar zuen, eta gero, taldeetan, aukeraketa bat egin genuen». 15-16 urteko 30 bat ikasleek prestatu dute diska, eta musika arloan, maila guztietakoak direla onartu dute: «Ikasle batzuek ez dute problemarik izan instrumentuak jotzerako orduan, eskolaz kanpo ikasi dute-lako. Bertze batzuk berri, internetetik tutorialak ikusita edo irakaslearen laguntzaz ikasi dute». Kurtso hasmentan armonia oinarri batzuk eta nola konposatu ikasi zuten, kanta eta estilo ezberdinen analisi eginez. Finale ize-neko programa bat erabiltzen ere ikasi zuten, «programa honen bidez melodiak sortu genituen, ariketa moduan, gero amankomunean jartzeko. Taldeak egin eta eta pixkanaka kantak



UTZITAKO ARGAZKIA

Diskaren grabaketan parte hartu duten Lekarozko DBH4ko ikasleak.

moldatzen, lantzen, ... hasi ginen. Gero hilabeteak eman genituen entsaioetan. Behin kantak ongi ikasi genituela, arratsalde batez grabaketa egin genuen (Protools-ekin)», diote.

SUSTRAIETATIK

Ikasturte osoko lan horren emaitza da 'Sustraietatik'. Baina diskoa ez da salgai izanen. «Ez dugu salduko. Ikasle bakoitzak bi eramanen ditugu, bat guretzat eta bertzea nahi dugunari oparitzeko. Musika de-

partamentuan bat geldituko da eta laguntzaileei ere bana oparituko diegu».

Diskaren azala eta gailera ere 30 ikasleek diseinatu zuten, bakoitzak bat: «Bozketa bidez bat aukeratu eta batxilergoko lehenengo mailako diseinuko ikasleek hori digitalizatu zuten programa bereziki bategin, bakoitzak bere interpretazioa eginez. Berriz bozkatu eta orain diskoan ageri dena da irabazi zuena».

Garbiñe Leiza musi-

ka irakasleak jakinarazi digunez, «ikasleek hasieran uste dut ez zutela sobera sinisten honetan eta gogorik gabe bezala aritu dira prozesuaren zati batean, baina batez ere grabazioa egin genuenetik jarrera eta motibazioa aldatu da eta ilusioa nabaritu diet. Horren aitzinetik ere lana egin dute, instrumentuak jotzen ikasi dute, horrek lana eskatzen du». Zailena nahasketak eta masterizazioa izan direla iruditzen zaio irakasleari.

FLASH

'Emak bakia baita' film emanaldia

'Emak bakia baita' filma eskainiko dute ekainaren 16an, ortziralean 20:00etan Arizkunenean. Filma ikusi ondotik, Oskar Alegria zuzendariarekin solasteko aukera ere izanenda. Kazetaria ikasbidez, kultur programetan erredaktorea eta literaturari buruzko saioen koordinatzailea izan da Telemadriden eta ETBn.

Musika Eskolan matrikulazioa

2017-18 ikasturterako matrikulazio epea irekiko du Baztan Musika Eskolak ekainaren 19tik 23ra, 15:00etatik 18:00etara Musika Eskolako bulegoan.

Hauek dira eskaintzen dituzten espezialitateak: Akordeoia, pianoa, gitarra, klarineta, tronpeta, tronboia, saxofoia, zeharkako txirula, biolina eta txistua. Honez gain, helduen-tzako instrumentu nahiz musika hizkuntza klaseak eskaintzen dituzte, baita musika hizkuntza bukatu duten ikasleentzako harmonia ere. Irailean bertze epe bat irekiko dute (Irailaren 1etik 11ra bitartean).

zergalan | asegi

asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Belateko herri bazkalekuetan sartu baino lehen markatzen dituzte behiak.

ABELZAINZA → EKAINAREN 1EAN

600 behi baino gehiago sartu dira udako herri bazkalekuetan



UTZITAKO ARGAZKIA

Alberto Barberenak eta Vanesa Pachak irabazi dute Iruritako IX. Herri lasterketa

Maiatzaren 28an burutu zen Iruritako Herri Lasterketaren bederatzigarren edizioa. Helduen lasterketan 45 korrikalari atera ziren eta haurren lasterketan 80. Gizonezkoek 7 kilometro eta erdiko lasterketa egin zuten eta emakumezkoek 5 kilometrokoa. Alberto Barberena baztandarrak 25 minutu eta 21 segundo behar izan zituen lasterketa burutzeko. 9 segundoko aldea atera zion Daniel Sanzi (25:30) eta hiru minutu eta erdi baino gehiago hirugarren izan zen Ganih Lasari (28:54). Emakumezkoetan, Vanesa Pachak 18 minutu eta 28 segundoko denborarekin irabazi zuen. Marina Vicente elizondarra bigarren izan zen (19:42) eta Miren Meoki leharroztarra hirugarren (29:30).

Irailaren 20ra bitarte Lizartzu, Belate eta Erdizen alatuko dute behar bezala markatu eta gero

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala Batango herri-bazkalekuetako udako denboral-

dia hasi zen duela aste batzuk Lizartzuko luberrian eta ekainaren 1ean Erdiz eta Belaten. Denetara 600 bat buru sartu dira azken bi haue-tan, gehienak behi azi-endak eta gutxiago Li-zartzun, horietako bat-zuk zaldiak.

Erdizen 400 bat bu-ru sartu ziren, Jon Eli-zetxe, Julian Goñi eta Luismi Mortalena guar-dak eta praktikak egi-

ten ari den Itziar Eratsun gaztea gidari zituztela. Belaten, berriz, 200 bat buru sartu ziren, Juan Cruz Iriarte zinegotzia, Aitor Bazterrika guarda eta praktiketan dagoen Aimar Oskariz gaztea-ren zaindartzapean egin zuten.

BB MARKA

Behi batzuei Udalak emandako marka edo *krotala* jartzen diete abeltzainek joareetan, baina bertze batzuek BB markarekin (Baztan bai-lara) markatzen dituzte.

Belaten Aspinako bi zezen daude eta Erdi-zen, partikular baten ze-zena. Behiak irailaren 20ra bitarte egonen di-ra udako bazkaleku hauetan eta aunitz er-nari bueltatuko dira ba-serrietara. Baztango Udalak 31,16 euro ko-bratzen ditu herri lurre-tan sartzen den behi bakoitzeko eta 26,60 aretxe bakoitzeko.

Gierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ · MUGAIRI

BORDALARRIA
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

Construcciones URBALLO, S.L.
hargin lanak orokorrean

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!

- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teilatuetan esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak:

Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukuluak...

Luis Gaztelu, 6 | 31730 IRURITA | T. 610 367 000 / 610 367 009
c.urballo@hotmail.com

GIZARTEA

DIRU-LAGUNTZAK → NAFARROAKO GOBERNUAK

Baso eta mendiko lanetarako 2,75 milioi euroko laguntza bideratuko du

Toki erakunde, eragile pribatu nahiz sektoreko enpresentzako deialdia

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak 2,75 milioi euro bideratuko ditu, batetik, tokiko erakundeek eta eragile pribatuek sustatutako baso-jarduere-tarako, eta bertzetik, mendiko produktuen lehen aldaketako jarduerak sustatzeko. Helburua da ingurune naturala eta basoetako baldintza ekologikoak zaintzea, sektore estrategikoa sustatuz, landa-ingurunea bizkortzeko.

Isabel Elizalde, Landa Garapeneko, Toki Administrazioeko eta Ingurumeneko Kontseilariak, deialdi hauen edukia aurkeztu zuen Bertizko Jaurerria Natur Parkean ekainaren 5ean, Ingurumenaren Munduko Egunaren harira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Isabel Elizalde kontseilaria, Fermin Olabe eta Gregorio Oyerequirekin Bertizen.

Isabel Elizalde kontseilariak adierazi zuenez, «aunitzetan, basoaren kontzeptua zura eta egurra aprobetxatzearekin nagusiki lotu da. Ikuspegi isolatu hori ez da egokia, erabilera publikoa, paisaia, naturaguneak, espezieak edo habitata, ehiza, ura, landare aromatikoak edo onddoak ere basoaren kontzeptuaren barruan daude».

Landa Garapeneko kontseilariak erran zuen kudeaketarik gabe ez dagoela kontserbaziorik. «Basoen kudeaketairaunkorrak, epeluzera, gure baso-sistemen hobekuntza ekarriko du, horrek dakartzan zuzeneko nahiz zeharkako onura guztiekin. Horrela, landa-populazioak finkatu, lanpostuak sortu eta basoko suteak prebenitu-

ko dira; baita higaduraren kontra borrokatu, material berriztagarriak erabili (esaterako, zura) eta mendekotasun energetikoa txikiagotu ere», adierazi zuen.

Laguntza horiek aukeratzeko irizpideek Natura 2000 Sarean barne hartzen diren baso-lurretan, erabilera publikoko mendietan, antolamenduko mendietan eta baso-kudeake-

ta iraunkorrean ziurtatutako lurretan eginen diren eskaerei lehentasuna emanen diete. Oinarrietan ezartzen den moduan, basoberritze-tan ingurunera egokitu-ta dauden espezieak bakarrik erabiliko dira. Horren harira, kontseilariak aipatu du ezinbertzeko alderdia dela hori klima-aldaketara egokitzeko politiketan. Beraz, basoko lanek, hainbat helbururi emanen diete erantzuna Elizalderen ustez. Horrela, «aurrekontuak hobetuko dira eta diru-laguntza izateari utziko diote, landa-ingurune-ko estrategia oso baten eragile bihurtzeko».

Izan ere, datozen hilabetetan hasiko du Nafarroak finkatzen hurrengo urteetarako baso-estrategia, Nafarroako Basogintza Plan berria zehazten hasten de-nean. «Horri esker, industriak, taldeek, herri-tarrek eta arduradun publikoek ikuspegiak eta estrategia partekatuko dituzte».

NELI YANCI
BIZI eta OSASUN AHOLKULARIA
ASEGURU MOTA GUZTIAK
0007272664074J



Santiago 72B 31700 ELIZONDO
T./F. 948 580 504 • 649 947 182
generalielizondo@hotmail.com

Begiratu aukera gehiago gure web orrian
corneliayanciberrueta.seguros.generali.es

BIZIA, ALT XORRIK EDERRENA

- ✓ Pentsatu zure buruarengan eta zure ingurukoengan
- ✓ Zure osasuna zaintzen baduzu, primaren %43a aurreztuko duzu
- ✓ Zure bikotekideak aseguru egitea erabakitzen badu, deskontu handiak izanen dituzue

100.000€ kapitala:

- 30 urteko pertsona: 82€/urtean
- 35 urteko pertsona: 104€/urtean
- 40 urteko pertsona: 170€/urtean

Especialistak gara pertsonen aseguruak egiten.
Ehun urte baino gehiagoko esperientzia dugu

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa
www.facebook.com/ttipi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN



ZUGARRAMURDI

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 25EAN

Xareta Eguna herrian ospatuko da aurtengoan

Sorginen Museoko hamargarren urtemugaren ekitaldiaren ondotik bazkaria izanen da

- dako aldaketak.*
- 12:00etan: Dantzari ttiki-ien emanaldia plazan
 - 12:30ean: Zugarramurdi eta Sarako jigante mitologikoak.
 - 13:30ean: Museoko 10. urtemugaren ekitaldia.
 - 14:30ean: Bazkaria (25 eurotan txartela salgai). Kanta eta dantaldia barne.

Josebiñe eta Koro

Aurtengo Xareta Eguna gure herrian ospatuko da. Beti bezala, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara eta Ainhoako herritarrak biltzea eta eguna elkarrekin giro onean pasatzea izanen da ospakizun honen xedea eta aurtengo Zugarramurdira egokitu zaio antolatzea. Ekainaren 25ean izanen da, eta hauek ditugu ekitaldiak:

- 08:30ean: Ibilaldi gidatua: *Azkeneko 500 urteetan Xareta* izan-

Oraingoan Kattalinen sartu dira ohoinak

Hamabortz egun pasa dire aitzineko lapurretatik, eta berriz ere ohoinak ibili zaizkigu. Aldi huntan Kattalin jatetxean sartu dire.

Ez da ba, zaindarien faltan izanen. Gorri, urdin, edo berde kolorekoak edozein momentutan eta edozein tokitan agertzen zaizkigu guri, baina ez doike ohoineri ...



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Argazki Rallyko saridunak, Sorginen Museoaren atarian.

EUSKAL HERRIKO LEZEEN EGUNAREN HARIRA EGIN ZEN LEHIAKETA

Oronoz-Mugairiko Josu Inziartek irabazi du Argazki Rallyko sari nagusia

TTIPI-TTAPA

Oronoz-Mugairiko Josu Inziartek irabazi du Zugarramurdi Argazki Rallyko sari nagusia. Euskal Herriko Lezeen Egunaren harira egindako lehiaketan bilduma onenarengatik 100 euro eskuratzeaz gain, Ake-larre gaiari zegokion argazki onarengatik ere Altxatenea jatetxean bi lagunendako otordua eskuratu du.

Izan ere, argazki rallyrako hiru gai aurkeztu zituen Zugarramurdi Garapena elkarte antolatzaileak: *Akelarre*, *Itzalak* eta *Erosioa*.

Aipatu bezala, bilduma onena eta *Akelarre* gaiari zegokion argazki onena Josu Inziartek aurkeztutakoak izan ziren, epaimahaiaren ustez.

Erosioa gaiarekin argazkirik onena Olivier Harotzarenak aurkeztutakoa izan zen eta bi lagunendako otordua irabazi du Herriko Ostatuan.

Itzalak gaiarekin argazkirik onena Fidel Ordoki lesakarrak atera zuen eta bi lagunendako otordua eskuratu du Azketa jatetxean.

Bertze bi sari ere eman zituzten antolatzaileek. Xaretako bizilagun baten argazki onenarendako saria, Kattalin jatetxean bi otordu, Olivier Harotzarenak eskuratu zuen eta gazte mailako argazkirik onenaren saria, Sorginen Etxeko produktu-lotea, Garazi Belda Xurio zugarramurdiarrak eraman zuen.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarinearik
2 km. tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

erran

Mendialdeko Albisteak
TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratiak
elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK

Google play

Download on the App Store

URDAZUBI



UTZITAKO ARGAZKIA

Maria Aurora Larralde atera zuen zenbaki sariduna.

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 5EAN

Kapera Eguna ospatu zuen Dantxarineak

Yves Boucquet izan da 1.500 euroko txekaren irabazlea

Iñigo IMAZ

Azken 6 urteotan, Dantxarineko Merkatarri Elkarteak eta udalak antolatua, auzoan ospatu ohi zen Kapera Eguna berreskuratu da. Besta ekainaren 5ean ospatu zen, Pentekoste besta egunarekin.

Besta goizeko 10etan hasi zen, haurrendako jokoeekin. Zugarramurdi eta Urdazubiko dantza taldeen saioa izan zen gero. Goiz osoan zehar, musika eta animazioa izan zen, Eguerdian txotxari hasiera emanez, sagardoa

eta pintxoak dastatzeko parada izan zen. Lurretara anaien herri kirolak urtero bezala ez ziren falta izan Kapera Egunean.

Santiago Villares alkateak, besta honen garrantzia historikoa azaldu zuen Pantxo Bentan eginiko agerraldian. Izan ere, gerra ondotik muga itxia izaten zenean, Pentekoste egunez bakarrik idekitzen zen. Leku berean, 1.500 euroko txeke baten zozketari ekin zioten eta irabazlea Yves Boucquet izan zen. Ondorioz, ekainaren 5ean, irabazlea deskapoteable batean, eta akordeoilari batek lagunduta, bentaz benta ibili zen Dantxarinean barna, 1.500 euroekin produktu ezberdinak erosiz.



ARGAZKIAK: IÑIGO IMAZ

Ahate jokoa berreskuratu dute Salvatore bestetan

Giro ederran joan dira aurtien ere Salvatore bestak. Berrikuntza nagusia, berriz ere ahate-jokoa ospatu zela maiatzaren 28an, igandearekin. Garaile suertatu zen Aitor Larreta, Elizondon bizi den donostiarra, Gartxot zaldiaren gainean. Bezperan, Salvatore Plazan zikiroa dastatu zuten hurbildutako herritarrek, Irungo Atsegiña elkartearen txarangak alaiturik. Herriko ostatueta barna kalejiran segitu zuten bertaratutako aunitzek. Egunari amaiera emateko, gau partean zingar-jatea antolatu zuten herriko gazteek plazan. Egun horretan, San Migel ere iritsi zen Urdazubira. Eliz-atarian, herriko lurrak eta etxeak bedekinkatu zituzten, hegoalderantz, iparralderantz, ekialderantz eta mendebalderantz begiratzu Javier Aldabe apaizaren eskutik. Hilaren 26an, Herriko Etxearen bazkaria izan zen: udal zinegotziak, apaiza, enpresariak (Durruty eta Angel Bengoetxea), udalaren aholkulariak (Irujo abokatua, Salanueva ingeniaria, Komunikazio arlokoak...) eta inguruko herrietako ordezkariak: Baztan, Zugarramurdi, Ainhua, Sara, Senpere, Ezpeleta, Itxasu eta Etxalar. Bertze ekitaldi ugari izan ziren, baina denak ezin argazkian bildu.

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 2AN

Gaztetxeko taberna inauguratu dute

Arraberritze lanak bururatuta, Koktel eta pintxo gualdia antolatu dute

Pierre BASTRES

Akelarre gaztetxeko kideek estreinaldia egin diote zaharberitutako egoitzako tabernari. Sartzerakoan ikuslariak ohartu dira gela aski ongi apaindua eta moldatua zutela, eta pintxo frango aurkitzen ziren

tabernaren gainean, hala mini burger delakoak nola patata tortillak.

Gaztetxea Oxtikenea etxearen baitan kokatua da, eta badu hilabete bat beharreko lanak finitu dituztela. «Herritarrek ere parte hartu dute eta batzuk lagundu gaituzte aintz» dio Naia, Oxtikeneko kideak. «Azken bi urteetan ortzilarre guziz idekitzen zen taberna, orain aldiz guttiagotan egitea deliberratu dugu» azpimarratu du. Oxtikenekoak elkarte aspaldi ari da es-



kual kulturaren alde, eta egoitza idekitzen dute batzuetan, herritarrek dezaten eskuaraz ari zeko toki bat, maiz besta giroan: Senpereko bestetan, lhauterietan, presoen aldeko ekitaldiak... «Gure helburua da senpertar guziekin harreman onak sortzea, eskual giroa bermatuz» bururatu du Naiak.



ARGAZKIAK: PIERRE BASTRES

Akelarre gaztetxeko taberna berriz ireki dute, arraberritze lanak bururatuta. Pintxo ederrak eskaini zituzten.

HERIOTZA → MAIATZAREN 7AN, 67 URTEREkin

Pantxo Mixelena, Lapurdi 1609eko kidea zendu da

Saratarra zen sortzez, eta Kanbon hautetsia, gizon argia, eskualzale eta abertzale suharra zen

Pierre BASTRES

Pantxo Lapurdi 1609ko kidea zen, 2013an sartu zen elkartean, hain zuen Napoleonzaleek 1813 Urdazuriko bataila ospatu nahian zebiltzan urtean, eta huna berak zer zion

elkarteari igorri zion mezubatean: «Dirudienez hemengo tipo bat ari da karraskan militarren motibatzen hainbat ekitalditan parte hartzeko delako "Bicentenaire Nivelle 1813" ospakizunetan. Ekitaldi frango egitaratuak dituzte eta, hau lastima! herriko etxe askoren laguntzarekin, erran nahi baita diru-laguntza baita ofizialtasun bat hartuz... Harigariena, Amotzeko zubian eta Berako zubian frantses general baten omenez plaka bat pautatzeko xedea daukatela. Gainera "Vascons"

deitzen gaitu frantximent horrek. Nago ez ote genukeen Urdazuriko bataila berria piztu behar, gure jantziekin».

Mixel Mendiburuk dioenez, «bataila berririk ez dugu egin gure jantziekin, hala ere alto eman genien: salaketa frango egin genuen, mintzaldiak, elkarrizketak, irrati, telebista eta biliburu argitaratuz, Napoleonzaleak ixildu. Pantxo gabe ez genuen sekulan holako lanik eginen. Eskertzen dugu. Beti izan da zentzuzkoa, huts egiten gaitu».



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Finalean galdu du SPUCeko gizonen eskubaloia taldea

SPUCeko lehen taldeko gizonen pre-regional mailako finala galdu baldin badute ere, sasoina izigarri ona egin dute, uste baino aunitz hobea. Jokalari guttirik, baina sekulako grinaz eta adiskindantzaz balentria oroigarri zombait erdietsi dituzte. Izan ere, denboraldi erregularreko laugarren postua zutelarik helburu, lehen postura heldu dira. Ondikotz, finalerdia ederki eramanez, ez zaizkio nagusitu ahal izan Oloroneko taldeari finalean, eta 2 tantoz galdu dute, partida gogorra bezain estuaren ondoren. «Gure arteko lagungoari eta prestakuntza fisiko zorrotzari esker eraman dugu sasoin hain ederra» aitortu du Mathieu Larramendi jokalaria. «Ez gara hain damutuak, heldu den urtean gainera mailarat upatuko garela kotz, orain ospatzeko tenorea da» zehazten du.

SARA

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 16AN

Ikasturte bukaerako besta izanen dute eskolan

Ostiralean 18:00etan hasiko da ikusgarria eta gero ostatua eta afaria izanen da

Joana GERENDIAIN

Ekainaren 16 an, os-tiralarekin, eskola publiko haurrek urte bukaerako ikusgarria aurkeztuko dute guraso eta jendeen aurrean. Aurtan, eskolako maila guzietan eskola denboran zirkoa landu dute kanpoko parte hartzaile batzuen laguntzarekin eta eskolako talde pedagogikoarekin, eta beraz lan honen emaitza taularatu dute egun horretan. Arratsaldeko 6etan ikusgarria hasiko da, ondorengo ostatua eta deneri idekitako afari bat antolatua izanen da. Egun horretan, euria egiten baldin badu kiroldegian egingen da.

Esku baloia

Joan den ekainaren 3 eta 4an eskubaloiko finalak jokatu ziren Irissarri eta Kanbon. Aurtan Sarako Urtxintxak-eko bi ekipa finalera iritsi dira: 11 urtez azpikoak eta mutikoak. Urtarrilean hasi eta sasoin ona egin dute mutikoek baina zortarrez galdu egin du-

te 19-16 Buros-eko ekiparen kontra. Saratarrak multxoan etorri ziren haiek sustengatzeraz. Lehen aldiko elkartean ekipa misto bat muntatu da eta emaitza polita lortu dute 11 urtez azpikoek 8-5 irabazi baitute.

Kantaldiak

Ekainaren 22an, ostegun gauez, Erlauntza Sarako abesbatzak kantaldi bat emanen du elizan. Kantaldia gaueko 9etan hasiko da, sartzea 5 eurotan izanen da, urririk 15 urte baino guttiagokoentzat. Ekainaren 28an, asteazkenarekin, esku baloia antolaturik Urkoiko Mendi Xola abesbatza mixtoa entzuten ahalko da elizan gaueko 9etan.

San Josepe eskola

Aurtan San Josepeko ikastolan antzerkia landu dute. Haurrek irakasleen laguntzarekin 3 txerrikumeak obra heien antzerki modura egokituko dute. Istorio horretan 3 txerrikumeei ipuin, marrazki bizidun eta komikietako pertsonaia ezagunak gurutzatzen dituzte, hala nola Txanogorritxu eta amatxi, Dark-Vador, Tarzan, Edurne Xuri eta berte aunitz. Beraien lana Urtarrilean eman dute antzerki astearen karietara eta Saran ere.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Mutikoen taldea txapeladunorde eta 11 urtez azpiko neska-mutikoak txapeldun.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Julene Etxeberri Pachecok Euskal Herriko Eskolarteko bertsolari txapelketaren finalean kantatu du sorterrian

Euskal Herriko eskolarteko bertsolari txapelketa egin dute ekainaren 10ean trinketan. Zazpi herrialdeetako bertsolari gazteak aritu dira kantuan eta horien artean, saratar bat: Julene Etxeberri Pacheco.

EZKONTZAK

Mikel Gereka Zelaia eta Maria Luisa Amunarriz Salaberria, Iturengoak, ekainaren 3an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



Mañolita DAGUERRE MARTINEZ

Beran, 2017ko maiatzaren 15ean, 93 urterekin

Beti irrifarrea zenuen lagunmin gauza denen gaineratik aitzinerat ekin, bizitzari helduaz gogo guziekin. Indar hau utzi duzu betirako gurekin, maite izan zaitugun familiarekin.

ZURE FAMILIA

Egun gogor hauetan gure ondoan egon zareten guztiak
MILA ESKER

SORTZEAK

Maddi Ibarra Bertiz, Doneztebekoa, maiatzaren 31n.

Garazi Obeso Sein, Igantzakoa, ekainaren 2an.

Luken Iziaga Lastra, Sarakoa, maiatzaren 17an.

Itziar Mendiburu Iriarte, Nartartekoa, maiatzaren 17an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN

Urte osoan 24 orduko zerbitzua

Beilatoki zerbitzua Bortzirietan
baita eskualdeko etxeetan ere

T. 948 05 90 90

HERIOTZAK

Marisol Almandoz Otxandorena, Sunbillakoa, maiatzaren 25ean, 60 urte.

Gloria Maisterrena Iturralde, Elbetekoa, maiatzaren 27an, 81 urte.

Mari Karmen Olano Villabona, Leitzakoa, maiatzaren 27an, 67 urte.

Maria Concepcion Sarasola Elizaga, Urdazubikoa, maiatzaren 26an, 60 urte.

Juan Irazoki Etxenike, Zugarramurdikoa, maiatzaren 30ean, 83 urte.

Micaela Portu Maritorea, Erratzukoa, maiatzaren 30ean, 91 urte.

Fermin Elizondo Matxikote, Arantzakoa, ekainaren 3an, 90 urte.

Jose Apezetxea Urrutia, Elizondo-Zigakoa, ekainaren 6an, 90 urte.

Maria Jesus Ródenas Arruti, Irurita-koa, ekainaren 6an, 91 urte.

Paul Fagoaga, Sarakoa, maiatzaren 24an, 91 urte.

Marie Ayez, Sarakoa, maiatzaren 29an, 94 urte.



Aitor DANBORIENA ALZUGUREN

Etxalarren, 2016ko ekainaren 13an
I. URTEURRENA

Gure gau ilunak argituko dituen izarra, buruan bueltak dabilen irriaren oihartzunaren islada. Gure bihotzean beti altxatuko dugun Aitor maitea izanen zara.

ZURE FAMILIA



Aitor DANBORIENA ALZUGUREN

Etxalarren, 2016ko ekainaren 13an
I. URTEURRENA

Bidelagun zintugun jator eta irribartsu orain hortxe zaude zu gure bihotzetan indartsu.

OSABA-IZEBAK ETA LEHENGUSUAK



Aitor DANBORIENA ALZUGUREN

Etxalar, 2016/06/13
I. URTEURRENA

Hire irribarreak eta umore onak gure artean segitzen dik

HIRE KUADRILLA



HERRI KIROLAK → EKAINAREN 4AN AZPEITIAN

Irune Izkue eta Etxeberria II. Urrezko Aizkolariak

Maila nagusian Atutxa II. izan zen txapeldun

du lehen edizioa eta 23 urtez beheitiko kategorian, Zigako Joxean Etxeberriak.

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 4an jokatu zen Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan banakako Urrezko Aizkora txapelketaren finala. Maila nagusian, Aitzol Atutxa bizkaitarra nagusitu zen, Iker Vicente, Ugaitz Mugertza eta Jon Rekondo leitzararren aitzinetik. Emakumezkoetan, Elgorriaga Irune Izkuek irabazi

Kategoria nagusian, bi lehenbiziko probetan Jon Rekondo izan zen onena, baina ondoko proba luzeagoetan, faboritoak hasi ziren gailentzen. Azkeneko proban, aizkolari bakoitzak bi kana-erdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat moztu behar izan zituen. Iker Vicente izan zen onena, 18 segundo aterra zizkion Atutxari, baina ez zuen aski izan



ARGAZKIA: UZTARRIA

Etxeberria II, Izkue, Atutxa II, Zelai III eta harri jasotzen nagusitu zen Mikel Lopetegi.

bizkaitarraren denbora hobetzeko. Azkenean, Atutxak 26 minutu eta 42 segundo behar izan zituen lan guztiak burutzeko; Vicentek 19 segundo gehiago, 27 minutu eta segundo bat; Mugertzak 30 minutu eta 43 segundo eta Jon Rekondo leitzararak, mutrikuarrak baino 7 segundo gehiago, 30 minutu eta 50 segundo.

EMAKUMEETAN IZKUE

Emakumezkoetan, Irune Izkue eta Berako Nerea Sorondo aritu ziren eta Elgorriagakoa nagusitu zen hiru probetan. Lan guztiak burutzeko 10 minutu eta 31 segundo behar izan zituen eta Berakoak 12 minutu eta 50 segundo.

23 urtez beheitiko kategorian, Zigako Joxean Etxeberriak mende-

an hartu zuen Kañamares IV. Etxeberriak 15 minutu eta 38 segundoan egin zuen lana eta Oier Kañamaresek 17 minutu eta 36 segundoan.

19 urtez beheitikoan Zelai III. nagusitu zitzaion Kañamares V. ari eta harri jasotzen Mikel Lopetegik mendean hartu zuen bere irakaslea, Ize-ta II.

SKEET OLINPIKOA → PRESIDENTE KOPA ERE IRABAZI DU LESAKARRAK

Itsaso Fagoaga 10. aldiz Espainiako txapeldun

Emaitzekin kontent dago, entrenatzea zail badu ere

TTIPI-TTAPA

Maiatza emankorra izan da Itsaso Fagoaga lesakarrantzat. Maia-tzaren 6an Espainiako Presidente Kopa izan zuen Valladoliden eta txapeldun izatea lortu zuen. «Aitzinetik Erregearen Kopa ospatu zen Madrilén baina lanagatik ezin izan nuen joan»,

aipatu digu Fagoagak. Maiatzaren 14an Euskadiko txapelketa izan zen Irungo San Martzial tiro zelaian. Nesken kategorian txapeldun izan zen Itsaso Fagoaga eta orokorrean, emakume eta gizonezkoak kontuan hartuta hirugarren izan zen 75tik 65 plater puskatuz. Azkenik, maiatzaren 27an, Espainiako txapelketa izan zuen Madrilgo Pinto tiro zelaian. 75 plateretik 66 puskatu ondotik txapeldun suertatu zen bertan ere. Itsaso Fa-

goagaren erranetan, «aurten lanagatik konplikatuagoa izaten ari da alde batetik entrenatzea eta bertetik txapelketa guztietan parte hartzea. Tuteran lanean ari naiz eta hemen ez dago entrenatzeko lekurik; horregatik ezin izan dut nahi adina entrenatu. Hala ere emaitzekin hagitz kontent nago, ez baitut erritmoa galdu eta espero dut abuztuan gelditzen zaidan txapelketa ere hau-ek bezain ongi ateratzea».



UTZITAKO ARGAZKIA

Espainiako txapelketa irabazi du aurten ere Fagoagak.

MENDI LASTERKETAK → EKAINAREN 3AN LEITZAN

633 kirolarik parte hartu zuten EH Mendi Erronkan

Alvaro Ramos eta Irene Guembe izan dira irabazleak

TTIPI-TTAPA

Salamancako Navafrías herriko Alvaro Ramos Peña nagusitu zen ekainaren 3an Leitzan hasi eta bukatu zen Euskal Herria Mendi Erronkan bosgarren edizioan. 67 kilometroko mendi lasterketa egiteko 6 ordu, 56 minutu eta 14 segundo behar izan zituen. Emakumezkoetan, Zizurko Nagusiko Irene Guembe Ibañez izan zen bizkorrena, 8 ordu, 30 minutu eta 8 segundoko denborarekin. Dortsala jaso zuten 750 lasterkarietatik 633 aterra ziren Leitzako plaza-tik, horietatik 22 ema-

kumezkoak eta euriari eta behe-lainoari aurre egin zioten.

Gizonezkoetan, Ramosen atzetik, Arkaitz Muños bilbotarrak (7:00:17) eta Manttaleko Unai Santamaria hernaniarrak (7:07:07) osatu zuten podiuma.

Emakumezkoetan, Guemberen ondotik, Alkizako Monica Grajera izan zen bigarren (8:51:24) eta Amaia Ochoa de Alda donostiarrak hirugarren (9:40:02).

Eskualdeko korrikalariei dagokienez, Leitzako Iban Bengoetxea Cousillas izan zen bizkorrena, hamabigarren sailkatu baitzen (7:37:55). Xabier Maritxalar lesakarra hemeretzigarren izan zen (7:43:49) eta Mikel Altadill leitzarra hogeita batgarren (7:45:40).



UTZITAKO ARGAZKIA

Zizurko Irene Guembe, lehen emakumea helmugan.

Ibilbidearen barrenean egin den Kilometro Bertikalean, berriz, Uharte Arakilgo Jose Luis Beraza (00:54:37) eta Irene Guembe Ibañez bera (1:12:50) izan ziren bizkorrenak.

Aurten, Euskal Herriko Mendi Federazioak Txapelketa konbinatua antolatu du, 3 proba prestatuz. Apirilean izan zen lehenbizikoa, Aloñako proba lineala, Leitzakoa bigarrena eta irailean izanen da hirugarrena Beriaingo proba bertikala. Txapelketa konbinatuko txaleko bana jaso zuten Mendi Erronkako irabazleek Mendi Federazioaren eskutik.

OMENALDIA

Mendi lasterketari ekin aurretik, antolatzaileek omenaldia eskaini zioten Juan Maria Feliú Dord mendizaleari. Haren ibilbidea eta mendiarekin zein Euskal Herriarekin duen konpromisoa eskertu nahi izan zioten.

Azpimarratzekoa eta eskertzekoa da lanean aritu ziren laguntzaile guztien borondatea, ezinbestekoa izan baitzen haien parte-hartzea guztia behar bezala prestatzeko. 450 boluntariok, bat egin zuten antolakuntzan, eta guztiak aritu ziren lanean egun osoan, baita aurreko egunetan ere.

ESKUALDEKOAK

- 12 Iban Bengoetxea-Leitza
- 19 Xabier Maritxalar-Lesaka
- 21 Mikel Altadill-Leitza
- 26 Gorka Bermejo-Leitza
- 35 Daniel Parraga-Leitza
- 55 Haritz Aranzegi-Leitza
- 56 Aritz Alunda-Baztan
- 58 Julen Lizarraga-Leitza
- 70 Daniel Iparragirre-Arantza
- 71 Xuban Eugi-Baztan
- 85 Eneko Andueza-Leitza
- 86 Josu Zestau-Leitza
- 87 Arkaitz Nieve-Leitza
- 109 Txus Unсион-Bera
- 196 Adur Bernaola-Leitza
- 210 Pello Kanflanka-Leitza
- 229 Mikel Saralegi-Leitza
- 326 Iker Barandarrain-Areso
- 339 Iker Gomez-Leitza
- 340 Eneko Gorostiaga-Ezkurra
- 360 Iñaki Sagastibeltza-Leitza
- 361 Aitzol Fernandez-Donamaria
- 411 Aitor Artola-Leitza
- 412 Miguel Olano-Leitza
- 436 Jon Zabaleta-Leitza
- 437 Jokin Mariezkurrena-Ezkurra
- 452 Mikel Saenz-Leitza
- 453 Alex Salaberria-Goizueta
- 474 Zigor Sagardui-Goizueta
- 497 Igor Aldaia-Leitza
- 501 Aitor Huizi-Leitza
- 506 Harkaitz Delgado - Leitza
- 509 Javier Lizartza - Leitza

GIZONEZKOAK NAHIZ EMAKUMEZKOAK, EUSKAL HERRIKO TXAPELKETARAKO BINA TXARTELEN BILA

Nafarroako koxkor biltze txapelketak jokatu dira ekainaren 18an Uharten

TTIPI-TTAPA

Nafarroako gizonezkoen eta emakumezkoen koxkor biltze txapelketak jokatu dituzte ekainaren 18an, igandean 13:00etan Uharten. Gizonezkoen txapelkunak, txapela ez ezik, Nafarroako selekzioarekin irailaren 9an Saran jokatu den 7 herrialdeen arteko txapelketan parte hartzeko eskubidea izanen du. Emakumezkoetan nahiz gizonezkoetan, lehen bi sailkatuek Euskal Herriko txapelketan ere parte hartu ahal izanen dute.

Bosna kirolari ariko dira lehian, bi lerotan 1,25 metrotara jarriak dauden 50

koxkor biltzeko lanean. Gizonezkoen artean, gaur egungo txapelduna den Anizko Unai Iantzi, Etxalarako Iñigo Lasaga, hamar aldiz Euskal Herriko txapelduna eta errekorra duen Berako Fernando Etxegarai, Arostegiko Imanol Kañamares eta Txantreako Aitor Blanco ariko dira. Emakumezkoetan, Euskal Herriko txapela hamalau aldiz irabazi duen Maika Ariztegi iturendarra izanen da eskualdeko ordezkaria eta berekin batera, Eltsoko Ainhoa Iraizoz, Txantreako June Etxeberria eta Antsoaingo Irune Biurrun eta Saioa Zurbano ariko dira norgehiagokan.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Unai Iantzi iaz 7 Herrialdeen txapelketan. Aurten ere txapeldunak lortuko du txartela.

ekainak 15 - 29

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Kontzertuak



BERA | 2017.07.01

'Mexikotik kantari' ETB1eko programa Berara ailegatuko da

Mexikotik kantari ETB1eko programaren barrenean, Mariachi imperial Elegancia mexicana taldeak kontzertua eskainiko du Herriko Etxeko plazan. 21:30ean hasiko da saioa.

Ospakizunak



DONEZTEBE | 2017.06.17

Futbol Taldeak egun osoko besta antolatu du

Haur, gazte eta gurasoen futbol partidak antolatu dituzte egunez, eta eguna boro-biltzeko merendua, triki-poteoa eta herri-afaria izanen dituzte. Gaez, berriz, dantzaldia Gabezin taldearekin.

Kontzertuak



ARIZKUN | 2017.06.23

Esne Beltza eta Tirri&Tery aurtengo Arizkun Rock jaialdian

Arizkongo besten barne, aurtan ere kontzertuak antolatu dituzte herriko gazteek. 23:30etik aitzinera eta dohainik Esne Beltzak emanaldia eskainiko du eta Tirri&Tery ere han izanen da giroa alaitzen.

Hitzaldiak

BERA

Siriako errefuxiatuen inguruan solasean

Ekainaren 16an Isabel Erkiaga eta Joxean Ortegarain. 18:00etan Beralandetan.

Tailerrak

LEITZA

Autodefentsa feminista

Ekainaren 16an eta 17an doan.

Erakusketak

ELIZONDO

Juan Luis Torralbaren margoak Arizkunenean

Ekainaren 17ra arte.

Antzerkiak

LEITZA

'Telesforo ez da Bogart'

Ekainaren 17an 19:00etan Zineman.

DONEZTEBE

'Lisistrata' emanaldia

Ekainaren 18an 18:30ean Zineman.

Kontzertuak

SARA

Goraki abesbatza

Ekainaren 15ean 21:30ean elizan. Sartzea 10 eurotan.

Erlauntza abesbatza

Ekainaren 22an 21:00etan elizan. Sartzea 5 eurotan (15 urtetik beheiti urririk).

Mendi Xola abesbatzaren emanaldia

Ekainaren 28an 21:00etan elizan.

ARANTZA

Txamukos mariatxi taldea

Ekainaren 16an Burlada jabetxean.

DONEZTEBE

Musika Eskolako en saioa

Ekainaren 19an eliz atarian 18:00etan.

ARIZKUN

Arizkun Rock 2017

Ekainaren 23an 23:30etik aitzinera Esne Beltza eta Tirri & Tery. Kontzertuak dohainik.

BERA

Kherau musika taldea

Ekainaren 24an 20:30ean Altzateko Plazan.

Mariatxiak

Uztailaren 1ean 21:30ean Herriko Etxeko plazan.

ELIZONDO

Musika Eskolako en saioa

Ekainaren 20an 17:30ean Zahar Etxean.

ZUGARRAMURDI

Sinfonietta Academica orkestraren kontzertua

Ekainaren 24an 20:00etan lezean. Bere 25. urteurrena ospatzeko kontzertu bakarra eskainiko du.

Dantzak

SARA

Euskal dantzak

Ekainaren 2an Zazpiak Bat taldea 19:00etan frontoian.

Ospakizunak

ETXALAR

Haurren Eguna

Ekainaren 16an eta 18an.

PROPOSAMENA

ZUGARRAMURDI

Xareta Eguna ekainaren 25ean ospatuko dute

Zugarramurdik hartuko du aurtengo Xareta Eguna eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte horren harira. 08:30ean ibilaldi gidatua antolatu dute; 12:00etan dantzari ttikiek emanaldia eskainiko dute plazan eta ondotik Zugarramurdi eta Sarako erraldoi mitologikoak ibiliko dira. 13:00etan Museoko hamargarren urtemugaren ekitaldia egingen dute eta 14:30ean bazkaria. Dantzaldia ere izanen da.



LEITZA

Independistak Sarearen Eguna
Ekainaren 16an.

SARA

Eskola publikoaren besta
Ekainaren 16an 18:00etan
eskola publikoan.
St Joseph eskolaren besta
Ekainaren 24an 18:00etan
kiroldegian.

DONEZTEBE

Futbol Taldearen Eguna
Ekainaren 17an. Egun
osoko besta.
Erreka Guraso Elkartearen
besta
Ekainaren 18an.

ZUBIETA

Oritzako festa
Ekainaren 17an.

ARANTZA

Galdeketaen harira, egun
osoko besta
Ekainaren 18an.

ZUGARRAMURDI

Xareta Eguna
Ekainaren 25ean.

Zinema

ELIZONDO

Emak bakia baita filma
Ekainaren 16an 20:00etan
Arizkunenean, Oskar Alegria
zuzendariarekin.

Bestak

ALMANDOZ

Herriko bestak
Ekainaren 14tik 18ra.
Xehetasunak 678. alean.

ARIZKUN

Sanjoanak
Ekainaren 22tik 26ra.
Xehetasunak gehigarrian.

SALDIAS

Sanjoanak
Ekainaren 23tik 25era.
Xehetasunak 24. orrialdean.

Nire aukera



Izaro ARIZTEGI BERAU
Iturengo gaztea

*«Etorkizunean hezitzaile on bat
izatera ailegatzea da nire ametsa»*

Bere herriari ongi lotuak ditu sustraiak Izarok: «20 urteko neska alai eta lotsatia naiz, baina bereziki arrunt ituren-darra» erranez aurkeztu du bere burua. Iturengo Lasaga auzoan bizi da eta herriko txororik berezienaz galdetuta «auzoaren bukaeran dagoen ur-jauzia» aipatu du, izan ere: «txoko horri lotutako milaka bizipen eta oroitzapen dauzkat buruan». Haur Hezkuntzako goi-mailako zikloko ikasketak egiten ari da eta aspalditik argi zuen hori zela bere bokazioa «betidanik oso umezalea izan naiz eta garbi nuen hori ikasi nahi nuela. Etorkizunean hezitzaile on bat izatera ailegatzea da nire ametsa». Eta horretarako, ikasketak bukatzean, formatzen segitzeko asmoa du: «haurrekin lan egiteko ongi prestatu beharra dut».

Euskal kultura ere asko gustatzen zaio «bereziki dantzak. Sei urte-ekin hasi nintzen euskal dantzak ikasten herriko dantza taldean eta oraindik ere bertan segitzen dut». Dantzekin batera, futbola ere maite du eta ikusi soilik ez, «pare bat urtez Doneztebeko nesken taldean jokatzeko aritu nintzen».

Astea liburu artean eman ondotik asteburu ailegatzen denean: «edozein plan da ona konpainia ona denean!» erran du irrika. Bidaiatzea ere ikaragarri gustatzen zaio: «toki berriak ezagutu eta esperientzia berriak bizi-tzea». Eta mendi artean gustura bizi den arren, oporretarako helmuga aukeratzerakoan itsasoa ez du urruti izaten: «bertako giroa erlaxazio iturria izaten baita niretzako». Orain arte bisitatu dituen tokien artean, «Italiak sortu dit ikusmin gehien. Baina paisaia eta hondartzen aldetik, Menorca gomendatuko nuke, dudarik gabe». Ikasturtea bukatuta, hurrengo bidaia burutan du, «Cadiz aldera joatea pentsatu dut eta, garbi daukat ez naitzela joanen mailetan nire argazki kamara sartu gabe».

Etorkizunari buruz hitz egiten hasitakoan baikortasunez solasten du «ez naiz batere ezkorra eta espero dut gauzak hobera joatea». Bitartean, hezitzaile izateko prestatuz, zorientsu izaten segiko du, gutxi behar baitu horretarako: «nire ingurukoak ongi ikustea, beraiek dira eta nire altxor preziatuena».

**«Lasaga auzo
bukaeran dagoen
ur-jauzia berezia
da niretzat. Txoko
horri lotutako
milaka bizipen
eta oroitzapen
dauzkat buruan».**

DONEZTEBE

Sanpedroak
Ekainaren 28tik uztailaren
2ra. Xehetasunak
gehigarrian.

ERRATZU

Sanpedroak
Ekainaren 28tik uztailaren
1era. Xehetasunak
gehigarrian.

ARESO

Sanpedroak
Ekainaren 29tik uztailaren
1era. Xehetasunak 40.
orrialdean.

Azokak

SARA

Bertako ekoizleen azoka
Ortziralero 16:30etik
20:30era frontoian.

ELIZONDO

Bertako artisauen azoka
Ekainaren 17an plazan,
goizez.

Lehiaketak

ITUREN

Bestetako kartel lehiaketa
Ekainaren 22ra arte
aurkez daitezke lanak.

LEITZA

Plazaola aldizkarirako azal
lehiaketa
Ekainaren 30era arte
aurkez daitezke lanak.

ARANTZA

Bestetako egitarauaren azal
lehiaketa haurrentzat
Uztailaren 3ra arte
aurkez daitezke lanak.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Mendigoizaleen irteerak
Ekainaren 18an Baztan
herriz herri. Almandoztik
06:30ean abiatuta.

Ekitaldi gehiagoren berri
izateko, begiratu:
erran.eus (agenda)

ETXEBIZITZAK**salgai**

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 57.900 euro. ☎646 774117.

ITUREN. Neurri desberdinetako apartamentuak hagitz prezio interesgarrian salgai. ☎948 451337 / 667 275013.

ANZABAL**INMOBILIARIA****BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisua, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.


Tel. 948 580 804

anzabal@anzabal.com

ORONÓZ-MUGAIRI. Pisua salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mobleztatua, margotu berria, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukalde eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. ☎948 585036.

ETXEBIZITZAK**errentan emateko**

HENDAIAn dagoen mobil-home bat errentan

**MERKATU TTIKIA****948 63 54 58**

info@titi.eu edo erran.eu

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

emateko asteburuetarako edo asteka. ☎667 308826.

BERA. Itzea karrikan apartamentua errentan emateko. ☎609 973306.

IGANTZI. Pisua errentan emateko herri erdian. Sukaldea eta despentsa, egongela, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi eder, hagitz argitsua. Trastelekua ere bai. Mobleztatua eta sartzeko prest. Baratzea egiteko aukera. ☎620 997794.

ETXEBIZITZAK**errentan hartzeko**

BERA. Baserria errentan hartu nahi da. Lan finkoa eta seriotasuna. ☎635 707731.

ETXEBIZITZAK**konpartitzeko**

Mikel naiz Iruñeko gazte euskalduna. Uztailean hiru astetarako **baserri bat**

aurkitu nahiko nuke, **mantenuaren truke** baserriko lanetan lagundu eta **euskara hobetzeko**. ☎629 010034.

LANA**eskaintzak**

On-line lanean aritzeko zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertze langileak behar dira. ☎699 382673.

IGANTZI. La Villa jate-txean kamarera estra behar dugu asteburu batzuk, erreserba haundiak eta jai egunetarako. ☎634 592788.

ETXALAR. Herriko Ostatuan zerbitzaria behar da asteburuetan. Euskaraz jakitea beharrezkoa. ☎948 635465. Edo bidali curriculumak info@etxalarherriko.eus helbidera.

Sukaldeko altzariak salduko dituen **komertziala** behar dugu. Beha-

rezkoa da frantsesez jakitea. Ordutegiaz so-lastuko gara. Bidali curriculumak: amets@muesblesamets.com.

ELIZONDO. Juli ostatuan pertsona bat behar da mahaia zerbitzatu eta barran aritzeko. Sukaldean dakiena. ☎647 650248 / 628 054435.

DONEZTEBE. Eroski City-n esperientzia pixka bat baduen pertsona bat behar da arraindegian lan egiteko. ☎948 456152

BAZTAN. Jatetxe batean ostalaritzan esperientzia duen langilea behar dute udan lan egiteko. ☎619955709 / 600 731781.

DONEZTEBE. Titi ostatuan sukaldean aritzeko langilea behar da, lanaldi osoan aritzeko. Interesatuak estatutik pasatu behar dute.

LESACA. Atxaspi hotelean bi langile behar dituzte: langile bat goizez, gosariak prestatu eta garbiketa egiteko. Bestea goiz eta arratsalde, harrera lanak eta marketing lanak egiteko. Bidali curriculumak: ali@atxaspi.com helbidera edota deitu telefonoz. ☎673 339920.

IRUN. Ostatu batean esperientzia duen zerbitzaria behar da udan lan egiteko. ☎629 676284.

BERA. Frantses pixka bat dakien pertsona behar da Larungo benta batean udan lan egiteko. ☎948 631100 / 607 566022.

LANA**eskariak**

Haurrak zaintzen edota animaliekin lan egiteko interesa duen **neska lan bila** Haur Hezkuntzako titulazioarekin (praktikak zenbait haur eskolatan eginak). Disponibilitate osoa ekainaren 16tik aurrera. ☎675 336624.

Batxilergoa egiten ari den neska bat naiz eta udan honetan **Beran haurrak zaintzeko prest** nago. ☎608 406318.

Garbiketa lanetan **esperientzia handiko emakumea** lan bila. Adinekoak zaintzen ere esperientzia handia duena. Garbiketa lanetarako edota adinekoak zaintzeko prest. ☎644 841583.

Zaintzetan esperientziadun emakumea lan bila. 20 urteko esperientzia

BASERRIADATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(maiatzaren 26tik ekainaren 2ra bitarteko prezioak)

Zerrikumea
(19 kilo): 72 €

Zerri gizena
1,375 € kiloak.

Zerramak:
0,810 € Kg/bizirik.



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,32

1.koa 4,10
2.koa 3,90

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,34
1.koa 4,20
2.koa 4,00

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 160,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 185,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,26/3,36
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 6,00/6,60
8-10 kilokoak: 5,30/5,80

adinekoak zaintzen baita desgaitasuna duten pertsonak zaintzen ere. Adinekoak edota ezinduek orduka edota interna moduan zaintzeko prest. ☎693 452481.

Emakume batek **interna moduan adineko jendea zaintzen** lan eginen luke. Arduratsua eta esperientzia handia duena. ☎696 812598.

BAZTAN. Haurrak zaintzen edota animaliekin lan egiteko interesa duen Baztango neska lan bila Haur Hezkuntzako titulazioarekin (praktikak zenbait haur eskolatan eginak). Disponibilitate osoa ekainaren 16tik aurrera. ☎675 336624.

Udan haurrak zaintzeko interesa duen neska beratarra naiz. ☎648 530557.

Ostalaritzan esperientzia handiko **emakumea lan bila:** ostalaritzako negozioen kudeaketa, 30 urteko esperientzia barran, sukalde languntzaile bezala esperientzia, zerbitzari, garbiketa lanetan ere aritua. Adinekoak edota haurrak zaintzen ere esperientziaduna. Arratsaldeetan disponibilitatea. ☎646 330956.

Majisteritza ikasten ari den **Doneztebeko neska euskaldun** bat umeren bat zaintzeko prest. ☎689 837760.

Berako neska euskalduna eta hurrekin esperientzia duena, uztailan arratsadez eta abuztuan goiz eta arratsaldez Bortzirietan haurrak zaintzeko prest. Euskaraz, erdaraz eta ingelesez solasten dut. ☎676389481.

ZERBITZUAK psikoanalistak

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordura
☎ 948 272011 (IRUÑA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO



KATEA BIKE
2. eskuko bizikletak

Kantlonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
kateabera@telefonica.net

ZERBITZUAK zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 066 - 647 810 144
Gorriibaita - ARANTZA

MOTORRAK ailerrak

GANIX
Tallerra

948 63 06 69
Zalain Pol., 11 - BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

ANIMALIAK oparitzeko

Katakumeak oparitzeko. ☎626 335398.



Bost hilabeteko **Border Collie zakurra** opari. ☎675 336624.

BERAKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKORDIOA
—HIRIGINTZA—

Udaleko Tokiko Gobernu Batzordearen akordioa, 2017ko maiatzaren 4koa:

UE1eko exekuzio unitatea (3. poligonoko 274. lur-zatia) zehazteko aldatzeko proiektua hasiera batez onestea.

Espediente hau jendarean izanen da 20 egunez, dagokion iragarkia NAOan argitara ematen denetik.

Bera, 2017.05.30

ALKATEA,
Josu Iratzoki Agirre

LEITZA. Collie arrazako txakurkumeak oparitzeko. ☎948 610689 / 636 022311.

Zakurkume mistoak oparitzeko. Bi hilabetekoak. Ama Breton epagneul arrazakoa eta aita Border Collie. ☎660 466280 (deiak, sms edota whatsapp).



DENETARIK salerosketak

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

ORONÓZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramane da. ☎676 242520.



IRUN. Taxi lizentzia salgai. ☎653 011145.

DONAMARIAKO UDALA

Donamariako Ostatuaren alokairua

Udalak, erabaki du lehiaketa publikoaren bidez **Donamariako Herriko Ostata** errentan ematea (2. deialdia). Bertzeak bertze, baldintza hauek arautuko du:

- Alokairuaren iraupena: 2 urte, luzatzeko aukerarekin.
- Hilabeteko errenta: 360 euro/hilabetea gehi BEZA.
- Lehiaketan, bideragarritasun plana, eskarmentua, hobekuntzak eta diru eskaintza baloratuko dira.
- Behin-behineko fidantza: 360,00 euro.
- Eskaintzak aurkezteko epea: **2017ko ekainaren 23an, 14:00ak arte.** Eskaintzak Donamariako Udaleko Idazkaritzan aurkeztuko dira, horretarako onetsitako administrazio baldintzen agiriari adierazten den gisara.

Administrazio baldintza partikularren agiria interesdunen eskuradago Udal Idazkaritzan. Informazio gehiago, korreo bat bidaliz helbide honetara udala@donamaria.es eta 948-450046 telefonora deituz (astelehena eta ortziralea 12:00-15:00etara, eta asteazkenetan 08:00-15:00etara).

Donamarian, 2017ko maiatzaren 26an
Alkatea, Maite Urroz Oyarzabal

DONEZTEBE. Haritz egurra salgai, 39 euro tonana. Prezioa Donezteben jarria da. ☎686 314036 (deitu 09:00-13:00 edo 15:00-17:00 astetartez).



Mahaia salgai bere sei aulkiekin. Hagitz egotera eta prezio onean. ☎685 764400.



IGANTZI. logela salgai: bi ohatze (90 cm) beren koltxoi eta koltxeekin, mesanotxea (3 kajo), idaz-mahaia aulkiarekin eta apalak. Pinuzkoa, berdez tindatua. Guztia 500 euro. ☎661 767398.

DENETARIK galdu-aurkituak
DONEZTEBE. Maiatzaren 19an Desigual mar-

kako kazadora beltz bat galdu zen Doneztebeko udaletxe atarian. ☎669 411664.

ETXALAR. Carmen eleberraren bertsio zahar bat galdu da plazatik usategietara doan bidean dagoen aparkaleku ttikian. Azal gorria du, idatzirik eta marrazkirik gabekoa. Zaharra bada ere, balore sentimental handia du. Honen berririk baldin baduzue, jar zaitezte kontaktuan, faborez. ☎661 155056.

GOIZUETA. Herriko Plazan giltza batzuk aurkitu dira. Galdu dituen Goizuetako Udaletxera joan daiteke biltzera. ☎948 514006.

ARANTZA. Antiojo graduatuak aurkitu dituzte. Herriko Etxean daude.




744 484 361
ttipi-ttapa

ZUHAITZEKO ETXOLA

Etzetik gertu, etxolatxo bat egin dute Maripurtzilek eta Pellozirik, lagunekin elkartzeko. Baina, baina, hori da anabasa!




Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

JOLASTU INTERNETEN!! AUKERA ZABALA!

plazanbazan.eus



KIOSKOA | JOLAS-PARKEA | AZOKA | UDALETXEA | IKUSKIZUNAK | IPUINAK | KOMIKIAK | MARRAZKIAK
SUDOKU, MARGOTU, OSATU, PUZZLEAK, ALDEAK, ARROTZA, BAKOITZARI BEREA, BILATU, DOMINGO, EZETZ ASMA,
GOGOAN HARTU, HANDITIK TXIKIRA, IRUDI ENCAINARIAK, ITZALAK, LABIRINTOA, LERROA EMAN...



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

MARIPURTZIL

PELLOZIRI



Ea aurkitzen dituzun elementu hauek:

lore gorria

dortoka



tutua edo biberioia

erlea



Beste elementu hauek ere:

- Txiklea
- Pelloziriren ordenagailu eramangarria
- Bi tximeleta
- Eskuargi bat
- Bi sagu
- Barraskilo bat
- Igela
- Plastikozko ur botila
- Hontza
- Txerrikumea
- Sugea

ZEEER?!

Ui, ene! Baina zer demontre dio Maripurtzilek?!

Konturatu zara? Alderantziz ari da hizketan...

Esaten ari denari taxua hartzen ez badiozu, jarria orria ispiluaren aurrean eta berehala asmatuko duzu esaldia.

HAU NAZKA!
ARMIRMA BAT
DAGO ISPILUAREN
ONDOAN!!!



ITZALA


Zein da mendigoizaleari dagokion itzal zuzena 8 hauen artefik?



urtebetetzeak

Argazki soilak: 5€; bikoitzak: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,50€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekia; 4) erran.eus bitartez



ELIA MINDEGIA ARANBURU lesakarrak ekainaren 8an 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxuak neskak alaiari familia eta bereziki Kattalin-en partetik!



Zorionak ATTA, ekainaren 28an urteak beteko dituzulako. Muxu haundi bat ama eta berexiki zure bi nexken partetik. Ongi pasa eguna!



Urdazubiko ALIZIA OLAIZOLA urteak bete ditu ekainaren 2an. Zorionak eta besarkadak! Eta muxu handi bat zure seme Pablari Sunbilitatik.



JARE IPARRAGIRI ARRETXEAK etxeko loritoak 2 urte bete ditu ekainaren 12an. Muxu potolo bat Bera eta Sunbilitako familiaren partetik.



FERNANDA PETRIRENAK ekainaren 20an 62 urte beteko ditu. Zorionak ...ren partetik!



OINATZ SARRATEA ARRETXEAK maiatzaren 27an urte bat bete zuen. Zorionak!!! Zein fite pasatu den urtea!!! Muxu pottolo bat familiaren partetik, eta bereziki zure anaia Julenen partetik.



Oronozko OLAIA, EGOI eta NORA OTXANDORENA PETRIRENAK anai-arrebek 8, 5 eta urte bat beteko dituzte ekainaren 26, 19 eta 4an. Muxu erraldoi bat familia guztia partetik, eta batez ere aitako eta amakoren partetik. Oso ongi pasa zuen egunean, maite zaituztegu!!!



Elgorriagako AIALA BERTIZ ETXEBERRIAK ekainaren 24an 2 urte beteko ditu. Zorionak etxeko printzesari familia eta berexiki, atia, ama eta Aimarren partetik.



Elgorriagako MAITANE MARIEZKURRENA MIGELTORENAK ekainaren 10ean 11 urte bete ditu. Zorionak eta aunitz urtez gure txapeldunari Aimar eta Aiala bere lagun partetik. Muxuak. Segi orain bezain sasotsu!!!



Elgorriagako JOKIN MARIEZKURRENA MIGELTORENAK ekainaren 13an 6 urte beteko ditu. Zorionak eta aunitz urtez zure lagun Aimar eta Aialaren partetik. Muxu haundi bat guapo!



Leitzako LIDE URKIOLA MARIEZKURRENA MIGELTORENAK ekainaren 19an 3 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu bat June eta Izargiren partetik! Bizkotxo goxoa prestatu!



Legasako ANDER ZELAIETA EULATEK 7 urte bete ditu ekainaren 13an. Zorionak eta muxu haundi bat Igantzikako familiaren partetik.



XABAT BEORLEGI VICENTEK urte bat beteko du ekainaren 21ean. Aunitz urtez gure moxolito pitxurrinori eta mila muxu potolo familia guztia partetik.



Donamariako NAHIA eta EKAIK 9 urte beteko dituzte ekainaren 21ean. Zorionak etxeko partetik! Ongi pasa eguna!



ELUSKA POMBAR LARRALDE beratarak 9 urte beteko ditu ekainaren 17an. Zorionak eta muxu haundi bat Eila eta Urkiren partetik!!!



EKIÑE GOÑI Oskortzek maiatzaren 31n 8 urte bete zituen. Etxeko sorginxoa haunditzen ari zaigula! Muxuak Ibarra, Oiz eta Arantzako familien partetik.



Erabili
Ttipi txartela
pegatina
hau ikusten
duzun
denda eta
zerbitzuetan

bixkiak
KIROL ETA MODAKO
arropa denda

ASTORE
Loreak Mendian

TERNUA
non gogoa, han zangoa

paz torras

Arretxea, 7 B2 • LESAKA • 948 638 110

%30
DESKONTUA

Dezigual
markako arropan

ZOZKETA

SANFERMIN etarako
EROSKETAK
egiteko **30€** ko
2 BALE
(asteen zozketa bat)



Baztango Udala



Bortzirietako
Hiri-Hondakinen Mankomunitatea



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

HAU EZ DA ZABORRA, BIZIA BAIZIK

Gai organikoen hondakinak bereizi eta birziklatzea eskuzabaltasunez eta zureekiko eta etorriko direnekiko konpromisoz jokatzeko da. Zure laguntzak gas kutsatzaile gutxiago igortzeko, lurrerako ongarria ekoizteko eta energia berriztagarriak sortzeko aukera ematen du.

EZ EGIN PASO ORGANIKOAZ!



ESTO NO ES BASURA, ESTO ES VIDA

Separar y reciclar los restos de materia orgánica es un compromiso irrenunciable y un acto generoso con los tuyos y con los que vendrán. Tu colaboración permite reducir la emisión de gases contaminantes, producir abono para la tierra y ahorrar energía.

¡NO PASES DEL MARRÓN!





EKAINAK **18**

HERRI GALDEKETA

gure etorkizuna erabaki dezagun!



BORTZIRIAK

ARANTZA: Plazan
BERA: Altzate karrika, 20
LESAKA: Plaza Zaharrean
IGANTZI: Zentroan
ETXALAR: Plazan

MENDIALDEA

ARANO: San Roke elkartearen aurrean
ARESO: Plaza Zaharrean
GOIZUETA: Plazan
LEITZA: Herriko Plazan

Ordutegia: **09:00-20:00**

Nork bozka dezake: **16 URTETIK GORAKO HERRITARRAK**

Zer ekarri?: **NAN agiria, pasaportea edo EHNA + ERROLDA AGIRIA**

* Agirietan beste herri bat ageri bada errolda agiria ekarri.